

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-
KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

AURKIBIDE OROKORRA:

-
- I** VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIA
(Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala)

 - II** ARGITALPEN BULEGOA

 - III** ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN
ZERBITZUA

 - IV** NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

 - V** MUSEOEN ZERBITZUA

 - VI** ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

 - VII** KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I. VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA (Baliabideen eta garapen estrategikoaren atala)

-
1. Vianako Printzea Erakundearen jatorria
 2. Kultura eskumenak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea
 3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak
 4. VPE-KZNren egitura
 5. Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalaren eginkizunak
 6. Balioak
 7. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua
 8. 1/2019 Foru Legea, urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzkoa
 9. Nafarroako Foru Komunitatean Kultur Mezenasgoaren Foru Legea
 10. Nafarroako Kulturaren Behatokia eta Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa
 11. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala
 12. Vianako Printzea Saria
 13. Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria
 14. Hedapen eta komunikazio ekintzak
 15. Hitzarmen izendunak eta dirulaguntzak
 16. Zeharkakotasuna
 17. Unitate arduraduna eta kontaktua
-

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

ARGITALPEN BULEGOA

ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

MUSEOEN ZERBITZUA

ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

1. Vianako Printzea Erakundearen jatorria

Vianako Printzea Erakundea Nafarroako Foru Diputazioak 1940an sortutako erakunde bat da, kultura sustatzeko, bereziki Nafarroako herriaren legatua gordetzeko, arte ederrak lantzeko eta ondarea zaintzeko.

Vianako Printzea Erakundea Nafarroako Kultura Kontseilu gisa sortuz, XIX. mende erditik Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordeak egiten zuen lan hori hartu zuen erakundeak bere gain.

Erakunde haren helburua zen, garaiko hizkeran, “gure iragan loriatsua ohoratzea, iragan hura omentzen duten monumentuak zaintzea, gure arte ederrak lantzea eta gure herriak zaindu eta goraipatu behar duen altxor espiritual eta sentimental guztiarekin batera bizitzea, dauzkagun ezaugarri bereziekin betikotzeko ahalegin noblei aurre egin nahi badiegu”.

Hasieran, Vianako Printzea Erakundeak hiru ataleko egitura izan zuen. Lehen atalean “erreinuko ondare artistiko osoa zaindu, mantendu eta gordetzeko” lanak jaso ziren; bigarrenean “historia, zuzenbidea, literatura, ohiturak, artisautza ikertzea, aztertzea eta sustatzea”; eta hirugarrenean “kultura zabaltzea argitalpen, liburutegi, agiritegi, museo, ikastaro, hitzaldi eta turismoaren bidez”.

2. Kultura eskumenak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea

Nafarroan zenbait eskubide historiko propio dauzkagu, foruak, alegia; identitate definitua duen gizartea osatzen dugu horrela, historia luzekoa, gure legatu historikoaren berezitasunean eta sistema ekonomiko bereizgarri eta propioan oinarritutakoa. Kultura legatu horren berezko atal bat da, eta banakako zein talde mailako idiosinkrasiaren garapenaren parte izan da.

Ikusita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren laugarren xedapen iragankorra eta abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretua, eta bat etorritik Konstituzioaren 148.1.15, 16 eta 17 artikuluetan eta aipatutako Lege Organikoaren 44.8, 9, 10, 11, 19 eta 20 ; 57.b) eta 58.1.c) eta i) artikuluetan ezarritakoarekin, kultura gaietako eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari dagokio, barne hartuz ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkitekturakoa, arkeologikoa, artxiboak, liburutegiak, museoak, hemerotekak eta gainerako kultura gordailuak, estatu mailako titulartasunekoak ez badira, arte ederrak bultzatu eta irakasteari lotutako erakundeenak, kultura, arte eta antzeko izaera duten elkartenak, haien funtzioak batez ere Nafarroan garatzen badituzte, eta Nafarroako foru zuzenbideko arauekin bat etorritik eratu diren fundazioenak.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak

Arlo hauetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari esleitutako eskumenak garatzea Kultura eta Kirol Departamentuari dagozkio:

- › Kultur ondarea babestu eta areagotzea.
- › Herritarrek kulturara iristeko aukera demokratizatzea.
- › Arte sormena eta hedapena bultzatzea eta sustatzea.
- › Eta indarra dauden xedapenek ematen dizkioten gainerako eskudantziak.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskudantzia hauek ditu arlo hauetan:

- a) Kultura, Estatuarekin koordinaturik.
- b) Historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia eta zientzia ondarea, betiere ondare hori esportazioaren eta espoliazioaren aurka defendatzeko Estatuak dituen ahalmenak deusetan ukatu gabe.
- c) Artxiboak, museoak eta kultura gordailurako gainerako zentroak, haien titularra Estatu ez bada.
- d) Liburutegiak eta hemerotekak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- e) Indarra duten xedapenek Kultura eta Kirol Departamentuari esleitzen dizkietenak, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren berezko esparruan.

4. VPE-KZNren egitura

1. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu hauek ditu bere egituran:

- a) Ondare Historikoaren Zerbitzua.
- b) Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua.
- c) Museoen Zerbitzua.
- d) Liburutegi Zerbitzua.
- e) Kultur Ekintza Zerbitzua.

2. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari zuzenean atxikita, Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala dago.

5. Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalaren eginkizunak

Atala zeharka ari da lanean Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuekin eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluarekin, 2017-2023 aldirako Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren ondoriozko planak eta proiektuak egiteko, baita kultura arloan eskumena duen departamentuak eskatutakoak ere, eta Idazkaritza Tekniko Nagusiarekin ere bai, Nafarroako Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Legea eta Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko Foru Legea hedatzeko planean.

Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalak eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren lan ildoen barneko eta kanpoko komunikazioa erraztea.
- b) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin batera eta zerbitzuekin zeharka lan egitea denen intereseko proiektu eta planetan.
- c) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren planak, zerbitzuak eta atalak lagundu, kontrolatu eta ebaluatzea.
- d) Kultura eta arte sektoreen garapena eta balioespena bultzatzen dituzten Nafarroako Gobernuako beste departamentuekin elkarlanean aritzea.
- e) Herritarrak kulturaren arloan sentsibilizatzen laguntzea, bai eta kultura ohitura eta praktiketan parte hartzen ere.
- f) Kulturaren irisgarritasuna bultzatzea herritarren artean, komunikazio, sustapen eta zabalkuntzaren bidez.
- g) Zeharkako planak gauzatu eta koordinatzea Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuekin eta beste eragile batzuekin, lankidetzaz errazteko eta lurraldeko premia eta errealitateetan oinarritutako erabakiak ahalbidetzeko.
- h) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren beharren arabera, edozein lurraldetan jarduteko eta garapen-ereduetarako dauden aukerak aztertzea, eta beste kultura eta sormenezko entitate batzuek kultura politikaren eta kudeaketaren arloan aplikatzen dituzten neurriak konparatzea.
- i) Espainiako eta atzerriko sareetan parte hartzea sustatzea, bai eta informazioa trukatzeko eta beste errealitateak ezagutzeko ere, sortzaileen eta herritarren mesedetan.
- j) Kultura sektore eta eremuetan lan egiten duten pertsonen duintasuna eta kalitatea errazten dituzten kultura prozesuetan behar diren baliabideak ematea.
- k) Berrikuntza eta zabalkuntza sustatzea Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak garatzen dituen jarduketetan.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- l) Nafarroako Kulturaren Behatokia, datuen bilketa eta datu horiek erabiltzeko proposamenak sustatu eta garatzea.
- m) Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluarekin elkarlanean aritzea eta harekin lan egitea Kontseiluko kideen eta batzordeen eginkizunak hobeki gauzatzeko, modu pluralean eta kultura sentsibilitate guztiei erantzunez.
- n) Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa garatu, ebaluatu eta eguneratzea.
- ñ) Nafarroako Foru Komunitatean kultura mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea sustatu, hedatu eta jarraipena egitea, hainbat eragilerekin elkarlanean.
- o) Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea garatu eta abiaraztea, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuekin eta sektoreko erakunde, entitate eta eragile inplikatuarekin elkarlanean.
- p) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren argitalpenen urteko planaren proposamena prestatzea (argitalpen monografikoak, zientifikoak, zabalkundeak, aldizkariak, inprimakiak, entzunezko materialak, ikus-entzunezkoak eta multimediakoak).
- q) Parte hartze prozesuak zeharka sustatzea Administrazioaren eta sektorearen artean, prozesu bateratzaileei bide emanez eta prozesuaren garapen egokirako metodologiak aplikatuz.
- r) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuekin egiten diren koordinazio bileretan parte hartzea, ekintza bateratuak finkatzeko.
- s) Departamentuko webgune eta gailu eramangarrietarako aplikazioen irisgarritasun eskuordetuaren unitate arduradunaren eginkizunak.
- t) Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna aplikatzeari lotutako eginkizunak gauzatea Kultura eta Kirol Departamentuaren politikak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzean, bat eginik Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearekin.
- u) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak, edo bere helburuak egoki betetzeko agintzen zaizkion guztiak.

6. Balioak

- » Kultura elementu integratzaile modura, pertsonak gerturatu eta neurri handi batean elkar ezagutzea eta bizikidetzara erraztuko dituen, gizarte kohezionatuko duten balioak, bizimoduak eta pentsamoldeak sustatuz, eta aniztasuna, askatasuna, sorkuntza, justizia soziala, inklusioa, parte hartzea eta demokrazia oinarritzat izanen dituzten bizikidetzara esparruak osatuz.
- » Kulturak, gizarte kritiko eta konprometituaren garapenerako motorra den aldetik, artearen eta kulturaren bitartez balio sozialak, sorkuntza eta pentsamendu kritikoa garatzeko tresnak eskaintzen ditu.
- » Kulturaren sektoreak badu gaitasuna eta erantzukizuna herritarrei laguntza emateko uler ditzaten bai aurrez aurre izanen ditugun mundu mailako erronkak, bai erronka horiek gainditzeko betebeharrak erabakigarria izaten ahal dugula.
- » Kultura irisgarritasuna Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko Foru Legeak eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legeak osatutako arau esparrutik lantzen da.
- » Hedapena eta zabalkunde, gure ekintza guztien elementu komunak, ezagutzaren balioa nabarmendu eta gizarte osoari helarazteko premisapean.
- » Genero berdintasuna, genero ikuspegiarekin lan egitea ezinbestekoa da Nafarroa berdintasun lurralde bihurtzeko, emakumeak kultura eta arte sorkuntzan duen presentzia erraztu eta bultzatze aldera.
- » Sorkuntza eta berrikuntza, kulturaren alderdi sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien zabaltzea, gizarte garaikideek aitzinean dituzten desafioei erantzuteko. Nafarroa sormen eta sorkuntza lurraldea da. Horren adierazgarriak onenak dira euskarazko zein

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

gaztelaniazko arte, literatura, musika, ikus-entzunezko adierazpenak eta adierazpen folkloriko eta herrikoiak.

- › Gure hizkuntza ondarea errespetatzea. Euskara geure kulturaren balio bereizgarri bat da; euskaraz egindako kultura baloratzen aurrera egitea, gure lurraren eta gure ohituraren elementu aglutinatzaile modura.

7. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua

[Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua](#) Foru Komunitateko Administrazioak kulturaren eta arteen arloan duen partaidetza, kontsulta eta aholkularitzarako kide anitzeko organoa da.

Nafarroako Kulturaren Kontseilua 1984an sortu zen, Foru Komunitatean garapen kulturala sustatzeko. Horretarako, eginkizun hau eman zitzaion: nafarren behar eta interes kulturalak helaraztea kulturaren arloan eskuduna den organoari, behar ziren ekintzak proposatuz lurraldeko garapen kultural hobea lortzeko nahiz Administrazioaren programen jarraipena egiteko, ordezkatzan dituzten adimenaren eta arteen eremuen ikuspegik.

Bere ibilbide luzean, agindu zaizkion lanak bete ditu, zubi-eginkizuna bete du Administrazioaren eta kultura bizitza gauzatzen den eremuen artean, eta alderantziz, eta, bere bidez, kultura plangintzan esku hartzeko aukera eman die horretarako gaitasuna dutenei, dela duten eskarmentuarengatik, duten jakituriagatik edo kultura eta arte bizitzan zuzenean parte hartzeagatik. Kulturaren arloan erabakiak hartzeko prozesuan beti izan dira oso garrantzitsuak haren proposamenak. Haren ekimenen artean, besteak beste, nabarmentzekoa da Vianako Printzea Kulturaren Saria eratzeko proposamena, Nafarroako Gobernuak 1990ean sortu zuena.

Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko Foru Legea onartuz, 2019an, izena moldatu zuen, eta gaur egun duen Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua izena hartu zuen.

Eginkizunak

- Nafarroako Foru Komunitateari aholku ematea kulturaren arloan.
- Kulturaren arloan eskuduna den departamentuarekin elkarlanean aritzea haren kultura politikak zehazten, gauzatzen eta ebaluatzen kulturaren eta arteen esparruetan.
- Kulturari eta arteei buruzko eztabaida eta jakintza piztea Nafarroako Foru Komunitateko kultura politiken esparruan.
- Kulturaren eta kultura politikaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.
- Informazioa jasotzea eta aholku ematea Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa prestatu, aplikatu eta ebaluatzeko, baita kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren plan sektorialak eta zeharkakoak prestatu, aplikatu eta ebaluatzeko ere.
- Aginduzko txostenak ematea kulturaren eta arteen arloko arauen proiektuei buruz, baita kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren plan estrategiko, sektorial eta zeharkakoei buruz ere.
- Nafarroako Gobernuari proposatzea Vianako Printzea Kulturaren Saria nori eman.
- Informazioa jasotzea kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren aurrekontu proiektua egiteko prozesuari eta haren betearazpenari buruz.
- Kultura ondarea babestu eta ugaritzeko ekimenak plazaratu eta egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzea.
- Aginduzko txostenak ematea kulturaren arloan eskuduna den departamentuak sustatzen dituen kultura ekipamendu berri guztiei buruz.
- Ordenamendu juridikoak ematen dizkion gainerako eginkizunak betetzea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haren esku uzten dituenak ere.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Araudia

Araudia: 86/2020 FORU DEKRETUA, azaroaren 25ekoa, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko erregelamendua onesten duena.

Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea, Kontseiluaren eginkizuna indartzen duena, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluari egiteko berriak esleitzen baitizkio eta bestelako osaera ezartzen baitu, kultura eragile guztiek neurri handiagoan parte hartzea lortze aldera.

Osaera

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean:

- a) Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularra, buru izanen dena.
- b) Kulturaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiko titularra.

2. Nafarroako toki entitateen izenean: Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak izendatutako bi pertsona, udaletako kultura zerbitzuetan teknikari aritzen direnak.

3. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren izenean: Batzorde Betearazleak izendatutako pertsona bat.

4. Kontseiluaren eginkizunen esparruan prestigio handia, ezagutza espezializatua edo presentzia frogatua duten hamabi pertsona.

5. Nafarroan erregistratuak dauden eta gutxienez bi urteko funtzionamendua duten lanbide entitate eta elkarten sei ordezkari, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aipatutako kultura sektoreetakoak.

Kultura sektore bakoitzeko, lanbide entitate edo elkarten ordezkari bakarra izanen da.

Bai lanbide entitate eta elkarte horien zehaztapena, bai proposamena egiteko prozedura, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera egingen dira.

Kontseiluaren osaeran genero parekotasuna bermatuko da.

8. 1/2019 Foru Legea, urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzkoa

Partaidetza prozesua eta alde zuzeneko kontsulta:

Aldez aurreko kontsulta herritarren partaidetzara ireki zen 2017ko urriaren 4tik 24ra, Gobernu Irekiaren bitartez.

[Nafarroako Parlamentuaren](#) Osoko Bilkurak Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko Foru Legea onetsi zuen 2019ko urtarrilaren 11n.

2019ko urtarrilaren 26an hartu zuen indarra, [NAOn](#) argitaratu eta biharamunean:

Gobernuak bultzatutako foru lege horren xedea da "herritarren kultura eskubideak bermatu eta sustatzea, honakoak defendatuko dituzten kultura politikak bultzatuz: kulturaren balioa, denon ondasuna den aldetik, eta kulturarako irispidea izateko eta kultura bizitzan parte hartzeko eskubideak, gizarte berdinzaleagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko zutabeak diren aldetik".

Horren ildotik, kultura "enplegua sortzeko eta garapen ekonomikorako eragile garrantzitsua" izateaz gain, elementu "integratzailea, eraldatzailea eta dinamizatzailea" ere badela jakinik, araua saiaterik da kultura eskubideen erabilera errazten: "sormen gaitasunerako pizgarri izanen da, eta arte adierazpenetarako babes, eta kultura arloan lan egiten dutenen eta sorkuntza industrietako ekintzaileen zereginari babes eta aitortza emanen dizkio", behar adinako aurrekontu-neurriak hartuta, betiere.

Testuinguru horretan, aipamena egiten zaio **literatura sorkuntzari**, eta hura sustatu eta babesteko berariazko planak, programak eta tresnak ezartzen dira, beste arte jarduerak batzuekin eta giza eta gizarte zientziekin zerikusia duten gaien azterketara, kritikara eta ikerketara heda daitezkeenak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

Hala, bada, “askatasuna, aniztasuna, pluralismoa eta diskriminazio eza”, besteak beste, “kultura identitatea aukeratzeko” ahalmena ematen duten balioak direlakoan, horiekin bat etorriz, **norberak aukeratutako hizkuntzan** iritzi eta adierazpen **askatasuna** izateko eskubidea jasotzen da, “Nafarroako hizkuntza ofizialen gaineko araudian xedatutakoa ukatu gabe”.

Irisgarritasunaren alorrean, Foru Komunitateko kultura ekipamenduetarako **irispide** fisiko eta **bertuala** arautzen dira, azken kasu horretan informazioaren teknologiak eta kultura bitartekotza direla medio. Horretarako, **Nafarroako Kulturaren Atari Digitala** aipatzen da, kultura ekipamenduen hedapenerako eta informaziorako tresna izanen dena. Nafarroako Gobernuak gehienez hiru urteko epea izanen du hura ezartzeko. Aldez aurretik, legea onesten denetik sei hilabete igaro baino lehen, atariaren diseinuaren proiektua aurkeztu beharko du, “Parlamentuak ezagutu eta hartan parte hartu ahal dezan”.

II ARGITALPEN BULEGOA

Bereziki, **Nafarroako Kultura Ondarearen** parte diren ondasunetarako irispidea sistematizatzen da, ondare immateriala eta dokumentu ondarea ere barnean hartuta (horien digitalizazioa sustatuko da), eta azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean adierazitako bisita publikoa baimentzeko betebeharra ezartzen da. Aurreikuspen hori **Eliza Katolikoaren** jabetzako ondasunei ere aplikatuko zaie.

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

Nafarroako Kultura Ondareko ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsonen edo entitateen betebeharrak bat izanen da **jendearen doako bisitarako** baimena ematea, hilean lau egunez gutxienez eta lau orduz egunean gutxienez, aurretik adierazitako egun eta orduetan. Ondasun higigarriak dagokienez, betebeharrak horren ordez **gordailua** egiten ahalko da kultura arloko departamentu eskudunak ikusgai jartzeko erabakitzen duen zentroan.

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

Jabeek onartu beharko dute, halaber, beren ondasun higigarriak **maileguan** uztea Nafarroako administrazio publikoek antolatu edo sustatutako **erakusketa** publikoetarako. Gainera, behar bezalako egiaztagiria duten **ikertzaileei** baimena eman beharko diete Nafarroako Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroan inskribatuta dauden ondasunetarako sarbidea izan dezaten. Kasu horietan guztietan, mailegu eta gordailuak gehienez ere **60 egun** naturaletan eginen dira urtean.

V MUSEOEN ZERBITZUA

Liburutegi eredia egokitu nahi da, sistema digital hurbilagoa eta gizartearen beharretarako egokiagoa erabil dezan, eta horretarako behar bezala moldatuko dira eskaintzen diren zerbitzuak eta irakurketa planak.

Beste arlo batean, Nafarroako administrazio eta erakunde publikoen argitalpenak eskuratu eta erabiltzeari dagokionez, erabaki da aukera ematea sorrera eskubideak lortzeko eta gerora lagatzeko (copyfarleft lizentziak), **kultura aske eta prokomunaren** printzipioei jarraituz.

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

Zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloan, nabarmentzekoa da **Nafarroako Zinematikaren** eginkizunen arautzea. Eginbehar hauek izanen ditu, besteak beste: bere ondare zinematografikoaren zabalkunde lana egitea, hura berreskuratzea, zaintzea, babestea eta artxibatzea.

Ohartarazten da kultura izaera nabarmeneko ikus-entzunezkoen sorkuntza soilik sustatuko dela, propagandarako edo merkataritzarako produkzioei laguntza publikorik ez emateko, “halakorik bultzatu eta sustatzea ez delako lege honen helburuen artean sartzen”.

Arte eszenikoak eta musika direla eta, haien adierazpide soziokultural eta artistikoek gizartearen prestigioa har dezaten begiratuko da, praktika sustatuz. Sektore amateurraren garrantzia azpimarratzen da eta kultura politikak prestatzen eta garatzen parte hartzeko aukera ematen zaio, sektore profesionalaren kalterik gabe.

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Kultura bizitzan eta kultura arloko politika publikoekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuetan **parte hartzeari** dagokionez, testuak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu irekiari buruzko Legera jotzen du, banako gisa nahiz taldean “kultura eta sorkuntzako adierazpideen sustapenean” parte hartzeko eskubidea aldarrikatzeko, beste arau batzuetan xedatutakoa ukatu gabe.

Bestalde, kultura sektoreetan lan egiten dutenen **profesionalizazioa** bermatzeko helburuz, Departamentuak sustatu eginen ditu kudeatzaile, liburuazain, artxibozain, sustatzaile, ikertzaile, bitartekari, teknikari eta beste batzuen aitortza, prestakuntza, gaikuntza eta espezializazioa, “desafio berriei erantzun kualifikatua emateko eta kultura sektoreen garapen jasangarria bermatzeko”.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

Legean jasotakoak udalerrien eskumenei ere eragiten die. Bereziki, udalerriek kultura ondare immaterialari zabalkundea eta balioa ematea begiratuko dute, herri kulturak eta kultura tradizionalak beren testuinguru historiko eta kulturalean nahiz lurraldean kokatuz. Eremu orokorrangoan, kultura ekintzarako planak prestatuko dituzte eta kultura elkarteak sustatu eta babestuko dituzte. Legeak adierazten du, halaber, udalerriek kultura zerbitzu jakin batzuk sustatu behar dituztela, bakarrik edo udalez gaindiko entitateen bitartez.

II ARGITALPEN BULEGOA

Esparru horretan, erabiltzen ez diren espazio publikoen “errentagarritasun soziala” hobetze aldera, proiektatzen da espazio horiek erabilgarri egotea sorkuntzaren edo kudeaketaren aldetik berritzaileak diren arte eta kultura ekimenetarako, eta espresuki aurreikusten dira “kogestioa eta autogestioa”.

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

Era berean, Nafarroako udalerriei agintzen zaie neurriak har ditzatela hurbiltasuneko kultura ekipamenduak edukitzeko (langile profesionalak dituztenak), “kogestio edo autogestio” ereduaren bitartez.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua kultura arloko kontsulta eta aholkularitza organoa da. Eskumena duen kontseilaria izanen da lehendakaria, eta genero parekotasuna bermatuko da osaketan. Kontseiluko kideak Foru Administrazioaren ordezkariak, toki entitateenak, kultura entitateenak eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarenak izanen dira, kultura esparruan entzute handia duten pertsonen gain. Nolanahi ere, Nafarroako Kultura Kontseiluko egungo kideek berek osatuko dute hura ordezkatzeko duen kontseilu berria, agintaldia amaitzen zaienera arte.

Kontseiluaren eginkizuna izanen da, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren eta departamentuaren ekintza planen jarraipena eta ebaluazioa egiteaz gain, Vianako Printzea Kulturaren Saria nori eman proposatzea Nafarroako Gobernuari.

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

Finantza eta tributu arloan honako hauek aurreikusten dira: kulturaren finantzaketa publikoa, dirulaguntzen eta bestelako laguntzen ezarpena, kultura mezenasgoaren hedapena (batez ere mikromezenasgoarena), eta kultura ekintzaitzarako funtsen sorrera eta krediturako irispidea.

Xede horrekin, sortzaileen, artisten eta kultura arloko profesionalen lanaren “espezifikotasuna” aitortzeko, Nafarroako zerga araudia Artistaren Estatutuari buruzko Azpibatzaordearen txosten batean jasotako proposamen eta gomendioei egokitzeko zaie (Prestazio publikoak eta jabetza intelektualeko eskubideen nahiz sorkuntza jardueren bidezko diru-sarrerak bateragarri izateari buruzko txostenen).

V MUSEOEN ZERBITZUA

Halaber, beharrezkotzat jotzen da zergen ikuspuntutik tratamendu “arrazoizkoa, orekatua eta bidezkoa” ematea kolektibo horri, lanean jarraitzearen eta beren prestazio publikoak galtzearen arteko hautua egitera ez behartzeko. “Gizarte moderno batek ezin dio uko egin sortzaile eta artisten kapital intelektualari, bereziki heldutasuneko etapan”.

Bestalde, legea indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, Kultura Departamentuak zerbitzu kartak onetsi beharko ditu, eta bertan zehaztuko du zein diren bermatutako prestazioak bere eskumen esparruetan.

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

Azkenik, erabaki da 16 urtetik beherakoak dantzaleku, diskoteka eta antzokoetan sartzeko ahalko direla zuzeneko emanaldiak daudenean. “Beren guraso edo tutoreekin sartu beharko dira, eta emanaldia amaitzen denean adingabeak ez dira establezimenduan geratzen ahalko”. Hala, “adingabeek kulturarako duten eskubidearen eta haien babesa segurtatzeko betebeharraren artean behar den oreka bermatu” nahi da. Aurreikuspen horrek berekin dakar aldaketa egitea Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Legearen 10. artikulua 5. apartatuan.

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

9. Nafarroako Foru Komunitatean Kultur Mezenasgoaren Foru Legea

[Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legeak](#) lankidetzat publiko-pribaturako eredu berri bat ezartzen du, kultura proiektu edo jarduerak egiteko.

Nafarroa aitzindaria izan da arlo horretan, estatuan kultura mezenasgoaren lege bat onartu duen lehen komunitatea izan baita; 2014ko maiatzaren 8an onartu zen Nafarroako Parlamentuan.

Hiritarren parte hartze prozesua eta alde aurreko kontsulta egin zen 2013ko uztailaren 15etik irailaren 15era, [Gobernu Irekiaren](#) bitartez.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

Lege horren bidez, erakundeek eta artistek jaso dezakete Nafarroako Gobernuak interes sozialeko kultura eta arte ekimenei ematen dien [MEKNA bereizgarria](#). Halaber, horiei lagunduko dieten enpresek eta norbanakoek zerga pizgarri nabarmenak izanen dituzte.

Nafarroako Gobernuak MEKNA zigiluarekin aitortzen du herritarrek, enpresaburuek eta gizarte osoak kultura sustatu eta finantzatzeko hartzen duten konpromisoa.

Bi epe daude proiektuak interes sozialekotzat deklaratzeko: maiatzaren 1etik 31ra eta urriaren 1etik 31ra.

II ARGITALPEN BULEGOA

ENTITATEAK ETA ARTISTAK

Honako arlo hauekin lotutako proiektu eta jarduerak jaso dezakete MEKNA interes sozialeko bereizgarria:

- › Zinematografia, ikus-entzunezko arteak eta multimedia arteak.
- › Arte eszenikoak, musika, dantza, antzerkia eta zirkoa.
- › Ikusizko arteak: arte plastikoak edo arte ederrak, argazkilaritza eta diseinua.
- › Liburua eta irakurketa, literatur argitalpenak eta argitalpen fonografiko eta zinematografikoak, edozein formatutan edo euskarritan.
- › Egungo ezagutzaren gizartean dauden produktu kulturalen aniztasunetik sortutako ikerketa-prozesu eta -proiektuak.
- › Nafarroako kultur ondarearen –materialaren eta ez-materialaren– gaineko ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa, zaharberritzea, berreskuratzea, zabalkundea eta sustapena egitea, Nafarroako hizkuntza aniztasunari bereziki erreparatuta.
- › Nafarroako folklorea eta herri tradizioak, bereziki herri musika (jota, aurorak eta euskarazko herri kantak) eta herri askotako dantza tradizionalak (esate baterako, jota, larrain dantza, makil dantza, bolanteak, mutil dantza edo ezpata dantza).
- › Artearen edo kulturaren arloko beste edozein jarduera.

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

Toki entitateak eta unibertsitate publikoak

Toki entitateek eta haien mendeko erakunde autonomoek eta fundazio publikoek eta Nafarroako unibertsitate publikoek aski dute jakinaraztea Nafarroako Gobernuari proiektuak edo jarduerak gauzatu baino bi hilabete lehenago gutxienez.

Nafarroako Gobernuak babestutako ekimenak

Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuak hitzarmen eta dirulaguntza bidez sustatu edo babesten dituen kultura proiektuek edo jarduerak, onuradun izan daitekeen pertsona edo entitatearen batek eginak badira, interes sozialaren deklarazioa izanen dute, berriaz egin beharrik gabe.

Kasu horietan baimenduta dago zerga-pizgarriak aplikatzea hitzarmena izenpetzen denetik edo dirulaguntza ematea erabakitzen denetik aurrera.

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

MEZENASGOA

Norbanakoa izan edo zerga helbidea Nafarroan duen enpresa bat izan, hiru bide izanen dituzu erkidegoko kultura garapenaren alde egiteko:

- › DOHAINZTA. Dirua, ondasunak edo eskubideak ematea, edo zerbitzuak dohainik egitea.
- › ERABILERA MAILEGUAK. Kultur interesa duten ondasunak, jarduerak egiteko lokalak, kalitatezko artelanak eta beste batzuk dohainik eta aldi baterako lagatzea.
- › LANKIDETZA HITZARMENAK Laguntzaileen (ekarpen ekonomikoen egileak) eta onuradunen artean izenpetutako hitzarmena; haren bidez, onuradunek laguntzailearen partaidetza zabaltzeko konpromisoa hartzen dute.

MEKNA proiektu eta jarduerari egindako ekarpenek sortutako zerga pizgarriak hauek dira:

PARTIKULAR GISA, eskubidea izanen duzu PFEZaren kuotatik % 80ko kenketa egiteko zergaldi bakoitzean dohaintzan emandako lehenbiziko 150 euroetan, eta % 40koa gainerrako ekarpenetan.

ENPRESA BAZARA dohaintzen kopuruak Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarritik kenduko dizkizute.

Harremanetarako: Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia.

Telefonoa: 848 42 46 00

mecenazgocultural@navarra.es

10. Nafarroako Kulturaren Behatokia eta Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023 (NKPE)

Plan estrategikoak ekintzarako proposamen zehatzak eta estrategiak hausnartu, eztabai-datu eta garatzeko tresnak dira; kultura politikaren helburu partekatuak lurraldeko eragile publiko eta pribatuekin batera definitzen dituzte, lagungarriak dira egiten ari den hori antolatzeko eta horri zentzua eta koherentzia emateko eta etorkizuneko erronkei talde modura aurre egin ahal izatea ahalbidetzen dute.

Epe luzeko plangintza estrategikoa beharrezkoa da kudeaketa publikoa gardenagoa eta arduratsuagoa izan dadin, baina, horrez gain, ebaluazioa egitea ahalbidetzen du, eta, horrenbestez, baita kudeaketa publikoaren kontuak ematea ere.

Partaidetzako hainbat lan ildo eta dinamikari esker, ekarpenak, hausnarketak eta balorazioak bildu dira, [Nafarroako Kulturaren Plan Estrategiko](#) hau eraikitzeko erabili direnak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Planaren prestaketan fase hauek daude:

- › I.a eta II.a: NKPEren helburuen, ildo estrategikoen eta metodologiaren definizioa, barne direla komunikazio plana; eta Nafarroako kultur eta sormen sektoreen diagnostikoa.

PLANA PRESTATZEA:

	Prestaketa	Azalpena	Onespena
AURREKARIAK: Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 2016-2019ko Ekintza plana.	Diagnostikoa eta helburuak	Zirriborroaren argitalpena	Plan estragikoaren onespena
	Kultur eragileen mahaia	@Ekarpenak eta iradokizunak	
	Herritarren mahalak	Ebaluazioa eta ekarpenen balorazioa	
	Laborategiak	Planaren proposamena	
	Zirriborroa		
		2017ko apirila-iraila	2017ko urria-abendua

- › III.a: lanerako mahaia: kultur eragileak, herritarrak eta eztabaidarako laborategiak, baita parte-hartze esparru horretan behar diren ekintzak ere.

Bilera hauek egingen dira:

BILERA HAUEK EGINEN DIRA:	LEHEN SAIOAREN EGUNA	BIGARREN SAIOAREN EGUNA
ATARRABIA / VILLABA Tokia: Atarrabiako kultura etxea	Abuztuak 28 (17:00-19:30)	Irailak 18 (17:00-19:30)
ZANGOZA / SANGÜESA Tokia: Vallesantoro jauregia	Abuztuak 29 (9:30-12:00)	Irailak 19 (9:30-12:00)
TAFALLA Tafalla Kulturguneko zinema aretoa	Irailak 5 (17:00-19:30)	Irailak 19 (17:00-19:30)
LIZARRA / ESTELLA Tokia: Karlismoaren Museoa	Abuztuak 30 (17:00-19:30)	Irailak 20 (17:00-19:30)
TUTERA / TUDELA Tokia: Almirantearen etxea	Abuztuak 31 (17:00-19:30)	Irailak 14 (17:00-19:30)
ALTSASU / ALSASUA Lugar: Tokia: Iortia Kultur Gunea	Irailak 4 (11:00-13:30)	Irailak 22 (17:00-19:30)
EZTABAIDAGUENEAK	SAIOEN EGUNA	
Kultura eta sormen industriak: IRUÑEA/PAMPLONA Tokia: kultura Departamentuaren Pío Baroja aretoa.	Abuztuak 30 (9:00-11:30)	
Genero ikuspegia Nafarroako kulturaren: IRUÑEA/PAMPLONA Tokia: Kultura Departamentuaren Pío Baroja aretoa	Irailak 5 (9:00-11:00)	
Kulturaren eta sormenaren hibridazioa: IRUÑEA/PAMPLONA Tokia: Kultura Departamentuaren Pío Baroja aretoa	Irailak 6 (9:00-11:30)	
HERRITARREN MAHAIK	SAIOAREN EGUNA	
TUTERA/TUDELA Tokia: Almirantearen etxea	Irailak 25 (17:00-19:30)	
IRUÑEA/PAMPLONA Tokia: Kultura Departamentuaren Pío Baroja aretoa	Irailak 26 (17:00-19:30)	
ALTSASU/ALSASUA Tokia: Iortia Kultur Gunea	Irailak 27 (11:00-13:30)	

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- › IV.a: Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren (NKPE) zirriborroaren idazketa, Gobernu Irekiko ekarpenen bilketa eta azken dokumentuaren aurkezpena.

NKPEren printzipioak:

Kultura prisma berri batetik ulertzea. Kultura zerbitzu publiko modura; balio plural, justu eta demokratikoen sustatzaile modura, gizartearen sormen gaitasuna garatzea ahalbidetuko duena, ideien eta haien garapenen igorle zein hartzaile izateko guztiok dugun eskubidean oinarrituz. Gizartea kohesionatu eta komunitate modura haztera bideratutakoa.

Nafarroako Gobernuaren kultura politika diseinatu behar da Nafarroako gizartea osatzen duten pertsona guztiei sarbide irekia bermatzeko, baita antolatzen diren bestelako talde entitateei ere.

Aintzat hartu behar ditu gizartearen artean harremanak izateko modu berriak eta aldaketa teknologikoak; gure balio historikoak errespetatu baina aurrera egin eta berritzea ahalbidetuko digun bilakaera etengabe eta orekatutik egin behar du lan.

Planak 2017-2023 aldirako Nafarroako Gobernuaren kultura politika eratuko duten ardatz estrategikoak, jarduera ildoak eta ekintzak bildu ditu.

Ardatz estrategikoak:

1. kohesioa, aniztasuna eta lurralde dinamikak

Lehen ardatzaren erronka: Nafarroaren lurralde kohesioa eta aniztasuna sustatzea kulturaren eta sormenaren esparruan.

2. Informazioa, ezagutza, berrikuntza eta sormena

Bigarren ardatzaren erronkak: Nafarroako kulturaren eta sormenaren egoerari eta bilakaerari buruzko informaziorako eta jarraipen sistematikorako sistema bat ezartzea, eta plan estrategikoak eta sektorialak egitea, baita egoeraren diagnostikoak ere.

3. Enpleguaren kalitatea

Hirugarren ardatzaren erronkak: kalitate oneko enplegua sustatzea eta kulturaren sektoreko lanbidea duintzea, bertako profesionalen balioa eta bizi-kalitateari, gizartearen ongizateari eta lurraldearen aberastasunari egiten dioten ekarpena aitortu daitezten.

4. Sentsibilizazioa, partaidetza eta hirugarren sektorea

Laugarren ardatzaren erronkak: herritarrek eta kultura eta arte eragileek Nafarroako kultura politiken garapenean parte har dezaten bultzatzea; sektore profesionalaren eta amateurraren arteko loturak sendotzea; Nafarroako gizartearen sentsibilizazioa sustatzea kulturaren eta artearen alde.

5. Finantzaketa

Bosgarren ardatzaren erronkak: kulturaren eta sormenaren arloko ekimenak finantzatzeko formula berriak aztertzea, haren garapenean eta iraunkortasunean laguntzeko.

6. Kulturaren zeharkakotasuna eta hibridazio estrategikoak

Seigarren ardatzaren erronkak: politika publikoen zeharkako elementu bihurtzea kultura, Nafarroan garatzen diren estrategietan duen presentzia indartuz (liburu zuriak, beste arlo batzuetako plan estrategikoak eta jarduketako planak, hala nola hezkuntzakoak, turismokoak, merkataritzakoak, garapen ekonomikokoak, etab.).

7. Kultura eskaintzaren ikusgaitasuna eta aniztasuna

Zazpigarren ardatzaren erronkak: kultura eta sormena ikusaraztea lurraldean bertan eta kanpora begira; Nafarroan bizi diren pertsona guztiek kulturarako sarbide irekia izan dezaten sustatzea, oreka sozialeko irizpideak kontuan hartuta.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

8. Ekipamenduak: irisgarritasuna eta baliabideak

Zortzigarren ardatzaren erronkak: Nafarroako kultur ekipamenduen arrazoizko lurralde plangintza sustatzea eta erabiltzaileen eta sortzaileen irisgarritasuna hobetzea.

9. Kultura sektoreak eta balio-katea

Bederatzigarren ardatzaren erronkak: liburutegiak, museoak eta artxiboak, ondare historikoa, kultura ekintza eta haien balio-katea dinamizatzea.

10. Kultura eta sormen industriak

Hamargarren ardatzaren erronkak: Kultura eta Sormen Industrien (KSI) sektorean ikuspegi aldaketa bat ezartzea, haren garapena bultzatzeko, eskualde-politikako tresnen arteko koordinazioa eta integrazioa hobetuta, bai eta ekintzailatza eta garapen profesionala sustatzeko neurriak ere.

2030erako HELBURUAK, NKPEn lerrokatuak:

- 1: Pobrezia desagertzea. 4. eta 7. ardatz estrategikoak
- 4: Kalitatezko hezkuntza. 2., 3., 4., 6. eta 9. ardatz estrategikoak
- 5: Genero berdintasuna. 4., 5. eta 7. ardatz estrategikoak
- 8: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 1., 2., 3., 7. eta 10. ardatz estrategikoak
- 9: Ura, industria, berrikuntza eta azpiegitura. 6. eta 10. ardatz estrategikoak
- 10: Desberdintasunak murriztea. 4., 7. eta 8. ardatz estrategikoak
- 11: Hiri eta komunitate jasangarriak. 1., 3., 6., 8., 9. eta 10. ardatz estrategikoak
- 16: Bakea, justizia eta erakunde sendoak. 5. ardatz estrategikoa

NAFARROAKO KULTURAREN BEHATOKIA

Nafarroako Kulturaren Behatokia (NKB) sortu zen NKPEn antzeman zelako Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak **Nafarroan kultura jardunen esparruan gertatzen den guztiaz** informazio ahal bezain osatua ezagutu eta eskura izan behar zuela.

Hala, Nafarroako Kulturaren Behatokia sortu zen Nafarroako kulturaren eta sormenaren esparruan informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa sistematizatzeko eta kultura eta sorkuntza sektoreei buruzko ezagutzan sakontzeko helburuarekin, honako hauek lortzeko:

- › kultura politikak egiten eta erabakiak hartzen laguntzea;
- › joerak, beste sektore batzuekiko loturak eta abar ikertzea;
- › Nafarroako eta kanpoko jardunbide onak eta esperientziak identifikatzea; eta
- › publikoek kultura eta sormena ezagut ditzaten sustatzea.

Informazio horretan aintzat hartzen da jardueraren genero ikuspegia (estatistikak sexuen arabera, hizkuntza ez-sexista txostenak idaztean, eta abar), baita hedapenean euskara eta gaztelania erabiltzea ere.

Ebaluazioa:

Lursarearekin lankidetzan web bisore bat prestatu da. Ikusarazteko tresna bat da, eta [Nafarroako Kulturaren Behatokiaren](#) gunean dago integratuta; informazio gakoa bilatu, deskargatu eta ikusaraztea ahalbidetzen du, planaren helburuko adierazleak barne.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

NKB eta NKPEren ekintzak:

Azterlanak:

NKBk zenbait azterketa eta lan argitaratzen ditu, eta webgune honetan kontsultatzen ahal dira: memoria, COVID-19, NKPEren enkarguak, liburutegi eta museoen azterketa, berdintasuneko lanak eta bestelakoak izaten dira.

Prestakuntza:

Prestakuntza programa, profesionalizazioari eta ikaskuntzari laguntzea kulturaren eta sormenaren eremuan. 2017-2023 aldirako Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak prestakuntza eskaintzarekin jarraitzeko beharrezana antzeman zuen Nafarroako kultura eta sorkuntza sektoreei dagokienez laborategi eta foroen bitartez, ikaskuntza eta prestakuntza ibilbideak, planak eta ekimenak indartu eta/edo garatzeko helburuz Administrazioako langileentzat eta sektore profesionalarentzat, gaitasun profesionalak garatzeko aukera emanen dietenak beren jardura adarreko gai espezifikoko eta teknikoetan eta zeharkako arloetan (berdintasuna, kudeaketa, fiskalitatea, dirulaguntzen eskaera, kontratazioa, komertzializazioa, irisgarritasuna, desgaitasuna duten pertsonekin elkarri eragiteko tailerrak eta abar).

Hainbat gai landu dira: komunikazioa, ekipamenduak, berdintasuna, nazioartekotzea, teknologia berriak, bitartekaritza, mezenasgoa, gaitasun digitalak...

II. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala

Nafarroako Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen Proiektua betez, [Nafarroako Kulturaren Atari Digitalerako](#) lanak hasi ziren. Lehen fasean, artxiboan, museoan, liburutegien eta ondare historikoaren "ondare" informazioa jaso zen 2018an.

Kulturaren Atari Digital berriak, Foru Gobernuak sustatzen duenak, Nafarroako artxibo, museo eta liburutegi publikoetako baliabideak biltzen ditu, hala nola dokumentu historikoak, liburuak, aldizkarietako artikuluak, eskuizkribuak, argazkiak, mapak, koadroak edo partiturak.

Plataforma berri honen helburua herritarrei kultura informazioa eta dokumentazioa helaraztea da, Foru Komunitateko kultura espazio digitala garatzen eta indartzen laguntzeko. Urte hauetan guztietan lortu nahi izan den helburua da kultura eskuratzeko eskubidea sustatzeko tresna bat sortzea, herritarrek Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen objektu digitalak kontsultatu ahal izan ditzaten.

2020. urtean itxialdian eman genituen hilabeteetan, kultura digitala funtsezko elementua izan da eta erakutsi digu eraldaketa digitalerantz jo behar dugula. Baliabide bat, aliatu bikaina, sorkuntzarako, berrikuntzarako eta irisgarritasunerako.

Ataria portalcultura.navarra.es helbidean dago eta Foru Administrazioako informazioa jasotzen du. Hasiera orrian hiru esteka zuzen daude: Nafarroako Liburutegi Digitala (BINADI), Nafarroako Museoa eta Ireki Artxiboa. Gainera, erabiltzaileei bilaketak egitea ahalbidetzen die, baita "Nabarmendutako bildumak" izeneko apartatu batean sartzeko ere; horretan, arte, kirol, arkitektura, numismatika, musika eta eskuizkribu monografikoak daude eta pixkanaka hedatu egiten da bilduma berriekin, etorkizunean.

Dokumentuetan sartzean, fitxa bat ageri da dagozkien datuen laburpenarekin, eta loturiko irudiarekin (baldin badu), baita jatorrizko datu iturrian dauden objektu digitalerako estekak ere. Gainera, fitxan erlazioatutako edukiei buruzko apartatu bat dago, antzeko aukeren iradokizunekin. Bilaketa etiketak lau hizkuntzatan daude: gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez.

Atarian dagoeneko ia 400.000 fitxa daude argitaratuta. Objektu digitalek zenbait formatu dituzte, hala nola dokumentu historikoak, liburuak, aldizkarietako artikuluak, eskuizkribuak, argazkiak, mapak, koadroak edo partiturak.

Azkenik, nabarmentzekoa da, baliabide berriak dauden heinean, areagotu egiten direla Atarian eskuragarri dauden emaitzak.

BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

ARGITALPEN BULEGOA

ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

MUSEOEN ZERBITZUA

ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

12. Vianako Printzea Saria

Vianako Printzea Saria 1990ean ezarri zen, Vianako Printzea Erakundearen 50. urteurrena ospatzeko, Nafarroako Kultura Kontseiluaren ekimenez, "urtero emateko sari bat, berariaz kultura goratzeko, bakarkako zein taldeko ibilbideak goraiatzeko helburuarekin. Haren bitartez, sarituen jarduna aitortzearekin batera, modu sinbolikoan adierazi nahi zen erakundeek garrantzia handia ematen diotela kulturari gizarteak eratu eta garatzeari dagokionez". Sari horren orientazioari dagokionez, "bereziki saritu nahi dira lan jarraituak eta jardun nabarmenak".

Izendapena Karlos III.a Nobleak Karlos Trastamarakoa eta Evreuxekoa (1421-1461) bere biloba eta koroaren oinordekoaren alde 1423. urtean eratu zuen titulutik dator. Vianako Printzerria sortzeko erabakiak Europako erresumen Behe Erdi Aroko ohitura batekin du zerikusia. Ohitura horren arabera, tronua oinordekoak titulu berezi bat zuen: Ingalaterrakoa, 1283tik, "Galesko Printzea" zen; Frantziakoa, 1346tik, "Vienneko Delfina"; Aragoikoa, 1350etik, "Gironako Printzea"; eta Gaztelakoa, 1388tik, "Asturiasko Printzea".

1990etik sari banaketa **Leireko San Salvatore** monasterioan egin da, Nafarroako Errege-erreginen Omenaldi tradizionala egin den egun berean; 1993. urtetik Espainiako koroak ere parte hartzen du. **2016. urtean** sari banaketaren ekitaldia lekuz aldatu zen eta harrezkero **Erriberriko Errege-erreginen Jauregian** egin da; hala, Leiren ospatzen den Nafarroako Errege-erreginen Omenaldi ekitalditik zein Errege Etxetik bereizi da. 2019ko Vianako Printzea Saria Vianan banatu zen, hiria sortu zenetik VIII. mendearen ospakizuna zela medio. 2020an Erriberriira itzuli zen.

Izangaiak:

Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseiluko kideek eta edozein herrialdetako erakunde publikoek (gubernuek, ministerioek, udalek, unibertsitateek, akademiek, ikerketa zentroek, enbaxadak, kontsulatuak eta abar) aurkezten ahalko dituzte hautagaiak, baita edozein herrialdetako legez eraturako hezkuntza, kultura, gizarte entitateek zein GKE-ek ere; orobat, antolakuntzak gonbidatutako pertsonalitateek.

Epaimahaia:

Sariaren epaimahaiak, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideek osatuak, hautagaitzak aztertuko ditu eta, merezimenduz gain, Nafarroarekin duten lotura berezia baloratuko du.

13. Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria

Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria 2020an sortu zen, "gazte ekintzaileek Nafarroako artearen eta kulturaren arloetan duten ekimena babestu eta bultzatzeko, gazteentzat erreferente bihurtzeko eta Nafarroan sortzen ari den talentua ikusarazteko" asmoarekin. Sarituaren parte-hartzea izan duten lanek edo jarduerak Nafarroan duten eragin sozial eta kulturala ere baloratzen da.

Sariak Nafarroan legezko bizilekua duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteen lan artistikoa sarituko du, beren lana ikusarazteko eta Nafarroan sortzen ari den talentua profesionalizatzen laguntzeko.

Izangaiak:

Saria eskatzen duten pertsonak beren buruarentzat edo legez ordezkatzeko dituzten entitateentzat aurkez ditzakete hautagaitzak.

Hautagaiak 18 eta 30 urte artean izan beharko dute, eta legezko bizilekua Nafarroan eduki, hautagaitzak aurkezteko epea bukatu baino lehen. Hautagaiak legezko bizitokia Nafarroan ez badu, egiaztatu beharko du Nafarroarekin erlacionatutako edo lotutako proiektu edo jardueretan parte hartu duela.

Epaimahaia:

Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusia, zuzendaritza nagusi horri atxikitako zerbitzu eta zuzendariak eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kide bat. Epaimahaiak hautagaitzak aztertuko ditu, eta, bakoitzaren merezimenduz gainera, honako hau ere baloratuko du: hautagaiak zer proiektu edo jardueretan parte hartu duen, horiek Nafarroan izan duten eragin sozial eta kulturala.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

14. Hedapen eta komunikazio ekintzak

Nafarroan kultura eta sorkuntzaren inguruan sentsibilizatzeko planak Kultura Zuzendaritza Nagusiari dagozkio, publiko desberdinak kontuan hartuz. Helburua Nafarroako kultura eta sorkuntza, profesionalen prestigioa eta kultura ekoizpenari ematen zaion balio gehigarria barruko zein kanpoko merkatuan hobeki ikusarazten laguntzea da.

Kultura eta Kirol Departamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak hedapen eta komunikazio lan handia egiten du zerbitzu eta ataletatik sortutako jarduera eta programei dagokienez, baita www.culturana Navarra.es webgunea eta sare sozialak mantentzen ere; horietan guztietan kultura arloko departamentu eskudunaren berrikuntzak zein Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia osatzen duten bost zerbitzuen informazio eguneratua bildu eta hedatzen dute.

Prensa oharra, txostenak eta materialak prestatzea koordinatzen du antolatutako ekitaldien prentsaurrekoetarako; artikulu eta erreportajeak eratzeko; multimedia albistek prestatzea (argazkiekin eta audioekin); eta komunikazio arloko aholkularitza. Zerbitzuetako programen komunikaziorako materialak prestatzen ditu. Halaber, kultura agendaren hedapen mekanismoak ezartzen ditu desgaitasun guztietarako irisgarriak diren gertuko euskarri anitzetan.

Zabalkunderako tresna:

- › Webguneak
- › Albisteen buletina edo newsletterra
- › Sare sozialak
- › Komunikazio kabinetea, Nafarroako Gobernuaren Komunikazio Zerbitzuarekin lankidetzan.

15. Hitzarmen izendunak eta dirulaguntzak

Gaur egun, gastu publikoaren zati handi bat dirulaguntzetan egiten da, hau da, administrazio publikoak inolako ordainik jaso gabe egiten dituen diru ekarpenetan.

Bistan denez, botere publikoek komenigarritzat jo dute herritarrei zenbait ondasun eta zerbitzu pribaturen kostua osorik edo zati bat finantzatzea, dirulaguntzak emanez, ondasun eta zerbitzu horiek eskuratu ahal izan ditzaten.

Beste batzuetan, sektore estrategikoetan inbertsio pribatuak egiteko pizgarria ematea izan da transferentzia publiko horien helburua, hazkunde ekonomikoa eta produktiorako baliabideen erabilera sustatu nahi izan direlako.

Hala, bada, administrazio publikoen aurrekontuetan dirulaguntzek leku nabarmena izan ohi dute.

Printzipioak:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, bereizkeriarik eza eta kontrola.
- Dirulaguntza ematen duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia.

Norgehiagoka:

dirulaguntzak nori eman erabakitzeko baliatzen den prozedura da; hala, aurkezten diren eskaerak alderatzen dira, lehentasunaren arabera ordenatzeko, oinarri arautzaileetan eta deialdian aurretik ezarri diren balorazio irizpideei jarraituz, eta irizpide horien arabera balorazio onena lortzen duten eskaerei dirulaguntza adjudikatzen zaie, deialdian ezarritako muga eta kreditu erabilgarria gainditu gabe.

Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileek honako hauek ezartzen dituzte:

- Dirulaguntzaren xedea
- Dirulaguntzaren zenbatekoa

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- c) Pertsona eta/edo entitate onuradunek bete beharreko betekizunak
- e) Eskabidea aurkezteko epeak
- g) Balorazio batzordearen osaera eta instrukzioaren eta ebazpenaren organo eskuduna
- i) Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak
- j) Justifikatzeko epea eta modua
- k) Dirulaguntza ordaintzeko modua eta epeak eta diruz lagundutako jarduera egin izana justifikatzeko modua

Emakida zuzena:

Entitate onuradunarekin lortzen den hitzarmenean jasotzen dira xedea, helburu publikoa, jarduera finantzatuko duen aurrekontu partida, baldintzak, betebeharrak, ordaintzeko era eta justifikazioa.

2022an indarrean dauden hitzarmen izendunak:

- › José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2016tik
- › Nafarroako Edizio Azoka, 2019tik
- › Amado Alonso Fundazioa, 2020tik
- › Nafarroako Liburu Azoka, 2021etik

16. Zeharkakotasuna

Kultura Zuzendaritza Nagusiak % 30-50eko partaidetza du Nafarroako Gobernuaren programa eta planetan, eta horrek kulturaren garrantzia adierazten du, ezinbestekoa baita herritarren osasun fisiko zein emozionala zaintzeko. Horrez gain, lurraldean presentzia duen elementu bat da, eta gakoa da kohesiorako, egituratzeko eta gizartearen ongizate-rako.

Lana sarean eta beste eragile batzuekin lankidetzan egiten da; kulturak gobernuko sailarteko zenbait batzordetan hartzen du parte, esaterako 2030 Agenda, despopulazioa, gazteria, berdintasuna, LGTBI+, boluntarioak, Europa mailako proiektuak edo udalekin ba-tera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Koordinazio Foroaren bitartez.

17. Unitate arduraduna eta kontaktua

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

Posta elektronikoko helbidea: DG.Cultura.IPV@navarra.es

Telefonoa: 848 424608

Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala

Helbide elektronikoa: plancultura@navarra.es

Telefonoa: 848 424685

Helbidea:

Navarrería kalea, 39.

31001 Iruña.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

II. ARGITALPEN BULEGOA

1. Helburuak
 2. Eginkizunak
 3. Aldizkariak
 4. Liburuak
 5. Ediziorako laguntzak
 6. Open Journal Systems (OJS)
 7. Unitate arduraduna eta kontaktua
-

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

1. Helburuak

- › Nafarroa lurraldean interesekoak izan daitezkeen argitalpenak sustatzea, ildo editorial propio baten bitartez eta lurralde mailako ikuspegiarekin.
- › Proiektuak sortzea ediziorako laguntzen bitartez.
- › Testuen eta edizio prozeduren kalitatea bermatzea.
- › Vianako Printzea Erakundearen bereizgarri izan diren edukiekin jarraitzea (historia, artea, artearen historia, etnologia eta etnografia, arkeologia, ondarea, bibliografia, filologia, literaturaren historia).
- › Esparru tematiko berriak irekitzea, alderdi berriagoei tartea egiteko, esatera soziologia edo antropologia, zinema, antzerkia, musika, dantza, sorkuntza industriak, museoak, arte garaikidea. Bereziki zainduko dira euskarazko edukiak.
- › Latindex, Scopus eta Redalyc kalitate irizpideak betetzea.

2. Eginkizunak

Argitalpen Bulegoak, Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalari atxikita, eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren argitalpenen urteko planaren proposamena prestatzea (argitalpen monografikoak, zientifikoak, zabalkundekoak, aldizkariak, inprimakiak, entzunezko materialak, ikus-entzunezkoak eta multimediakoak).
- b) Plan horretan aurreikusitako argitalpenak egiteko prozesua kudeatzea, departamentuari dagozkion faseetan.
- c) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko argitalpenen egoera aztertzea (liburuak, aldizkariak, etab.) eta urteko memoria bat prestatzea.
- d) Argitalpenetarako ekimenei laguntzeko deialdiak kudeatzea.
- e) Aholku eta laguntza teknikoa ematea Nafarroako Kulturaren Kontseiluko Argitalpen Batzordeari.
- f) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak, edo bere helburuak egoki betetzeko agintzen zaizkion guztiak.

3. Aldizkariak

2017an zehar zenbait hobekuntza egin ziren lau aldizkarietan, argitalpen akademikoak ebaluatzen dituzten organismoen eskakizunak betetzeko. Alde batetik, artikuluen egitura aldatu zen, artikuluko informaziorik garrantzitsuena hasieran eskaintzeko: autoreak, filiazio akademikoa, harremanetarako korreoa, ikerkuntza proiektuak, jatorrizkoaren harrera eta onarpen datak, abstract eta gako hitzak, laburpena eta epigrafe zenbakituak. Orri oinetan aldizkariaren izena, zenbakia, artikuluen orriak, ISSN ageri dira. Kredituen orria hiru hizkuntzatan ageri da, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Bestalde, lau aldizkariaren webguneak martxan jarri ziren culturana Navarra.es atarian, ondoren ebaluatuko diren informazioak jasoz: erredakzio kontseiluko kideak eta helbidea, argitaratutako aleak, ebaluazio sistema, ISSN (papera eta elektronikoa), fundazio urtea, aldizkako-tasuna, formatua, estilo arauak eta jatorrizkoak aurkezteko arauak, egiletza adierazpena eta eskubideak lagatzea, onarpen prozesua, kode etikoa, open access, erantzukizunetik salbuestea, gordailua eta prezioa. APA arauak aplikatu dira lau aldizkarietan, argitalpen akademikoetan gero eta hedatuago dauden erabilera arauak direlako.

Aldizkari bakoitzak helbide bat eta erredakzio kontseilu propioa du, eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez berritzen da.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.1. Príncipe de Viana

Nafarroari eta nafar ondareari buruzko ikerketa historiko eta kulturalen gaineko aldizkaria, lau hilabetez behingoa, komunitate zientifikoari zuzendua eta 1940. urteaz geroztik argitaratzen dena.

3.2. *Fontes Linguae Vasconum*

Fontes Linguae Vasconum sei hilabeterik behin argitaratzen den euskal filologia eta hizkuntzalaritzari buruzko aldizkari zientifikoa da, Nafarroako Gobernuak 1969tik argitaratzen du.

Argitaratu gabeko lanak plazaratzen ditu, gai hauetakoak: hizkuntzalaritza historikoa eta sinkronikoa, fonetika eta fonologia, morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika, tipologia, diskurtoaren analisia, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntzalaritza konputazionala eta corpusekoa, psikolinguistika eta neurolinguistika, literatura klasikoa eta garaikidea, soziolinguistika, bariazioa, dialektologia, lexikografia eta lexikologia, historiografia, hizkuntza zaindu eta berreskuratzea eta irakastea, baita testu zaharren edizio eta ikerketa ere, betiere euskarari lotuta. Iruzkun bibliografikoak eta ale berezi monografikoak ere argitaratzen ditu.

3.3. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*

Gizarte zientziei eta antropologiari buruzko aldizkaria, urtean behingoa, komunitate zientifikoari zuzendua eta 1969. urteaz geroztik argitaratzen dena.

3.4. *Trabajos de Arqueología Navarra*

Nafarroan egiten diren arkeologia lanen zabalkuntza egiteko aldizkaria, komunitate zientifikoari zuzendua eta 1979. urteaz geroztik argitaratzen dena

Aldizkarietan argitaratutako lanek, ale bereziek barne, berrikusketa sistema zorrotza gainditu behar dute, itsu bikoitzeko pare bidez; hala, edukien kalitatea bermatzen da. Argitalpen prozesu osoa erabat doakoa da egileentzat, eta aldizkariak, open access politikarekin konpromisoa duenez, irakurleei doako sarbide librea errazten die eduki guztietara, webgunearen bitartez, Creative Commons lizentziarekin.

4. Liburuak

Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundea 1940an sortu zen. Orduetik hona argitalpen lan garrantzitsua egin du: batetik, aldizkariak argitaratu ditu, eta, bestetik, zernahi monografia, Nafarroako errealitateko –historiako, arteko, etnografiako, filologiako eta bestelako giza eta gizarte zientzietako– alderdiak biltzen dituztenak.

Argitalpen batzordea

1986tik, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak (gaur egun Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua) aldizka Argitalpenen Batzordea izendatzen du, kontseiluko zenbait kidek osatutakoa; aurkeztutako lanak baloratu eta argitaratzea komeni den ala ez aztertzen dute, baita kulturaren eskumena duen departamentuaren ildo editorialari bestelako ikuspegiak eskaini ere.

Argitaratutako lanak

Argitalpenak eskuratzeko edo haiei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus [Nafarroako Gobernuaren argitalpenen online dendaren katalogoa](#).

Euskarri digitalean dauden liburuak

Argitalpenen Bulegoak, agortutako edizioen obren inguruan herritarrek duten interesa ikusita, [culturavarra.es](#) webgunearen bitartez argitalpen horiek digitalizatuta eskuragarri jartzen ditu, doan eta modu librean deskargatzeko.

Nork argitara ditzake bere lanak?

Vianako Printzea Erakundeak, aldizkarietaz gainera, monografiak argitaratzen ditu eta monografia horien originalak bi bidetatik iristen dira.

- › Batetik, Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek berek sortzen dituzten lanak argitaratzen ditu Erakundeak, bai Zuzendaritzak berak hautemandako behar bati erantzuten diotenak, bai mandatuz prestatzen direnak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- › Bestetik, zenbait egilek beren borondatez Erakundera argitara daitezen igortzen dituzten originalak argitaratzen dira.

Originalak hartzea

Bigarren bidean lan hauek sartzen dira: eskatu gabe, egileek beren borondatez igorritako originalak. Lan horiek hautatu eta onartzen dituzte espezialista independenteek (bik berri-kusten dituzte) itsu bikoitzeko sistemaren bitartez (anonimotasuna gordetzen da egileetan –egileak nor diren ez dakite– eta ebaluazioan). Horrek guztiak bermatzen du, batetik, erabakien zehaztasuna eta inpartzialtasuna, eta, bestetik, onartutako lanen kalitate eta interesa.

Originala jaso ondoren, Argitalpen Batzordeak lehen balorazioa egiten du, eta, itsu bikoitzeko prozedurari hasiera eman baino lehenago, lana ebaluatzea bidezkoa den aztertzen du edo, orobat, bazter utzi behar den, dela kalitate eskasagatik, dela gaiagatik. Ebaluatzea erabakitzen bada, gaian adituak diren ebaluatzaileak aukeratzen dira, zeinak, bi hilabete-ko epean, baloratuko baitituzte gaiaren interesa, ikusmoldea, idazketa, egitura, luzera, eta iturri eta erreferentzia bibliografikoen erabilera. Hobetzeko iradokizunak ere gehituko dira.

Ebaluazioa binaka bukatu ondoren, hartutako erabakiaren jakinarazpena jasoko du egileak. Bazter uzten ez bada bederen, originala itzuliko zaio egileari, ebaluazio-txostenetan iradokitako aldaketak egin ditzan.

Originalaren bertsio berria –ebaluazio-txostenetako gomendioen arabera aldaketak dituen– jaso ondoren, behin betikoz onartuko da.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusira igorritako monografiak aukeratzeko erabilitako arauak [hemen daude](#), xehetasun handiagoz.

[Hemen ikus ditzakezu](#) originalak aurkezteko arauak. Aukeran, [egiaztapen zerrenda](#) erabil dezakezu zure lanak beharkizun guztiak betetzen dituela ziurtatzeko.

Edizio lanak

Onartutako originalaren behin betiko bertsioa hartuko da eta edizio-lanei hasiera emanen zaie: originala berrikusi eta prestatzea, maketatzea eta probak zuzentzea. Maketatutako lehen probak egileari igorriko zaizkio, berrikusi eta zuzen ditzan. Inprimategiko akatsak edo gramatika arloko aldaketak soilik onartuko dira; izan ere, egileek bidalitako idazlanak behin betiko testuak dira. Argitalpenetan atzerapenik ez izateko, zuzenketak horretarako ezarriko den epean jasotzen ez badira, Vianako Printzea Erakundeko Argitalpen Bulegoak egingen ditu zuzenketak, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe. Bulegoak bere-tako gordeko du originalak Erakundeak berezko dituen arau zientifiko eta tipografikoetara egokitzeko ahalmena.

Argitalpen Bulegoa arduratuko da geroagoko berrikuspenez, liburuaren barne-diseinuaz eta azalez eta, orobat, inprimategikoekiko koordinazioaz, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Argitalpen Atalekoekin elkarlanean.

Egileak onartzen du, argitaratzeko arau gisa, Nafarroako Gobernuak lana erreproduzitu ahal izatea, osorik nahiz partez, baita haren digitalizazioa ere, haren egokitzapena edo itzulpena barne, beharrezkoa izanez gero. Halaber, onartzen du jendeari lanaren berri ematea komunikazio globaleko sareetan eta beste euskarri digitaletan, argitalpenaren kopia digitalizatua eskura jarritz Nafarroako Gobernuaren webguneetan edo harekin ikusteko duten beste erakunde batzuenan, zabalkunde eta ikerketa erabileretarako, ez bestetarako.

5. Ediziorako laguntzak

Kultura Zuzendaritza Nagusiak ediziorako laguntzen bi deialdi egiten ditu urtean: bata, argitaletxe eta profesionalentzako eta bestea, irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

5.1. Ediziorako laguntzak argitaletxe eta profesionalentzat

Argitaletxe eta profesionalentzako deialdiaren helburua da sustatzea kultura edukia duten liburuak, argitaratu gabeak eta originalak, faksimileak, lehenengo itzulpenak editatzea edo agortutako jatorrizko liburuak berriz ere argitaratzea (betiere duela hamar urte baino gehiago argitaratu badira azken aldiz, eduki berriak gutxienez % 15ekoak badira, maketa berria eta ISBN berria bada), paperean zein euskarri elektronikoan, Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Aurkeztutako liburuak genero hauetako batekoak izan beharko dute: eleberria, ipuinak, poesia, antzerkia, haur eta gazteentzako literatura, komikia, saiakera eta giza zientziak.

Profesionalek alta emanik egon behar dute EJZren 863. taldean, idazlearenean, edo 476. taldean (Liburuen edizioa).

5.2. Ediziorako laguntzak irabazi asmorik gabeko entitateentzat

Bigarren deialdiak hauxe du helburu: irabazi asmorik gabeko entitateei ekonomikoki laguntzea liburuak eta aldizkariak argitaratzeko, bai ohiko euskarrian (papera) bai euskarri elektronikoa, edo argitalpen diskografikoak, baldin eta edukiak artearen, kulturaren edo zientziaren gainekoak badira. Obra argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan beharko dira, eta Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan.

Entitatearen helburua, bere estatutuetan ezarria, kulturala izan behar da.

Eskaerak erregistro telematikoaren bidez aurkeztea

Eskaerak modu telematikoan aurkeztuko dira, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez. Identifikatzeko, ziurtagiri digitala edo NAN-PINa eduki beharko da.

Harremanetarako helbide elektronikoa: ipvpubli@navarra.es

6. OPEN JOURNAL SYSTEMS (OJS)

2019an [Open Journal Systems \(OJS\)](#) tresna diseinatzeko eta ezartzeko lanak hasi ziren, Vianako Printzea Erakundearen lau aldizkariak online kudeatzeko. Dagoeneko aldizkari askok erabiltzen duten plataforma digitala da. Jatorrizko artikuluen ebaluazio eta onarpen prozesuen kudeaketa eta jarraipena errazten ditu. Bai aldizkariko erredakzioak bai egile, zuzendari eta ebaluatzaileek erabiltzen dute plataforma.

7. Unitate arduraduna eta kontaktua

Argitalpen Bulegoa

Posta elektronikoa: ipvpubli@navarra.es

Telefonoa: 848 424691

Helbidea: Navarrería kalea, 39.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

III. ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

-
1. Identifikazioa
 2. Misioa, eskumena eta balioak
 3. Zerbitzuak
 4. Zerbitzu kartaren jarraipena eta kontrola
 5. Araudia eta xedapen orokorrak
 6. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak
 7. Zerbitzuak hobetzen laguntzea eta parte hartzea
 8. Iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko sistema
 9. Jendea hartzeko helbideak eta ordutegiak
 10. Zerbitzu kartaren ardura duen unitatea
-

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

1. Identifikazioa

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren unitate organikoa da, eta horren bitartez Kultura eta Kirol Departamentuak artxiboen esparruko koordinazio eta sustapen eginkizun orokorrak eta zehatzak betetzen ditu, legedian definitutakoak eta gizarteari, ikertzaileei, administrazioei (estatu mailakoak zein tokikoak eta Foru Administrazioiko beste departamentu batzue-takoak) zerbitzu ematera bideratutakoak, eragile eta sektore profesional eta enpresa arlokoak, hirugarren sektorea eta hezkuntza erakundeak ahaztu gabe.

Eginkizunen artean Nafarroako Artxibo Sistema osatzen duten entitateen agiriak eta artxi-boak kudeatzea sustatu eta garatzera bideratutako lana nabarmendu behar da, bereziki udalerrien kasuan, araudiak, aholkularitza, bisitak eginez, ikuskaritza lanak edo dirula-guntzen deialdiak eginez.

Halaber, zerbitzuaren jarduna bereziki garrantzitsua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemako burua den aldetik, izaera estrategikoa daukaten programak sustatzea garatzen baitu: Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiboa -AMAEN- (fonotekarekin), fototeka, funts garaikideak eta oraingoak (itxialdiko artxiboa eta ikus-entzunezko artxiboa barne), Zero Paper (Foru Administrazioaren departamentuetan eragina duena), edo artxibo digital segurua, besteak beste. Programa horiek garatzen be-reziki garrantzitsua da Nafarroako dokumentu ondarearen eraldaketa digitala eta zerbitzu digitalak areagotzea. Horretarako bi artxibo zentro daude:

- Nafarroako Artxibo Garaikidea

Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak emandako egin-kizunekin bat etorritik, zentro honek Administrazioaren artxibo gisa funtzionatzen du Foru Administrazioak sortutako dokumentuak eta espedienteak zaintzea eta kudeatzea zen-tralizatzeko, agiri horiek izapidetzen bukatu eta bulego izapidegileetan gordetzeko epea amaitu ondoren, baita sarbide mugen epeak agortu ondoren herritarrek zein jatorrizko bulegoek kontsulta egiteko ere. Halaber, zaintzen duten dokumentu ondarea hedatu eta horren balioa nabarmentzeko jarduerak ere garatzen ditu.

Artxibo zentro honek Nafarroako Gobernuak sortutako dokumentazioa zaintzea du hel-buru, Nafarroako Foru Komunitatearen lehen gobernu autonomikoa eratu zenetik (1984).

Halaber, zentroak Nafarroako jatorri pribatuko (entitateak eta pertsonak) oraingo doku-mentu funtsen zein dokumentu funts garaikideen dohaintza sustatzaile gisa jokatzeko, garrantzitsuak direnak Nafarroako oraingo eta duela gutxiko ezagutza zaintzeko, bereziki galtzeko arriskuan daudenak, eta horietan zaintza programak, tratamendu teknikoko pro-gramak, hedapen programak eta funts horien balioa nabarmentzeko programak aplikat-zen ditu.

- Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

Foru Komunitateko artxibo historikoen artean nagusia da, eta Nafarroako Erresumako erakunde zaharrek sortutako dokumentu funtsak biltzen dira bertan, baita Nafarroa probintziako gobernu eta administrazio erakundeek sortutako dokumentuak ere. Doku-mentu funtsak eta bildumak batu, antolatu, zaindu, kontserbatu eta hedatzea du xede; halaber, interes bereziko dokumentu funts pribatuen gordailuak eta dohaintzak sustatuz ere jarduten du.

Zentro honetan zaindu eta kudeatutako dokumentazioa modu iraunkorren kontserba-tuko dela ulertzen da, informazio historikoaren iturri gisa baliotsua delako; hala, kultura eta ikerkuntza helburua duten kontsultei zerbitzu lehenetsia ematen zaie.

2. Misioa, eskumena eta balioak

- Eginkizunak

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak eginkizun hauek izanen ditu:

Dokumentuen irisgarritasuna sustatzea, eta programak bultzatzea pertsona guztiek Nafarroako Dokumentu Ondarearen parte diren ondasunak kontsultatzeko duten es-kubidea gauzatzeko, titulartasuna edozein delarik ere, helburua ezagutza edo ikerke-ta izanik, indarreko legediarekin bat.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- b) Nafarroako Artxiboen Errolda, Nafarroako Artxiboen Erregistroa eta Nafarroako Artxiboen Mapa prestatu eta eguneratzea.
- c) Ikuskapen lana egitea, eta zehapen espedienteak izapidetzea Dokumentu Ondareari buruz.
- d) Profesionalen prestakuntza eguneratua bultzatzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezartzeko.
- e) Nafarroako artxibo sistema koordinatzea, bertan parte hartzen duten organoak sustatuz, arauak garatuz eta artxibistikaren teknika eta jardunbide egokiak ezarriz.
- f) Programak sustatzea sistemako artxiboen dokumentu ondarea kontserbatu, antolatu, deskribatu eta hedatzeko.
- g) Administrazio publikoen artxibo digitalaren ezarpenean laguntzea, bereziki Nafarroako toki entitateekin.
- h) Nafarroako administrazio publikoek sortutako dokumentazioa Kontserbatzeko Egutegi Orokorra eguneraturik izatea, administrazio batzuetan dokumentuen ebaluaziorako batzordeak egonda ere.
- i) Dokumentu ondareari buruz egiten diren kultura intereseko ondasun eta ondasun inbentariatu deklaratzeko espedienteak tramitatzea.
- j) Sistemak dauden artxiboei aplikatzen ahal zaizkien kudeaketa ebaluatzen adierazleak edo kalitatea ebaluatzen homologatzea onartzea.
- k) Nafarroako Gobernuaren artxibo sistemaren buru izatea, agirien antolaketa, tratamendu, irispide eta kontserbaziorako irizpide eta teknikak ezartzen dituzten arauak koordinatuz, artxibo sistema horren maila guzti-guztietakoak (bulegoetako artxiboak, artxibo zentralak, Administrazio Artxiboa eta Artxibo Historikoa).
- l) Nafarroako Gobernuaren Artxibo Digitalaren eskakizun funtzional eta operatiboak finkatzea, dokumentuen kudeaketari dagokionez.
- m) Nafarroako Gobernuaren dokumentu ondarea zuzen kudeatu, kontserbatu eta babesteko behar diren erregelamenduak eta bestelako arauak prestatu eta organo eskudunei igortzea, onets ditzaten.
- n) Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen inguruko administrazio jarduketak eta jardueren programazioak planifikatu eta kontrolatzea.
- ñ) Nafarroako Errege Artxibo Nagusiari eta Nafarroako Artxibo Garaikideari esleitutako berriazko eginkizunak gainbegiratzea eta koordinatzea.
- o) Aurretik adierazitako eginkizunei dagozkien espediente administratiboaren instrukzioa egitea.
- p) Dokumentu ondareko ondasunei buruz Kultura eta Kirol Departamentuak sustatzen dituen programa guztietan parte hartzea.
- q) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko gainerako zerbitzuekin egiten diren koordinazio bileretan parte hartzea, ekintza bateratuak finkatzeko.
- r) Zerbitzuko jardueren urteroko memoria erredaktatzea.
- s) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak, edo bere helburuak egoki betetzeko agintzen zaizkion guztiak.

- Balioak

1. Hurrengo eskubideak eta printzipio legal eta demokratikoak betetzen direla bermatzea:
 - a) Kulturarako irispidea izateko eta bitzta kulturalean parte hartzeko eskubidea
 - b) Kultura eskubideen oinarrian balio hauek daude: askatasuna, kultura aniztasuna, genero berdintasuna, diskriminazio eza, pluralismoa, kohesio soziala, irisgarritasuna eta garapen jasangarria.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- c) Informazioa jasotzeko eskubidea.
- d) Administrazioeko erregistro eta artxiboetara sarbidea izateko eskubidea.
- e) Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.
- f) Administrazioaren publikotasuna eta gardentasuna.
- g) Ikerketa zientifikoa sustatzea.
- h) Datu pertsonalak babestea.
- i) Dokumentu ondarea babestea, sustatzea eta aberastea.
- j) Ekonomia printzipioa, bizkortasuna, arintasuna, efikazia eta eraginkortasuna.
- k) Legezketasun printzipioa.

2. Genero berdintasuna, aniztasunari arretaz erreparatzea, segurtasuna eta ingurumena errespetatzea bermatuko duten neurriak ezartzea:

- a) Zerbitzuen prestazioan genero berdintasuna bermatzea, erabiliko diren inprimaki eta komunikazioetan hizkuntza ez-sexista erabiliz eta une oro herritar guztiei tratu parekidea bermatuz.
- b) Mugikortasun urriko pertsoneri instalazioetara iristeko sarbidea erraztea. Sarbidea eragozten duten oztopo arkitektonikorik ez dago.
- c) Harremanak elektronikoki bideratu informazioa eskatzeko, aurrez aurreko kontsultara joateko hitzordua eskatzeko edo beste kudeaketa batzuetarako.
- d) Ingurumena babesteko konpromisoa onartzea, papera eta kartoia batuz birziklatzeko, baita inprimagailuen kartutxo eta tonerrak tratatzea ere, eta argia emateko kontsumo baxuko led lanparak erabiltzea, besteak beste.
- e) Segurtasun eta higiene neurriak aplikatzea, esaterako aire girotuko sistemak berrikustea edo larrialdi irteerak eta ebakuazio bideak seinaleztatzea informazio panelen bitartez.

3. 2030 Agendan definitutako garapen jasangarrirako helburuak oinarrizko erreferentzia modura hartzea kasuan kasuko jardueran.

4. Administrazio publikoen arteko lotura bermatzea, administrazioen arteko lankidetzaren printzipioarekin bat etorrira.

5. Koherentziaz jokatzeko ematen dituen zerbitzuekiko, bere gain hartzen dituen konpromisoekiko eta betetze mailaren adierazleekiko.

3. Zerbitzuak

3.1. Dokumentuen kontsulta

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak banakako 32 postu ditu Kontsulta Aretoan, eta 25 postu Liburutegiko Irakurketa Aretoan. Nafarroako Artxibo Garaikideak 12 postu ditu Kontsulta eta Liburutegi Aretoan. Postu guztietan hargune elektrikoak daude, ordenagailu eramangarriak erabili ahal izateko. Bi zentroetan ordenagailuak ere badaude, artxiboaren datu baseetara eta liburutegiko katalogora sartu ahal izateko.

Arreta eraginkorra izateko aurretiko hitzorduaren sistema erabiltzea gomendatzen da (ikus harremanetarako datuen informazioa, 9. atala).

3.1.1. Informazioa eta aholkularitza

Informazioari eta aholkularitzari dagokionez artxibo zentroetan eskaintzen diren zerbitzuak honako hauek dira:

- a) Artxiboaren funts propioei buruzko orientabidea.
- b) Informazioa eta orientabide bibliografikoa, aurrez aurrekoa zein Interneten bidezkoa.
- c) Kontsulta gelan eta liburutegian erabilgarri dauden deskribapen tresnen eta datu baseen erabilerari buruzko orientabidea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- d) Dokumentuak bilatzeko eta aurkitzeko aholkularitza.
- e) Dokumentuak kopiatzeko arauak.
- f) Dokumentazioa eskuratzeko mugak.

3.1.2. Kontsulta motak

Bi kontsulta mota ezartzen dira:

- a) Barne kontsultak (Foru Administrazioaren organoen partetik) Dokumentazioa sortzen duen bulegoak bere eginkizunak erabiliz egiten duena da. Hala, datuen konfidentzialtasuna bermatzeko asmoz, dokumentu sail edo administrazio prozedura bakoitza sortzen duen bulegoko arduradunak hura kontsultatzeko baimena duten pertsonak izendatuko ditu.
- b) Kanpo kontsultak Barne kontsulta gisa definitutako kontsultetatik kanpo daudenak dira; indarrean dauden araudiek erregulatzen dituzte baldintzak eta epeak ezartzeari dagokionez.

Dokumentazioa edonork eskuratzeko modukoa ez bada, beharrezkoa izanen da haren kontsulta idatziz eskatzea 5 egun lehenago, Artxiboak hura eskuratzeko mugarik dagoen egiazta dezan.

3.1.3. Kontsulta eskaerak gelan

Eguneko 10 instalazio unitate, gehienez, eskatzen ahalko dira idatziz, gelan kontsultatzeko (kontsulta gelako arduradunak berariazko baimena eman ezean).

Erabiltzaileek 3 instalazio unitate eskatzen ahal dituzte aldi berean.

3.1.4. Erreserbak

Aldez aurretik, dokumentuak erreserbatzeko eskaera egiten ahal da, idatziz, telefonoz edo ahoz, bezperan gela uzterakoan, gehienez 10 instalazio unitatera arte eta gehienez bi asteko eperako. Erreserbak balioa galduko du, baldin eta erabiltzaileak ez badu kontsulta egiteko eskaera egiten erreserba-eparean lehen 24 orduetan.

Aldez aurretiko hitzorduaren sistema bidez kontsulta postua erreserbatzeko eskaera ere egiten ahal da.

3.1.5. Beste artxibo batzuen dokumentazioa

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Nafarroari lotutako hainbat funtsetako kopiak kontsultatzeko aukera ere ematen du, beste liburutegi eta agiritegi batzuetan daudenak. Kopia horiek hainbat euskarritan daude (esaterako, mikroformak, kopia digitalak edo argazkiak) eta soilik kontsulta ondorioetarako jartzen dira publikoarentzako eskuragarri.

Horretarako, ekipamendu zabala dago, besteak beste, ordenagailuak eta mikrofitxa eta mikrofilmen bisoreak. Halaber, erabiltzaileek dokumentazio osagarri eskuragarriaren zerranda eskura izanen dute.

3.1.6. Dokumentaziora sarbidea

Dokumentazioa eskuratzeko sarbidea Artxiboari eta Dokumentuei buruzko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan arautu da.

Pertsona guztiek baliatzen ahal dute artxibo zentroetara heltzeko sarbide eskubidea, bertan gordetako dokumentu ondarea osatzen duten agiriak kontsultatzeko, horien kopia lortzea barne dela, bat etorri kasuan aplikatzeko den legediarekin, zeinahi delarik zentro horietan gordetako dokumentuaren titularrak. Murrizketak ezarriko dira, bakar-bakarrik, pertsonen oinarrizko eskubideak babestea lehentasunezkoa denean eta, orobat, hori agintzen duen berariazko arauen bidez araututako kasuetan edo, hala badagokio, gordailu edo dohaintza akordioetan hala xedatzen denean.

Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak ezarriko ditu eskuragarritasun epeak. Epe horiek finkatzen ez diren bitartean, oro har, dokumentua sortu eta 30 urtera iraungiko dira dokumentu publikoak kontsultatzeko legezko murrizketak, non eta berariazko legedian ez den besterik ezartzen.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Pertsonen segurtasunari, ohoreari, intimitateari edo irudiari kalte egiten ahal dioten datuak dituzten dokumentuen kasuan, berariazko legediak kontrakoa esan ezean, oro har, kaltetuen baimena izanda kontsultatzen ahalko dira dokumentuak edo, bestela, haiek hil eta 25 urtera, edo heriotzaren eguna jakiten ez bada, dokumentua bukatu zenetik 50 urtera.

Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epeak zehaztuko ditu dokumentu sail bakoitzerako.

Dokumentazioa eskuratzeko eskubidea edo intimitaterako eskubidea urratu zaiola uste duenak idatzizko erreklamazioa aurkezten ahalko dio Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiko titularrari.

3.1.7. Jatorrizko dokumentazioa kontsultatzeko mugak

Ez da lagako jatorrizko dokumentazioa hurrengo egoeretako batean badago, artxibo zentro bakoitzeko arduradunak berariazko baimenik eman ezean:

- Kontserbazio egoera txarrean badago eta, horren ondorioz, hura ukitzeak kalte konponezinak sortzen ahal baditu.
- Zaharberrikuntza edo antolaketa prozesuan badago.
- Erreproduzitura egotea, fotokopietan, mikroformetan edo kopia digitaletan; kasu horretan horiek erabili beharko dira. Soilik salbuespen modura, ikerkuntzaren inguruarbarrek edo gaiak justifikatzen dutenean eta dokumentuen zaintza egoerak horretarako aukera ematen duenean eskainiko dira jatorrizkoak.
- Material bereziak izatea, eta horiek kontsultatzeko zentroak ez dituen erreprodukzio gailuak behar direnean.

3.2. Dokumentuak kopiatzea

3.2.1. Eskabideak

Dokumentuak kopiatzeko eskatuko da, aurrez aurre ematen den edo posta arruntez edo posta elektronikoz bidaltzen den idazkiaren bidez. Honako hauek kopiatzeko eskatzen ahalko da:

- Artxiboaren funts propioetako dokumentazioa.
- Artxiboko liburutegiko dokumentu bibliografikoak, motaren eta kontserbazio egoeraren arabera hainbat baliabideren bidez eta betiere egile eta jabetza intelektualaren eskubideak babesteko arloan indarra duen legediaren arabera.

Horrez gain, argitaratzeko edo merkaturatzeko kopiek artxibo zentro bakoitzeko arduradunaren alde aurreko baimena izan beharko dute.

3.2.2. Tasak

Dokumentuak eskuratzeko sarbide eskubidea izateak kopiak eta ziurtagiriak lortzea dakar, ezarritako tasak ordaindu eta gero, bat etorri legediarekin eta berariazko araudiarekin.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dokumentazioa sortzen duten unitateetako langileek, beren eginkizunak erabiliz kopiak eskatzen dituztenek, ez dute tasarik ordaindu beharko, otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearekin bat etorri, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoek buruzkoa. Horretarako, administrazio unitateetako arduradunek idatziz eskatu beharko dituzte kopiatu nahi dituzten dokumentuak.

3.2.3. Kopia ziurtatuak

Zentroetan gordetako agirien kopia ziurtatuak jaulkitzeko eskaera egiten ahal da. Ziurtagiri horiek Kultura eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak emanen ditu, eta ziurtatuko dute kopiak artxiboan gordetako jatorrizkoen kopia fidelak direla eta haien kokapena, legez ezarritako tasa ordaindu ondoren.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.2.4. Kopiatzeko sistemak

Artxibo zentro bakoitzeko arduradunak kopiatzeko sistemarik egokiena erabakitzen ahal du kasu bakoitzean, batez ere dokumentazioa narriatzeko arriskua badago.

Gaur egun, kopiatzeko honako sistema hauek daude zentroetan:

- Paperezko fotokopiak, A4 eta A3 tamainetakoak.
- Argazki digitala eskaner lauaren bidez, zenitala, arrabola, diapositiba eta negatiboena.
- Kopiak mikroformatako paperean: A4 tamaina.
- Kopiak euskarri elektronikoetako paperean (CD ROMa, DVDa...)

Eskatutako kopiak eskuz hartuko dira, dokumentazioa ez bada sarbide librekoa. Bestela, postaz bidaltzen ahalgo dira; eskatzaileak ordaindu beharko ditu bidalketa gastuak. Digitalizazioen kasuan, posta elektronikoz igortzen ahalgo dira, ezarritako muga teknikoekin bat etorritik.

Kopia jakin batzuk lortzeko zentroak ez badu kopiatzeko baliabide propiorik, orduan instalazio haietatik kanpo egingen dira kopiak; horretarako espezializatutako establezimendu batera jo beharko da. Irudi digitaleko kopien kasuan, bi kopia sortuko dira, bata eskatzailearendako eta bestea artxiborako; biak lortzeko zenbatekoak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

3.2.5. Kopiatzeko mugak

Kopiatzeko eskubidea mugatuta egonen da hurrengo egoeretan:

- Jatorrizko dokumentazioa kontserbazio egoera txarrean badago eta, horren ondorioz, kopiatzeko sistematik ondorioztatzen diren kalteak hartzen ahal baditu. Ahal den guztietan, kopiak erabiliz kopiatuko da.
- Kopia kopurua oso handia izateagatik kopiatzeko zerbitzua geldiarazten bada. Kasu horretan artxibo zentro bakoitzeko arduradunaren baimena beharko da, epe bat emanaz kopiak egiteko.
- Deskribapen tresnak (gidaliburuak, inbentarioak, katalogoak eta abar) badira, inprimatutakoak zein eskuz idatzitakoak, paperean edo euskarri informatikoan egingutakoak, artxibo zentro bakoitzeko arduradunaren berriazko baimenik gabe.
- Xedapen edo arau juridiko batek horrela ezartzen badu.

3.3. Jatorrizko dokumentazioaren mailegua

3.3.1. Foru Komunitateko Administrazioari dokumentuak maileguan ematea

Artxiboek jatorrizko dokumentuak mailegatzeko zerbitzua eskaintzen diete haiek sortzen dituzten unitateei, Foru Administrazioaren testuinguruan, baldin eta beren eginkizunak erabiliz eskatzen badute edo Justizia Auzitegiek eskatzen badute.

Dokumentazioa zaindu eta kontserbatzeaz arduratuko da dokumentazio hori eskatzen duena, eta behartuta egonen da kanpoko eta barneko antolamenduko ezaugarriei eustera, baita, hondatuz gero, zaharberritzeko gastuak ordaintzera ere.

a) Epeak

Mailegua hilabeterako eskatzen ahal da, eta beste hilabetez luzatzen ahal da. Maileguaren epea agortzen bada dokumentazioa itzuli gabe eta luzapena eskatu gabe, artxiboek dokumentazioa itzultzeko gogorazpen bat bidaliko dute.

Jakinarazpena egiten denetik bi hilabete epean dokumentaziorik itzultzen ez bada edo luzapenik eskatzen ez bada, ulertuko da dokumentuak Artxiboaren zaintzapean egoteari utzi diola eta hari buruzko informazioa dokumentuen erregistrotik ezabatuko da. Hori dela eta, transferentzia berria egin beharko da, Artxibora bidaltzeko.

Epe horiek ez dute ukituko Justizia Auzitegiek eskatuta lagatzen den dokumentazioa.

b) Ematea eta itzultzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Dokumentazioa eskura emanen zaio eskatzaileari. Dokumentazioaren bila hirugarren bat bidaltzen bada, eskatzaileak baimena (inprimatua edo posta elektronikoz) bidali beharko du Artxiboko Kontsulta Arloran, pertsona hori identifikatzeko.

Era berean, mailegua gutun-azal itxian itzuliko da.

3.3.2. Beste entitate batzuei dokumentazioa mailegatzeari

Artxiboan gordailuan dagoen jatorrizko dokumentazioa mailegatzeko haien titularrekin sinatzen diren hitzarmenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

3.4. Dokumentazioaren irteera baimenduak

Salbuespen gisa, dokumentuak artxibotik ateratzea baimentzen ahalko da hurrengo kasuetarako:

- Aldi baterako erakusteko.
- Modu berezian kopiatzeko.
- Dokumentua zaharberritzeko.

Dokumentazioa aldi baterako erakusketetarako lagatzea hitzarmenaren bidez itunduko da; horretan kontserbazio baldintzak, aseguru poliza, irteera eguna, itzultzeko epea eta abar adieraziko dira.

3.5. Dokumentuen kontserbazioa

3.5.1. Dokumentuak zaharberritzea

- Funts propioak Jatorrizko dokumentu bat kontsultatu nahi bada eta dokumentuaren kontserbazio egoera dela-eta ezin bada eman, eskatzaileek aldeztatik dokumentua zaharberritzeko eskatzen ahal dute. Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak eskaera onartzen ahalko du, Zaharberritze Planean ezarritako irizpideei erreparatuz.
- Kanpoko dokumentuak Entitate publikoek zein pribatuek Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko Zuzendaritzari eskaera egiten ahal diote balio eta ezaugarri bereziko haien dokumentu piezak ebaluatzeko eta, hala badagokio, zaharberritzeko eta finkatzeko, euskarriari zein edukiari dagokionez. Zerbitzuko zuzendaritzak, kasuan kasuko balorazioa egin ondoren, zaharberritze tailerrean zerbitzu horiek egitea onartzen ahalko du.

3.5.2. Aholkularitza

Nafarroako Dokumentu Ondareko dokumentuen titularrak diren entitate publikoek edo pribatuek eta pertsonak hurrengo aldeei buruzko informazioa eskatzen ahalko dute:

- Gordailuek izan behar dituzten kontserbazio baldintzak, dokumentuen kontserbazioa bermatzeko.
- Dokumentuen gordailuak ukitzen dituzten larrialdi egoeretako edo hondamendietako jarduketa neurriak.

3.6. Prestakuntza jarduerak

Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak honako prestakuntza jarduerak eskaintzen ditu:

- Jardunaldi eta mintegi profesionalak antolatzea.
- Foru Administrazioako edo beste erakunde batzuetako administrazio unitateen ikastaroak egitea, orokorrak edo eskaeraren araberrakoak.
- Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko erabiltzaileendako ikastaroak egitea, funts historikoak kontsultatzea errazte aldera: araudia, funtsen egitura, liburutegi espezializatua eta hemeroteka, paleografia, diplomatika, etab.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

d) Nafarroako Artxibozainen Elkartearekin lankidetzan, artxibogintzari buruzko pres-takuntza ikastaroak antolatu eta emateko.

3.7. Kultura zabalkundea

3.7.1. Berritasun bibliografikoak

Aldian-aldian berritasunen aldizkaria argitaratzen da, funts bibliografikoei gehitzen zaiz-kien produktu berrien zerrenda agertzen duena, baita Nafarroako Errege Artxibo Nagusi-ko Liburutegian jasotzen diren aldizkarien aurkibideen aldizkaria ere.

3.7.2. Artxiboen buletinak

Nafarroako Artxibo Garaikideak aldian-aldian informazio buletin bat argitaratzen du in-formazioa eta berrikuntzak jasoz, besteak beste, artxiboaren historia, eginkizunak, ins-talazioak, eskainitako zerbitzuak, dokumentuen funtsak, egindako lanaren estatistikak, hedapen jarduerak edo jasotako dohaintzak aipatuz.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak urtero informazio buletin bat argitaratzen du eta ber-tan aurreko urtean egindako jarduerak eta lanak biltzen dira.

3.7.3. Gaikako erakusketak

Tarteka, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak gure iraganeko hainbat alder-diri buruzko gaikako erakusketak antolatzen ditu. Erakusketak sarrera librekoak dira, or-dutegi zabala izaten dute eta kasu gehienetan material didaktiko lagungarria eskaintzen dute. Ibiltaritza eskaintza ere aurreikusten da, lurralde mailako potentziala ikusita.

3.7.4. Bisita gidatuak

Aldez aurretik eskatuta, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak artxiboen egoitzak bisitatzeko aukera ematen die talde txikiei (ikastetxeak, kultura taldeak, elkarteak eta abar), artxiboko teknikariek edo ondorio horretarako hautatzen diren langileekin batera.

Halaber, Zerbitzuak bisita gidatuak ere eskaintzen ditu Foru Administrazioako edo beste erakunde batzuetako langileei emandako prestakuntza ikastaroetan parte hartzen dute-nendako.

3.7.5. Argitalpenak

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzutik argitalpenak sustatzen dira, berak kudeatzen dituen dokumentu funtsei lotuta daudenak: gidaliburuak, erakusketetako ka-talogoak, jardunaldi teknikoei buruzko txostenak edo aktak.

Argitalpen horiek Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsaren (Navas de Tolosa, 21, Iru-ña) bidez zein erakusketetan eskuratzen ahal dira.

3.7.6. Nafarroako Artxiboen Ataria

Artxiboko funtsetako dokumentuei lotutako fitxa eta irudi digitalizatuak Ireki Artxiboan argitaratzea sustatzen du Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak.

3.7.7. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak, Liburutegi eta Artxiboen zerbitzuekin batera, [Nafarroako Kulturaren Atari Digitalean](#) hartzen du parte, eta atari horretatik ere Irekia Artxiboaren edukietara sarbidea ematen du.

3.7.8. [Culturavarra.es](#)

Webgunearen eta [buletinaren](#) bidez, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak jardueri buruzko albisteak argitaratzen ditu. Argitalpenak albiste eta prentsa oharren bidez hedatzen dira.

3.7.9. Sare sozialak

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak gai historikoei buruzko hitzaldiak antolatzen ditu tar-teka, eta artxibo horretako funtsetan oinarritutako ikerkuntzen argitalpenen aurkezpenak ere hartzen ditu.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.7.10. Kultura jarduerak

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak gai historikoei buruzko hitzaldiak antolatzen ditu tar- teka, eta artxibo horretako funtsetan oinarritutako ikerkuntzen argitalpenen aurkezpenak ere hartzen ditu.

3.7.11. Web tematikoak

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak programa zehatzak are gehiago he- datzeko berriazko webguneak sustatzen ditu. [Lizarrako Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko Asterako](#) bat argitaratu du, urteroko zita horren antolaketaz arduratzen baita. Bestalde, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak berriazko bi webgune dauzka [Fototeka](#) eta de [Nafa- rroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiborako](#).

[Nafarroako Artxibo Garaikideak](#) berriazko webguneak bultzatzen ditu artxiboan jasotako dohaintza eta gordailuekin lotutako programa zehatzak hedatzeko.

3.8. Liburutegi espezializatua

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak liburutegi bat du, Nafarroako Artxiboko Liburutegia, alegia, eta horren mende bi zentro daude: alde batetik, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia, ikerketari laguntzen diona eta Artxibogintza, Nafarroako Historia, Genea- logia eta Heraldika arloetan espezializatuta, eta, beste aldetik, Nafarroako Artxibo Garai- kidea, artxiboaren beraren antolaketa eginkizunei laguntzen diona eta teknikarien eten- gabeko prestakuntza errazten duena; hori dela eta, Artxibogintza eta Zuzenbide arloetan espezializatuta dago.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko liburutegiak, gainera, hemerotekako bilduma za- bala du (prentsa eta aldizkako argitalpenak), baita funts zahar nabarmen bat ere; bertan bilduta dauden argitalpenen edizio data 1500. urtera iristen da. Prentsa historikoaren tituluak, hau da, XIX. mende amaieran argitaratutako egunkariak, dagoeneko argitaratzen ez direnak, kontsultatze eskura daude Kultura Ministerioaren webgunearen bitartez, eta [Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala](#) izeneko proiektuaren parte dira. Bestalde, funts zaharra osatzen duten liburuak [Ondare Bibliografiko Espainiarren Katalogo Kolektiboan](#) integratuta ageri dira.

Tituluen bilaketa errazteko, liburutegiak on line sartzeko katalogo publikoa (OPAC) du, bi zentroetako irakurketa geletan kokatuta dauden ordenagailuetatik ez ezik, Interneterako sarbidea duen edozein ordenagailutatik kontsultatzen ahal dena, [Nafarroako Gobernu- ren](#) ataritik izan ere, Nafarroako Liburutegi Publikoen katalogo kolektiboaren parte da.

Aurrez aurreko kontsultarako liburutegiak dira; ez daukate etxera maileguan eramateko zerbitzurik. Gelan bilduma osoa kontsultatzen ahalko da: zentroan dauden dokumentuak berehala kontsultatzen ahalko dituzte erabiltzaileek; beste zentroan daudenak kontsultat- zeko, aldiz, itxaron egin beharko da, ondare bibliografikoaren (aspaldiko liburua eta histori- koa) edo hemerotekaren (egunkariak eta aldizkako argitalpenak) zati ez badira.

Zerbitzu horiez gain, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko liburutegiak honako hauek eskaintzen ditu:

- Erosketaren zein dohaintzaren bidez lortzen diren produktu berrien zabalkundea, pro- duktu berrien eta aldizkarien aurkibideen hileko aldizkarien bidez.
- Erabiltzaileen prestakuntza pertsonalizatua eta eskaeraren araberakoa, zerbitzuaren funtzionamenduari, katalogoa bilatzeko sistemari eta liburuak ez diren materialen erabilerari buruzkoa, kontsulta egiteko.

3.9. Zerbitzu osagarriak

Armairuak eta arropazaindegia. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak 82 armairu eta arro- pazaindegirako bulegoa ditu eta kontsulta gelan edo liburutegian sartu ezin diren objektu eta jantzi guztiak horietan gorde beharko dira. Horrez gain, Nafarroako Artxibo Garaiki- deak 9 armairu ditu.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.10. Administrazio zerbitzuak

3.10.1. Informazio orokorra

Erabiltzaileek informazioa eskuratzen ahalko dute aurrez aurre (harreran), postaz, telefonoz edo Interneten bidez (posta elektronikoa edo webgunea), artxiboek ematen dituzten zerbitzuen oinarritzko datuei buruz, hala nola: egunak eta ordutegiak, funtsak, tasak, artxibora sartzeko baldintzak eta abar.

3.10.2. Egiatagiriak

Erabiltzaileek artxibora joan izanari eta kontsultatu diren materialei buruzko egiatagiriak eskatzen ahalko dituzte. Halaber, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak antolatutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu izanaren ziurtagiriak emanen dira.

3.11. Dokumentuen sarrerak

Artxibo zentroetan dokumentazioa sartzeko modu ohikoa dokumentuen transferentzia da, dela Nafarroako Artxibo Garaikidera Foru Administrazioaren bulegoetatik, dela Nafarroako Errege Artxibo Nagusira Artxibo Garaikidetik eta bestelako artxibo sistema batzuetan, artxibo horrek artxibo historikoaren funtzioa bete dezan. Horrez gain, bi zentroetan titulartasun pribatuko dokumentuak sartzeko ezohiko moduak ere badaude, erosiz, dohaintzan hartuz, herentziaz edo legatuz, desjabetuz, gordailuan utziz, berriz itzuliz, komo-datu bidez, eta beste era batera iritsitakoak.

3.11.1. Dokumentuen transferentziak

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio unitateek beren dokumentazioa transferitu beharko dute Nafarroako Artxibo Garaikidera, administrazio tramiteak amaitu ondoren eta, gutxienez, bi urteko gutxieneko antzinatasuna badu, bat etorri Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak ezarritako epeekin.

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko Zuzendaritzak ebatziko du Foru Administrazioiko bulegoek transferituko duten dokumentazioaren helburua, Nafarroako lehen gobernu autonomikoa eratu aurretik (1984) sortu zena, kasuan kasuko agirien ezaugarrien arabera.

Nafarroako Artxibo Garaikideak aholkularitza eskainiko du transferitzeko prozesu osoan.

3.11.2. Dokumentuen ezohiko sarrerak

Ezohiko sarrerei dagokienez, artxiboek dokumentazioaren titularrak diren entitateei edo pertsoneri aholkularitza emanen diete aplikatzen ahal diren prozedurei buruz, baita aplikatzen ahal diren antolaketa eta lekualdaketa dagokienez ere.

Artxiboek dokumentuen sarrerak tramitatuko dituzte zuzenbidean baliozkoa den eta pertsonak edo entitate pribatuak egiten duten edozein tituluren bidez.

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak funts pribatuak erakartzeko kanpainak sustatuko ditu, eta jarrera aktiboa izanen du dohaintza emaile partikularren ezohiko sarrerak lortzeko, pertsonak zein entitateak izan, Nafarroako dokumentu ondarea zaintzeko eta gordetzeko interesgarritzat jotzen badira.

3.12. Artxibo digitala

Nafarroako Artxibo Garaikideak departamentuarterako lantalde batean hartzen du parte, Foru Administrazioaren kudeaketa elektronikoen barruan artxibo digitala ezartzea bultzatzeko. Unitateetan izapidetutako agiriak eta dokumentuak artxibo digitalean sartuko dira izapidetzen bukatu ondoren, eta kontsultatzeko eskuragarri egonen dira, unitate ekoizleek zein gizarteak orokorrean kontsultatzen ahalko ditu, kasu bakoitzean sarbiderako murrizketa legalekin bat etorritik.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.13 Hezkuntza eta prestakuntza jarduerak

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak hezkuntza eta prestakuntza jarduerak egitea sustatuko du unibertitate eta bestelako hezkuntza zentroekin hitzarmenak edo akordioak lortuz, eta lankidetzaz zuzena izanen du material pedagogikoak eta artxibogintzako materialak hautatu eta prestatzen, antolatutako hezkuntza jarduera garatzeko.

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZEREGINAK	KONPROMISOAK	ADIERAZLEAK
1. Kontsultak	<p>-Banakako eta berehalako arreta erabiltzaileei (bederatzigarren atalean adierazitako ordutegian), aurrez aurreko informazio eskaerarako, honi dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Funtsen edukia eta egitura > Bilaketa espezializatuei buruzko aholkularitza > Dokumentazioa eskuratzeko mugak. > Aplikazio informatikoen eta mikroformen ikustailen erabilera <p>-Bitarteko beretik jasotako informazio eskaerei idatziz erantzutea 5 egun balioduneko epean, honako hauei buruzkoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Bilaketa espezializatuei buruzko aholkularitza > Dokumentazioa eskuratzeko mugak. <p>-Dokumentazioa eskuratzeko baimena:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Sartzeko mugak izan ditzaketen dokumentuen eskaerei erantzutea, 5 egun balioduneko epean, gehienez ere. <p>-Dokumentazioa aurrez aurre kontsultatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Kontsulta gelan eskatzen diren dokumentuak ematea, 15 minutuko batez besteko denboran. 20 minutuko itxaronaldia ez da inola ere ez gaindituko. <p>-Dokumentuen erreserba</p> <ul style="list-style-type: none"> > 10 instalazio unitate erreserbatzea, gehienez, erabiltzaile bakoitzeko, 2 asteko epean, gehienez ere. 	<p>Epearen barnean erantzun diren kontsulten kopurua eta guztien gaineko ehunekoa</p> <p>Gogobetetasun inkestetan 10 puntutik 8 baino gehiagorekin baloratzea</p>
2. Erreproduktzioa	<p>-Eskatzen diren FOTOKOPIAK prestatzea hurrengo epean barnean:</p> <p>* A4 edo A3 tamainako kopiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> > 20 kopia baino gutxiago: egun baliodun bat > 20 eta 100 kopia bitartean: 3 egun balioduneko epean, gehienez ere > 100 kopia baino gehiago: 5 egun balioduneko epean, gehienez ere <p>-Eskatzen diren KOPIA DIGITALAK prestatzea hurrengo epean barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> > 20 irudi baino gutxiago: 5 egun balioduneko epean, gehienez ere > 20 eta 100 irudi bitartean: 10 egun balioduneko epean, gehienez ere > 101 eta 200 irudi bitartean: 15 egun balioduneko epean, gehienez ere > 200 irudi baino gehiago: bi hilabete, gehienez ere. 	<p>Epearen barnean egin diren kopien kopurua eta guztien gaineko portzentajea</p> <p>Gogobetetasun inkestetako balorazioa (10 puntutik 8 baino gehiago)</p>

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

TAREAS	COMPROMISOS	INDICADORES
3. Maile- guak	-Maileguan eskatzen diren jatorrizko dokumentuak prestatzea, 3 egun balioduneko epean, gehienez ere	Epearen barnean erantzun diren maileguen kopurua eta guztien gaineko portzentajea. Gogobetetasun inkestetan 10 puntutik 8 baino gehiagorekin baloratzea.
4. Kontserba- zioa	-Larrialdi egoeretan edo hondamendietan entitateei berehalako aholkularitza ematea -Artxiboetan mantendu behar diren ingurumen baldintzen gaineko kontsultei buruzko aholkularitza, 2 egun balioduneko epean, gehienez ere -Urteko zaharberrikuntza planetan dokumentuak sartzeko eskaerari erantzutea, 5 egun balioduneko epean	Epearen barnean erantzun diren eskaeren kopurua eta guztien gaineko portzentajea.
5. Zabalkun- dea	-Bisita gidatuak <ul style="list-style-type: none"> › Bisita gidatuen eskaerei erantzutea, 2 egun balioduneko epean, gehienez ere -Aldizkaria <ul style="list-style-type: none"> › Berritasun bibliografikoen eta aldizkarien aurkibideen aldizkaria egitea, bi hilean behin, gutxienez. -Nafarroako Artxibo Garaikidearen informazio buletina. <ul style="list-style-type: none"> › Urtero buletin bat egitea -Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko informazio buletina <ul style="list-style-type: none"> › Urtero buletin bat egitea -Erakusketak <ul style="list-style-type: none"> › Urtero aldi baterako erakusketa bat gutxienez egitea, artxibo zentroekin lotutakoa -Hitzaldiak <ul style="list-style-type: none"> › Urtero gutxienez hiru hitzaldi egitea 	Epearen barnean erantzun diren eskaeren kopurua eta guztien gaineko portzentajea. Epe barruan argitaratutako buletin kopurua. Gogobetetasun inkestetan 10 puntutik 8 baino gehiagorekin baloratzea. Egindako aldi baterako erakusketa kopurua. Egindako hitzaldi kopurua.
6. Liburutegia	-Eskatzen diren elementuak ematea hurrengo epean barnean, gehienez ere: <ul style="list-style-type: none"> › Hamar minutu, eskatzen diren zentroan badaude › Bi egun baliodun, beste zentroan badaude 	Epearen barnean erantzun diren kontsulten kopurua eta guztien gaineko portzentajea. Gogobetetasun inkestetan 10 puntutik 8 baino gehiagorekin baloratzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

<p>7. Doku- mentuen sarrerak</p>	<p>-Ohiko sarrerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Transferentziak prestatzeari buruzko berehalako aholkularitza <p>-Ezohiko sarrerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Dokumentuak sartzeko aukerei eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedurari buruzko aholkularitza, 5 egun balioduneko epean 	<p>Epearen barnean erantzun diren eskaeren kopurua eta guztien gaineko portzentajea.</p>
<p>8. Administra- zio zerbit- zuak</p>	<p>-Harrera:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Mahaia esleitzea, 10 minutuko epean, gehienez ere › Bertaratze ziurtagiriak eta kontsultatu diren funtsei buruzkoak ematea, 5 egun balioduneko epean <p>-Informazio orokorra:</p> <p>Berehalako informazio pertsonalizatua ematea honako alde hauei buruz:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Artxihoak eskaintzen dituen zerbitzuak › Jendea hartzeko ordutegia › Artxibora sartzeko tasak eta baldintza orokorrak <p>-Egiaztagiriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Dokumentuen kopia ziurtatuak, 3 egun balioduneko epean, gehienez ere 	<p>Epearen barnean erantzun diren eskaeren kopurua eta guztien gaineko portzentajea.</p> <p>Gogobetetasun inkestetan 10 puntutik 8 baino gehiagorekin baloratzea.</p>
<p>9. Erabiltzai- leentzako arreta</p>	<p>-Idatziz egin diren kexei erantzutea, 15 egun balioduneko epean, gehienez ere</p> <p>-Erabiltzaileen artean zerbitzuak emateko baldintzei buruzko gogobetetasun inkestak egitea urtean behin, gutxienez</p>	<p>Epearen barnean erantzun diren kexen kopurua eta guztien gaineko portzentajea.</p> <p>Urtean egin diren inkestetako kopurua.</p>
<p>10. Hezkuntza eta pres- takuntza</p>	<p>-Hezkuntza eta/edo prestakuntzako 5 jarduera egitea urtean, gutxienez</p>	<p>Epe barruan egindako jarduera kopurua.</p>

4. Zerbitzu kartaren jarraipena eta kontrola

Bai Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, bai Nafarroako Artxibo Garaikideak beren zentroetan zerbitzu karta honetan hartzen diren konpromisoak gauzatzeko behar diren neurriak hartzeko ardura dute, baita adierazle eboluzioa urtero jarraitzeko eta kontrolatzeko ardura ere.

5. Araudia eta xedapen orokorrak

- › 12/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Artxibo eta Dokumentuei buruzkoa.
- › 14/2005 Foru Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako Kultura Ondareari buruzkoa.
- › 1/2019 Foru Legea, urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Eskubide Kulturei buruzkoa.
- › 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- 2/2021 Foru Legea, otsailaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa.
- 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa
- Nafarroako Foru Aldundiaren 1948ko otsailaren 27ko Akordioa, Nafarroako artxiboko dokumentu funtsak irakurri eta aztertzeo zerbitzurako araua ezarri zuena. Ondoren, 25/1983 Foru Dekretuak aldatu zuen, apirilaren 21ekoa, beste administrazio batzuetakoekin harmonizatzeo.
- 75/2006 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen osaera, antolamendua eta funtzionamendua arautzeo Erregelamendua onesten duena.
- 72/2005 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzu kartak arautzen dituen.
- 273/2019 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organiko.
- 62/2002 Foru Agindua, Nafarroako Artxibo Nagusiko kopiagintza zerbitzurako baimena arautuko duten jarraibideak onesten dituen.
- 118/2003 Foru Agindua, martxoaren 7koa, Hezkuntza eta Kulturako kontseilariarena, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen tarifak ezartzen dituen.
- 119/2005 Foru Agindua, urriaren 11koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzu kartak diseinatu eta egituratzea arautu zuena.
- 373/2013 Ebazpena, abenduaren 9koa, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko dokumentuetara sarbidea izan eta horiek kopiatu eta kontsultatzeko barne arauak onartu zituen.

6. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

-Eskubideak

Zerbitzu karta honen lehen atalean (balioak) jasotako eskubide eta printzipio legal eta demokratikoekin bat etorri, Nafarroako Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko erabiltzaileek eskubide hauek izanen dituzte:

- Bi zentroetako kontsulta eta irakurketa geletara askatasunez eta doan sartzea, ezarri diren ordutegian eta egunetan, baimena eskuratu ondoren.
- Lana normaltasunez garatzeko behar diren segurtasun, higiene eta erosotasun baldintzak izatea.
- Tratu atsegina eta egokia jasotzea.
- Bi artxiboei eta haien funtsei buruzko informazioa eta orientabidea jasotzea.
- Dokumentuak eta haien kopiak eskuratzeko.
- Dokumentuen ziurtagiriak eskatzea.
- Kexa eta erreklamazioetarako postontzia eta inprimakiak izatea.

-Betebeharrak

Horrez gain, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko erabiltzaile guztiek honako betebeharrak hauek dituzte:

- Indarra duen araudia eta artxibo bakoitzeko barneko arauak errespetatzea, haien zerbitzuak eskuratzeko.
- Artxiboko dokumentazioa zuzen eta modu arduratsuan erabiltzea, zabarkeriaz jokatzeko gatazka hura hondatu, galdu edo nahastea eragozteko.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- c) Artxiboetako instalazioak eta altzariak zuzen eta arduraz erabiltzea.
- d) Ezarri diren tasak ordaintzea, hala eskatzen duten zerbitzuak eskuratzeko.
- e) Artxiboetako langileei tratu zuzena eta atsegina ematea.

7. Zerbitzuak hobetzen laguntzea eta parte hartzea

Erabiltzaileek zerbitzua hobetzen laguntzen ahalko dute, honela:

- a) Kexak eta iradokizunak egitea zerbitzu karta honetan aurreikusitako sistemaren arabera.
- b) Aldian-aldian egiten diren gogobetetasun inkestak betetzea.

8. Iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko sistema

Erabiltzaileek zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko iradokizunak edo erreklamazioak aurkezteko ahalko dituzte edozein zentrotan, honela:

-Zerbitzua hobetzeko moduei buruzko iradokizunak.

Idatziz eginen dira betiere, eta pertsonalki zein fax, posta elektronikoa edo bide telematikoa bidez aurkezteko ahalko dira. Horretarako Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak prestatutako iradokizunen eta erreklamazioen orria erabiltzen ahalko da, bi artxibo zentroetan hiritarren esku jarritakoa.

Iradokizunak sinatu gabeak izaten ahalko dira.

Zuzenean ematen ahalko zaizkie harrera gelako langileei eta gelako langile arduraduneri, edo bi zentroetan instalatuta dauden iradokizunetarako postontzietan sartzen ahalko dira. Artxiboa mendean duen ataleko titularrari zuzenduko zaizkio eta horrek Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko Zuzendaritzara bidaliko ditu, proposamena baloratzeke txostenarekin batera, hori baita iradoki den hobekuntza aplikatzea komeni den ala ez erabakitzeke arduradunena.

-Erabiltzailearen ustez, bere eskubideak urratzen dituen zerbitzuaren edozein alderi buruzko erreklamazioak.

Erreklamazioak idatziz aurkeztuko ditu bi zentroetako edozeinetan eta, onartu ez ezik, idatziz erantzun ere egin beharko zaie.

Iradokizun eta erreklamazioen orrien inprimakiak etengabe egonen dira publikoaren esku bi zentroetako leku argi eta irisgarrietan. Zuzenean harrerako langileei edo gelako langileei ematen ahal zaie, edo zentroetan iradokizunak jasotzeko instalatutako postontzietan uzten ahal dira.

Erreklamazioak tramitatzeaz arduratuko diren langile teknikoek dagokion txostena igorriko diote artxiboaren arduradun ataleko titularrari, erreklamazioaren bideragarritasunaren gainean. Aurkeztu eta gehienez ere hamabost eguneko epean jakinaraziko zaio erantzuna interesdunari. Epe hori igarotzea eteten ahalko da baldin eta interesdunari eskatu behar bazaio behar diren argibideak aurkez ditzan, hamar egun baliorduneko epean, kexa behar bezala tramitatzeke.

9. Jendea hartzeko helbideak eta ordutegiak

-Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

Maiatzaren biaren kalea, zk.g.

31001 Iruña (Nafarroa).

Telefono zenbakia: 848-424667 (harrera) / 848-424623 (administrazioa)

Helbide elektronikoa: archivogeneral@navarra.es

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Jendea hartzeko ordutegia.

(Nafarroako Foru Komunitaterako ezarritako jaiegunak izan ezik).

› Kontsulta gela:

- Irailetik ekainera:

Astelehenak eta ostiralak 09:00-15:00.

Astearteak, asteazkenak eta ostegunak 09:00-17:00.

- Uztaila eta abuztua:

Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00 arte.

› Liburutegia:

Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00 arte.

› Bulegoak:

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

› Erakusketa aretoa:

Egunero 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (asteburuak eta jaiegunak barne).

-Nafarroako Artxibo Garaikidea.

Zaragozako errepidea, 3. km.

31191 Cordovilla (Nafarroa).

Telefonoa: 848-429721

Helbide elektronikoa: archivo.contemporaneo@navarra.es

Jendea hartzeko ordutegia:

(Nafarroako Foru Komunitaterako ezarritako jaiegunak izan ezika).

› Kontsulta gela eta liburutegia:

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

› Bulegoak:

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

10. Zerbitzu kartaren ardura duen unitatea

-Artxiboaren eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua

Maiatzaren biaren kalea, zk.g. Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

31001 Iruña (Nafarroa).

Telefono zenbakia: 848-424609

Posta elektronikoa: servicio.archivos@navarra.es



ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

IV. NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLI- KOEN SISTEMA

1. Identifikazioa
2. Misioa, eskumena eta balioak
3. Eskaintzen dituen zerbitzuak
4. Konpromisoak eta betetze adierazleak
5. Zerbitzu kartaren kudeaketa
6. Lege esparrua
7. Erabiltzaileen eskubideak
8. Erabiltzaileen erantzukizunak
9. Zerbitzuak hobetzen laguntzea eta parte hartzea
10. Jendea hartzeko helbideak eta ordutegiak

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

1. Identifikazioa

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko antolaketa egitura bat da Liburutegi Zerbitzua, Kultura eta Kirol Departamentuaren barnekoa, eta haren egitekoa Nafarroako Liburutegi Publikoen sistema zuzentzea, antolatzea eta kudeatzea da.

Informaziora sarbidea izateko, ezagutzarako, irakurketarako, kulturaz gozatzeko hiritarrek duten eskubidea bermatzea misiotzat duten organo eta zentroek osatutako multzoa da Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema, hiritarren bizitokia edozein dela, ondare bibliografikoa babestu, zaindu eta hedatzea sustatuz.

Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeak adierazitakoaren arabera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema osatzen dute Nafarroako Liburutegiak eta Liburutegi Publikoen Sareak.

Nafarroako Liburutegiak gidatzen du Liburutegi Sistema, eta hiritar guztientzat liburutegi zerbitzuen erreferentea da. Berariaz, Nafarroako ondare filmografikoa, ikus-entzunezkoa eta digitala bildu, babestu eta ezagutarazteko betebeharra du. Horrez gain, Nafarroako bibliografiaren antolaketaz eta lege gordailua kudeatzeaz arduratzen da.

Ondare bibliografikoaren ikuspuntutik, Nafarroako Ondare Bibliografikoaren katalogo kolektiboa prestatzea eta hedatzea koordinatzen du eta interes kultureko ondasun aitortzeko espedienteak egiten ditu.

Nafarroan intereseko obrak eta dokumentuak hautatu eta digitalizatzea bere arduradun da, Nafarroako Liburutegi Digitalaren prestaketa eta hedapena bultzatu eta koordinatzea, lankidetzan aritzea, haren dokumentuak Kulturaren Atari Digitalean sartzea, eta Espainiako eta Europako proiektuetan (Hispana, Europeana...) parte hartzea.

Nafarroako artxibo filmografikoa kudeatzeko arduradun gisa, Nafarroarekin edo Nafarroako pertsonekin zerikusia duten zinema funts guztiak berreskuratzeaz, zaintzeaz, zaharberitzeaz, dokumentatzeaz, katalogatzeaz eta digitalizatzeaz arduratzen da.

Liburutegi Publikoen Sarea 92 zentrok osatzen dute, 83 udalerritan kokatuta daudenak, eta hiritarrendik gertuen dauden kultura zerbitzuak dira; integrazio eta elkarrekintzarako espazio sozialak dira, eta, zehatzago esanda, egiten duten lanarekin lurralde mailako kohesioan laguntzen dute luzapen zerbitzuen eta liburutegi mugikorren bitartez.

Liburutegi publikoen kudeaketa modu bateratuan egiten da, foru eta tokiko administrazioen arteko lankidetzan, koordinazio eta erantzukidetasunetik, bakoitzaren konpromisoak eta erantzukizunak zehazten dituen hitzarmenen bitartez.

Zerbitzu karta honek adierazten eta jasotzen du Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak herritarrekin duen konpromisoa. Gure gizartean liburutegi publikoek duten garrantziaz jakitun, erabiltzaileekiko konpromiso esplizitua ezarri nahi dugu, jakin dezaten liburutegietatik zein zerbitzu eskaintzen diren, nola eskaintzen diren eta etengabe hobetzeko tresnak ezagut ditzaten.

2. Misioa, eskumena eta balioak

2.1. Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuaren 22. artikuluan jaso zenez, Liburutegi Zerbitzuak eginkizun hauek betetzen ditu:

- a) Kultura, informazio, prestakuntza eta ezagutzaren irispidea demokratizatzea, Nafarroako Liburutegien Sistemaren bitartez.
- b) Nafarroako lurralde errealtatera egokitzen den liburutegi eredia diseinatu eta bultzatzea, zentrozen sarea errealtate ezberdinak egituratu eta kohesionatzeko ardatza izan dadin.
- c) Nafarroako Liburutegien Sistema antolatu, egituratu eta kohesionatzea, zentro, baliabide eta zerbitzuen antolakundea den aldetik, komunitateari gizarteratu, kulturizatu eta herritartzeko espazioak eskaintzeko.
- d) Foru Administrazioak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemari ematen dizkion baliabideak efizientziaz kudeatu eta koordinatzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- e) Herritar guztiei, edozein izanik ere bere egoera, jatorria, adina, kultura maila edo diru sarrerak, baliabideak eta zerbitzuak eskaintzeko politika planifikatu, ahalbidetu, eba-luatu eta neurtzea.
- f) Irakurketa Maparen eta Zerbitzu Kartaren jarraibideak berrikusi, eguneratu eta apli-katzea Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren integratutako liburutegietan, eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren erregelamenduak erredaktatzea.
- g) Nafarroako ondare bibliografikoa, filmografikoa eta ikus-entzunezkoa babestu, kont-serbatu, antolatu eta hedatzea.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatu eta zabaltzea Na-farroako Liburutegi Publikoen Sistemaren.
- i) Liburutegietako langileen etengabeko prestakuntza sustatzea.
- j) Liburutegi publikoak kudeatzeko toki entitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak eguneratu, kudeatu eta garatzea, udalerrri bakoitzean liburutegien kudeaketa integra-tua izateko.
- k) Liburutegien beste sistema batzuekin eta irakurketa eta informazioaren teknologia berriak sustatzeko erakundeekin elkarlanean aritzeko prozedurak ezarri eta garatzea, bai Foru Komunitatean bai Foru Komunitatetik kanpo.
- l) Liburutegi Publikoen Sistema Nafarroako Liburutegien Sistemarekin elkarlanean arit-zeko prozedurak ezarri eta garatzea.
- m) Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren egitura osatzen duten gainerako zerbitzuekin egiten diren koordinazio bileretan parte hartzea, ekintza bate-ratuak martxan jartzea finkatzeko.
- n) Liburutegi Zerbitzuko jardueren urteroko memoria erredaktatzea.
- ñ) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak, edo bere helburuak egoki betetzeko agintzen zaizkion guztiak.

2.2. Liburutegi Zerbitzuaren jardunak, aurreko atalean azaldutakoak, bere gain hartzen ditu liburutegi publiko ororen kasuan UNESCOk funtsezkotzat jotzen dituen eginkizunak:

- a. Irakurtzeko ohiturak sortu eta finkatzea haurren artean hasierako urteetatik.
- b. Hezkuntzan laguntzea, banakakoa zein autodidakta, baita hezkuntza formalaren mai-la guztietan ere.
- c. Norberaren garapen sortzailerako aukerak ematea.
- d. Irudimena eta sorkuntza haurtzaroan eta nerabezeroan sustatzea.
- e. Kultura ondarea ezagutzea eta arteak, lorpen eta berrikuntza zientifikoak ezagutzea sustatzea.
- f. Arte adierazpen guztietako kultura adierazpideetara sarbidea izatea erraztea.
- g. Kultura arteko solasaldia sustatzea eta kultura aniztasuna erraztea.
- h. Ahozko tradizioari babesa ematea

Eta balio hauek hartzen ditu inspirazio gisa:

- a. Informazioa eta ezagutzara sarbide unibertsala izatea, formatu inprimatuan zein bes-telako formatuetan, material anitzak eta instalazio egokiak eskainiz.
- b. Hezkuntza babestea eta alfabetatzea sustatzea, hezkuntza eta ezagutzaren funtsezko elementua baita. Liburutegiak bizitza osoan zehar ikasteko espazioak dira, ezinbeste-ko tresna osatzen dute gaitasun digitalak eta informazio gaitasunak eskuratzeko eta eten digitala murrizten laguntzen dute.
- c. Iraganeko memoria zaintzea, komunitatearen eta pertsonen historiarekin lotutako materialak bilduz, zainduz eta sarbidea sortuz.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- d. Komunitateko talde guztien ezagutza beharrianei arreta jartzea, edozein adin edo sasoi fisiko, egoera ekonomiko edo sozial dutela ere, haur eta gazteei dagokienez erantzukizun berezia izanik.
- e. Ekarpena egitea komunitatearen aurrerapen kultural eta artistikoari, kultura identitate propioa sortu eta laguntzeari, tokiko eta eskualdeko elkarteekin kolaboratuz, kultura jardueretarako espazio bat eskainiz, kultura programak antolatuz eta kultura interesak funtsetan ordezkaturata egotea zainduz.
- f. Genero berdintasuna zerbitzuen prestazioan eta komunikazioan hizkuntza ez-sexista erabiltzea.
- g. Irigarritasuna espazioetara, baliabideetara eta zerbitzuetara, irigarritasun fisikoa zein kognitiboa.
- h. Zerbitzuak, baliabideak eta jarduerak Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta 2030 Agendako helburuekin lerrokatzea.

3. Zerbitzuak

Nafarroako liburutegi publiko guztietan sarbidea librea eta doakoa da.

Zentro guztietan zerbitzu hauek ematen dira:

3.1. Informazioa eta aholkularitza

3.1.1. Liburutegiari buruzko informazioa eta argibideak

Liburutegiek informazio orokorra ematen dute liburutegien antolaketa eta funtzionamenduari dagokienez, eta baliabideak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzko prestakuntza ematen dute.

3.1.2. Informazio bibliografikoa eta erreferentziak

Liburutegietako informazio, prestakuntza eta aisialdi estiloko baliabiderik garrantzitsuen dokumentu funtsek osatzen dute. Liburutegietako langileek modu pertsonalizatuan orientatzen eta bideratzen dituzte aurkezten zaizkien informazio eskaerak eta kontsultak.

3.1.3. Galdetu, liburutegiak erantzunen dizu

Internet bidezko informazio eskaerak eta kontsultak erantzuteko zerbitzu bat da, eta modu kooperatiboan kudeatzen da autonomia erkidegoetako liburutegien artean; txandaka, eskaera horiek jasotzeaz arduratzen dira, eta erantzun ahal bezain zehatzak eta egokiak ematen dituzte.

3.1.4. Informazio estatistikoa

Estatistika datuek Nafarroako liburutegi publikoen jardueri buruzko informazioa ematen dute, eta sistemako liburutegien gaur egungo egoera zein den jakiteko aukera ematen dute, hiritar guztiei zuzendutako zerbitzu publiko honen errealitatea gehiago ezagutzen laguntzeko helburuz.

3.2. Sarbidea dokumentura

3.2.1. On line katalogora sarbidea

<https://www.navarra.es/opac> (ordenagailuan ikustea)

<http://www.navarra.es/mopac/> (gailu mugikorrek)

Nafarroako Liburutegi Publikoen katalogo kolektibora Internet bidez on line sarbidea izateari esker dokumentu jakin bat daukaten sistemako liburutegiak erraz jakin eta aurki daitezke, dokumentua eskuragarri dagoen jakin daiteke eta maileguan hartuta dauden liburuak erreserbatu edo berriro daitezke eguneko 24 orduetan.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.2.2. Maileguak eta kontsultak gelan

Nafarroako liburutegi publikoen funtsak instalazioetan bertan kontsultatzen ahal dira. Liburutegiko bilduma da baliabiderik garrantzitsuena; horregatik, bilduma osatzerakoan, hiritarren iritziak eta iradokizunak kontuan hartzen dira, desiderata zerbitzuaren bidez.

3.2.3. Mailegu pertsonala

Liburuak, ikus-entzunezkoak, musika, aldizkariak eta komikiak maileguan hartzea, maileguan hartzeko arauekin bat etorritz.

Aldi berean 7 dokumentu izan daitezke maileguan, gehienez.

Liburutegi bakoitzean dokumentuak honela mailegatuko dira:

- › 3 liburu 21 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatu.
- › 2 aldizkari 7 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatu.
- › 4 bideo, CD-ROM, DD, CD, 7 egunerako.

Epea berrituz gero, liburuen mailegu-aldia luza daiteke, baldin eta beste erabiltzaile batek erreserbatu ez baditu eta epe-berritzea mailegua bukatu aurreko 5 egunean eskatzen bada. Liburuak edo aldizkariak birritan berritu daitezke, gehienez ere.

3.2.4. Mailegu kolektiboa

Materialak maileguan uztea erakundeei, elkarteei, ikastetxeei eta entitate sozial eta kulturei.

Erakunde bakoitzak Nafarroako Liburutegi Publikoetako 50 dokumentu har ditzake aldi berean maileguan, gehienez ere.

Erakunde interesdunak ofizialki pertsona bat egiaztatu beharko du arduradun moduan. Liburutegietan dokumentuak honela mailegatuko dira:

- › 50 liburu eta aldizkari 30 egunez. Behin luza daiteke epe bererako, itzultzeko epea bukatu baino lehenago eta beste erabiltzaile batek erreserbatu ez baditu bederen.
- › 10 bideo, CD-ROM, DVD edo CD, 15 egunerako.

3.2.5. Liburutegien arteko mailegua

Liburutegi Zerbitzura atxikitako liburutegi guztien artean materialak maileguan uztea eta itzultzea.

3.2.6. Erreserba Zerbitzua

Maileguan emandako aleak erreserbatzea. Aldi berean bi liburu eduki daitezke erreserbatu, norbaitek mailegatuta baditu.

3.2.7. Liburutegiko erabiltzaile txartela

Mailegatzeko, aski duzu Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko txartela edukitzea. Txartela doakoa, pertsonala eta besterenezina da, eta sareko liburutegi guztietarako baliagarria da. Txartela edozein liburutegitan eska daiteke, baita Internet bidez ere.

3.2.8. Fotokopiak eta inprimaketa

Liburutegi batzuek dokumentuen kopiak lortzeko aukera ematen dute, erabilera publikoko fotokopiagailuetan. Dokumentuak ordenagailuetatik ere inprimatzen ahal dira. Betiere indarrean dauden tarifa eta legediekin bat etorritz.

3.3. Zerbitzu digitalak

3.3.1. Sarbidea Internetera

Liburutegi publikoek Interneten sartzeko aukera ematen dute, doan eta modu librean, informazioarekin, ezagutzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako gaiak bilatzeko.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

Modu automatizatuan kudeatzen da, berriazko aplikazio baten bitartez (MyPC) erabilera arauekin bat etorritik.

Sarbidea zenbait eduki iragazkiren mende dago.

3.3.2. Wifi konexio sarea

Hari gabeko sarera sarbidea izateko zerbitzua; hala, gailu eramangarri zein ordenagailuetatik sarera konektatzen ahal gara.

3.3.3. Liburutegi digitala

Mailegurako plataforma digitalak

[e-Biblio](#): liburuak

e-Film: telesailak eta filmak

[Info-Magazine](#): egunkariak eta aldizkariak

Plataforma digitalen bitartez, herritarrek milaka liburu, film eta aldizkari lortzen eta euskarri digitalean erabiltzen ahal dituzte.

Dokumentu fisiko eta digital guztiak modu bateratuan kontsultatu eta aurkitzen ahal dira ABARKA metabilatzailearen bidez: [ABARKA](#).

3.3.4. Nafarroako Liburutegi Digitala (BiNaDi)

Nafarroako Liburutegi Digitalak (BiNaDi) interes kultural handiko eta sarbide zaileko material bibliografikoak jartzen ditu ikertzaile eta herritarren esku. BiNaDiK gai askori buruzko dokumentu digitalizatu osoetara sarbidea ematen du, betiere Nafarroako ondare kulturalaren edukari edo jatorriari lotutakoak.

Dokumentuak [Nafarroako Kulturaren Atari Digitalean](#) integratuta daude.

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

3.4. Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak eta kultura jarduerak

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak egitea bultzatzen du, kulturara, informaziora, prestakuntzara eta aisialdi sortzailerara sarbidea izatea demokratizatzeko lanean:

3.4.1. Hitzaldiak, mahai inguruak eta solasaldiak

3.4.2. Gida bibliografiak

3.4.3. Berrikuntzei buruzko buletinak

3.4.4. Liburu aurkezpenak

3.4.5. Ipuin kontalariak

3.4.6. Ikastaroak eta lantegiak

3.4.7. Erakusketak

3.4.8. Interesguneak

3.4.9. Eskola bisitak

3.4.10. Bisita gidatuak

3.4.11. Erabiltzaileen prestakuntza

3.4.12. [Irakurle klubak](#)

Horrez gain, Nafarroako liburutegi publikoetan irakurle klubak eratzea eta martxan jartzea babestu eta koordinatzen da; irakurle klubek liburutegietako instalazioak eta 1.023 liburu multzo dituzte eskura, kontsultatzeko eta eskatzeko liburutegietan edo berriazko inprimaki eta katalogo baten bidez.

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.4.13. Eduki digitalak

Liburutegiek egindako zenbait jarduera, esaterako hitzaldiak, mintegiak eta mahai inguruak, streaming bidez eskaintzen dira edo zuzenean formatu digitalean egiten dira.

[Nafarroako Liburutegien Youtubeko kanalaren](#) bitartez daude eskura.

3.5. Artxibo filmografikoa

3.5.1. Ikus-entzunezko dokumentuak berreskuratzea

3.5.2. Ondare filmografikoari buruzko kontsultetarako arreta

3.5.3. Ikus-entzunezko materiala ikustea

3.5.4. Zinemari buruzko liburutegi espezializatua

4. Konpromisoak eta betetze adierazleak

Aipatutako zerbitzuetan oinarrituz, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak aipatutakoa betetzea bermatuko duten adierazle eta konpromiso hauek ezarri ditu:

- › Informazioa: "Zuk galdetu, liburutegiek erantzun."
- › Konpromisoa: Internet bidez "Zuk galdetu, liburutegiek erantzun" zerbitzu telemati-koan egindako kontsultei erantzuna ematea, gehienez hiru egun balioduneko epean.
- › Ezarritako adierazlea: Epe barruan erantzundako galderen ehunekoa.

Informazioa: estatistikak egitea.

- › Konpromisoa: Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemako Urteko Estatistika Memoria prestatzea eta estatistika datuak erraztu eta hedatzea estatistika atarian eta Liburute-gi Zerbitzuko webgunean argitaratuz, memoriaren erreferentziatzko datatik hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren barruan.
- › Ezarritako adierazlea: urteko memoria navarra.es webguneko estatistika atarian eta Liburutegi Zerbitzuko webgunean argitaratu den data.

Sarbidea dokumentura: sarbidea eta kontsulta katalogoan.

- › Konpromisoa: Azpiegitura teknologikoa ematea, Nafarroako Gobernuaren sare kor-poratiboan integratuta dauden liburutegi publiko guztien automatizazio prozesua osatzea ahalbidetuko duena. Helburu hau lortzeko Liburutegi Zerbitzuak AbsysNET liburutegien sareak kudeatzeko sistema integratuaren lizentziak eskuratuko ditu.
- › Ezarritako adierazlea: Nafarroako Gobernuko sare korporatiboko liburutegietatik Absys-
NET liburutegien kudeaketa sistemaren lizentziak dituzten liburutegien ehunekoa.

Sarbidea dokumentura: dokumentuak eskuratzeko eskaera (desideratak)

- › Konpromisoa: Eskaeraren emaitzaren berri ematea gehienez 15 egun naturaleko epean.
- › Ezarritako adierazlea: Epe barruan erantzundako eskaeren ehunekoa.

Sarbidea dokumentura: mailegua

- › Konpromisoa: Araudian ezarritako mailegu baldintzak mantendu eta ziurtatzea Zerbit-zu Karta hau indarrean dagoen bitartean.
- › Ezarritako adierazlea: betetzea BAI/EZ

Interneterako sarbidea

- › Konpromisoa: Hiritarrek Internetera sarbidea izatea ahalbidetuko duen azpiegitura mantentzea, 2000 biztanleko ordenagailu bat gutxienez bermatuz (Kultura Ministe-rioak ezarritako adierazlea).
- › Ezarritako adierazlea: Liburutegi bakoitzean Internetera sarbide publikoa daukaten ordenagailuen ehunekoa, artatutako 2000 biztanleko.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Liburutegi Digitala

- › Konpromisoa: BiNaDin (Nafarroako Liburutegi Digitala) digitalizatutako eta publikoaren esku dauden objektuen bolumena gutxienez % 10 handitzea. e-Biblio, e-Film eta Info-Magazine plataformetako funtsa gutxienez % 10 handitzea.
- › Ezarritako adierazlea: BiNaDiren datu basean digitalizatutako eta publikoaren esku dauden objektuen kopurua. Plataforma digitala gehitutako tituluen ehunekoa.

Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak

- › Konpromisoa: Nafarroako liburutegi publikoetan irakurle klubak esku dauden liburu multzoak mantentzea eta handitzea; Zerbitzuak eskura egonen den multzo kopurua urtero gutxienez % 5 handitzeko konpromisoa hartu du.
- › Ezarritako adierazlea: Nafarroako liburutegietan irakurle klubak esku dauden liburu multzoetan urtero gehitutako titulu berrien %.

5. Zerbitzu kartaren kudeaketa

Zerbitzu karta honen kudeaketa Liburutegi Zerbitzuari dagokio, zerbitzuko zuzendaritzaren erantzukizunpean.

Atalburuek izanen dute 3. atalean hartutako konpromisoak gauzatzeko behar diren neurriak hartzeko ardura, bakoitzak bere jardun esparruan, bai eta kasuan kasuko adierazleen bilakaeraren jarraipena eta aldizkako kontrola egitekoa ere.

Liburutegi Zerbitzuak auditoretzak egiten ahal ditu, egiaztatzeko zenbateraino bete diren konpromisoak eta adierazleen jarraipena egiteko.

Auditoretzetan atalburuetarako gomendioak jasotzen ahal dira, eta burutzek behar den guztia beteko dute hobekuntzak sustatzeko eta, ahal dela, hurrengo aldi horiek gauzatzeko.

Kultura eta Kirol Sailari auditoretza txostenen berri emanen zaio.

6. Lege esparrua

- › Taldeen bisita erreserben eskaerak, jaso zirenetik 3 egun balioduneko epean erantzun- dakoak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Museoko edo dokumentu funtsetara sarbidea izateko ikertzaileen eskaerak, jaso zire- netik gehienez 10 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruare- kiko ehunekoa.
- › Funtsen argazki kopiak lortzeko eskaerak, gehienez 10 egun balioduneko epean erant- zun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Bisita pribatuen eta ekitaldiak ospatzeko eskaerak, jaso zirenetik gehienez 10 egun balioduneko epean erantzundakoak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Bisitarien kexak eta iradokizunak, museoan jaso zirenetik 15 egun balioduneko epean erantzundakoak, dagoen museo eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

INFORMAZIOA

Helbidea eta informazioa:

San Domingo kalea 47, 31001, Iruña. Tel.: +34 848 426492 y + 34 848 426493
museo@navarra.es / www.museosnavarra.es

Ordutegiak

Asteartetik larunbatera, 09:30-14:00 eta 17:00-19:00.

Igande eta jaiegunetan, 11:00-14:00.

Itxita: astelehenetan, urtarrilaren 1ean, Ostiral Santuan, uztailaren 7an eta abenduaren 25ean. Arratsaldez: urtarrilaren 5ean, Ostegun Santuan, uztailaren 6-14 bitartean eta abenduaren 24an eta 31n.

Liburutegia: kontsultatu web orria.

Tarifak

Orokorra: 2€. Murriztua: 1€.

Dohainik: larunbat arratsaldean eta igandeetan.

Doakoa da 18 urtetik behera eta 65 urtetik gorakoa izatea egiaztatzen duen ziurtagiria dutenentzat, erretiratuentzat, langabezian daudenentzat, irakasleentzat, erromesentzat, museoko lagunentzat, ICOMeko kideentzat eta minusbalia duten pertsonentzat. Taldeak: galdetu.

Nola iritsi

Oinez: oinez iristea gomendatzen da.

GARRAIO PUBLIKOA Autobusa

14. linea: Arrotxapea – Udaletxea

Geltokia Merkatuko kalean du (udaletxearen atzeko aldea).

3., 4., 6., 8., 9., 10., 12., 15., 16., 17. eta 21. lineak.

Geltokiak ditu Bajada de Labriten, Sarasate pasealekuan, Navas de Tolosa kalean, Taconera kalean, Nafarroako Museotik gertu

Ibilgailu pribatua: sarbidea APARKALEKUETARA

- › Aduanako zokoa aparkalekua
Probintziaren plaza, z. g. 31001 - Iruña
- › Saba Gazteluko Plazako aparkalekua
www.saba.es/es/parking-pamplona/parking-saba-plaza-del-castillo
- › Zezen Plazako Parkia aparkalekua
www.parkia.es/aparcamientos/parking-sanfermines-plaza-de-toros-pamplona-iruna/
- › Empark Baluarte aparkalekua
www.empark.com/es/es/parking/pamplona/parking-plaza-baluarte-pamplona/
- › Corralillos aparkalekua, Arrotxapean (zona urdina)
Arga ibaiaren kalea, 2. 31014 Iruña

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

ERANSKINA KARLISMOAREN MUSEOAREN ZERBITZU KARTA

Identifikazioa

Karlismoaren Museoa Nafarroako Gobernuaren kultura ekipamendu bat da, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Museoen Zerbitzura atxikitakoa, bat etorritz urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez ezarri baitzen Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa. Zehazki esateko, arau horrekin bat etorritz, Karlismoaren Museoa zuzenean Museoen Atalaren mende dago, aipatutako Museoen Zerbitzuan integratutakoa.

Kulturako zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 381/2010 Ebazpenak museo gisa aitortu zuen, uztaillaren 17ko 10/2009 Foru Legearen arabera, Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorreki buruzkoa.

Zerbitzu karta honek Karlismoaren Museoak herritarrekin duen konpromisoa islatzen du, bisitariek eta erabiltzaileek une oro jakin dezaten zein zerbitzu eta nola eskaintzen diren.

Misioa

Plan museologikoaren arabera, Karlismoaren Museoak Nafarroako eta Espainiako karlismoa du misiotzat, XIX. eta XX. mendeetako historiaren testuinguruan, prozesu kontrairaultzaile modura, Europako eta munduko beste batzuen antzera. Horretarako bildumak kontserbatu, erakutsi eta ikertzen ditu.

Ematen diren zerbitzuak

- › Erakusketa iraunkorra Museoaren diskurtso museografikoarekin bat etorritz, kultura eduki eta ondasunak modu antolatuan aurkeztea, bi espaziotan antolatuta; hala, Karlismoaren historian zehar ibilbide historikoa egiten ahal da, XIX. mendeko lehen herenean sortu zenetik 1977ra arte. Erakusketa iraunkorreko eduki guztiak bertso elebidunean eskaintzen dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Sarrera tarifa arruntaren mende egonen da, murriztua edo doakoa, dagokionaren arabera.
- › Aldi baterako erakusketak. Erakusketa iraunkorra osatzeko, museoak aldi baterako erakusketak antolatzen ditu urtero, museoak berak egindakoak edo beste erakunde, artista, entitate batzuekin lankidetzan, zentroaren erakusketa estrategiarekin bat etorritz. Sarrera doakoa da.
- › Taldeen bisitak. Museoa eskola taldeetan bisitatzen ahal da, gehienez 25 pertsonako edukierarekin, irekitze ordutegi arruntan.
- › Kultura eta hezkuntza jarduerak. Museoak museoko edukiekin lotutako kultura eta hezkuntza jarduerak antolatzen ditu urte osoan zehar, besteak beste, bisita gidatuak, ikasteko jardunaldiak, hitzaldi zikloak, kontzertuak, eta abar. Eskola ikasleei zuzendutako eskaintza didaktikoa ere eskaintzen du, bisita gidatu eta tailer didaktikoekin. Jarduerak dohainik dira. Jarduera horiek euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira.
- › Karlismoaren historia ikertzeko eta bildumak aztertzeko dokumentazio zentroa, baliabide eskaintza zabalarekin: liburutegia, dokumentu artxiboa, iturri bibliografiko eta artxibistikoaren datu baseak, inbentarioak eta funts museografikoaren katalogoak. Museoak zerbitzu hauek ditu, doan eta modu espezializatuan. Edozein kontsulta egiteko jo helbide honetara: consulta.cdmc@navarra.es
- › Arreta ikertzaileei Bildumak kontsultatzeko edo museoko piezen kopiak egiteko helbide honetara jo behar da: museo.carlismo@navarra.es
- › Argitalpenak. Museoak bertako edukiekin lotutako produktuak eta argitalpenak ditu, inprimatuta zein on line.
- › Web orria eta sare sozialak Museoak informazio zabala eskaintzen du bere webgunean, besteak beste, erakundeari, bildumari, erakusketei, hezkuntza eta prestakuntza jarduerari, kudeaketari eta zerbitzuei dagokienez. Interneten duen presentzia museoak sare sozialetan dituen profilekin osatzen da, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren kontuen bitartez.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

- › Aholkularitza. Erakunde publiko edo pribatuei, zein Nafarroako Kultura Ondarea osatzen duten ondasunen titularrei, kontserbazioari, zaharberritzeari, katalogazioari eta museologiari dagokienez.
- › Espazioak lagatzea. Museoak hitzaldi aretoa dauka. Doan lagatzen zaie irabazi asmorik gabeko kultura entitateei. Edozein kontsulta egiteko jo helbide honetara: museo.carlismo@navarra.es.
- › Bestelako zerbitzuak. Denda, kontsigna, gurpildun aulkia eta aldapa mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

II ARGITALPEN BULEGOA

Kalitate konpromisoak

- › Informazio orokorra Erakusketa iraunkorra bisitatzeko ibilbide eta edukari buruzko informazio planoak jartzea bisitariaren esku, gaztelaniaz eta euskaraz (beste hizkuntza batzuk, ingelesa eta frantsesa), eta eskura dauden beste zerbitzuen inguruan informatzea, museoan aurrez aurreko bisita unean, ordutegi arruntean.
- › Programazioa. Museoeko kultura eta hezkuntza jardueren programazioaren berri ematea hileroko eta aski aurrerapenez, hurrengo kanalen artean gutxienez hiru erabiliz: informazio kartelak, eskuorri inprimatuak, posta elektronikoa, komunikabideak, webgunea eta sare sozialak. Horrez gain, museoeko programazioari buruzko informazioa postaz bidaltzea, interesdunak hala eskatzen duenean.

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

- › Aldi baterako erakusketak, museoak berak prestatutakoak edo lankidetzan. Urtean gutxienez aldi baterako bi erakusketa antolatzea, museoak berak edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

- › Bisita gidatuak. Urtero gutxienez 40 bisita gisatu egitea erakusketa iraunkorrean, euskaraz eta gaztelaniaz, publiko orokorarentzat eta doako sarrerarekin.

V MUSEOEN ZERBITZUA

- › Taldeentzako bisitak. Taldeentzako bisiten erreserba eskaerei eskaera jasotzen denetik gehienez 3 egun naturaleko epean erantzutea, eta nahi den hizkuntzan (gaztelania, euskara).

- › Hezkuntza jarduerak. Hezkuntza jardueretan parte hartzeko eskaerei jasotzen direnetik gehienez 3 egun naturaleko epean erantzutea.

- › Kultura jarduerak, museoak berak prestatutakoak edo lankidetzan. Kultura jarduerak antolatzea, museoak berak eta/edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.

- › Arreta ikertzaileei. Ikertzaileen eskaerak erantzutea, museoeko funtsak, funts bibliografikoak edo artxibistikoak kontsultatzeko, kopiak lortzeko edo irudiak lagatzeko, eta ikerkuntzarako bestelako aholkularitza zerbitzuak lortzeko, eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun naturaleko epean.

- › Aholkularitza. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aholkularitza eskaera gutziak erantzutea, baita Nafarroako kultura ondarea osatzen duten ondasunen titularrenak ere, eskaera jasotzen denetik 3 egun naturaleko epean.

- › Zerbitzua edo jarduera bertan behera uztea. Zerbitzuren bat edo kultura jarduerak bertan behera utzi direla behar bezala jakinaraztea, museoaren barne funtzionamenduaren beharrezan edo bestelako arazoak tarteko, horren berri izaten denetik zentzuzko epe batean.

- › Iradokizunak eta erreklamazioak. Jasotako erreklamazioak eta iradokizunak museoan jasotzen direnetik gehienez 15 egun naturaleko epean erantzutea. Zorion mezuak izanez gero ere, aintzat hartuko dira.

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

Karlismoaren Museoaren barne lanari dagokionez

- › Harremanak erakundeekin. Karlismoaren Museoaren erreferentziazko kultura entitate modura kokatzea bai Nafarroako Foru Komunitatean, bai bertako inguruan, harremanak ezarriz inguruko kultura eragile eta erakundeekin.

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

- › Bilduma. Museoeko bildumaren parte diren kultura ondasunak erregistratu, katalogatu eta dokumentatzen mailaka aurrera egitea, bilduma iraunkorrekoak zein gordailukoak, behar diren segurtasun eta kontserbazio neurriak bermatuz. Museoeko bilduma handit-

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

zea bermatzea, obrak eskuratuz, dohaintzan hartuz, gordailuan jasoz eta obrak jasotzeko beste modu batzuen bidez. Halaber, administrazio unitate eskudunaren babespean, bildumako kultura ondasunei erasaten dieten zaharberritze edo kontserbazio ekintza guztiak egitea.

- › Museoa hartzen duen eraikina indartzea, Nafarroako kultura ondareko interes kulturalako ondasuna den aldetik, pertsona interesdunak instalazioetara sartzeari ahalbidetuz eta Lizarrako eta, horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko kultura ondare higiezi-zen testuinguruan balioan jarritz.
- › Posible den neurrian, museoaren irisgarritasun unibertsala bermatzea.
- › Museoa topaketarako eta integrazio sozial eta belaunaldien integraziorako espazio bihurtzea, genero berdintasuna bermatzeko eta balio zibiko eta solidarioak garatzeko ekintzak sustatuz.
- › Memoria historikoarekiko sentikorrek diren gertaera eta aldiei eragiten dieten gertakarien kontakizun historiko objektiboa ematea zaintzea, bat etorritik Frankismoko bikti-zen erreparazio, egia eta justizia printzipioekin.

II ARGITALPEN BULEGOA

Kalitate adierazleak

Museoak zerbitzuen kalitatea ebaluatuko du urtero, kopuru edo ehuneko hauek kontuan hartuz:

- › Antolatutako aldi baterako erakusketak.
- › Egindako kultura eta hezkuntza jarduerak.
- › Museoko zerbitzu eta kultura jarduerari eta aldi baterako erakusketa eta bildumei buruzko informazioa zenbat aldiz eguneratu den webgunean.
- › Karlismoaren Museoko Dokumentazio Zentroari egindako kontsultak. Ikertzaileen partetik jasotako eta erantzundako kontsulta kopurua, aurrez aurre, telefonoz edo e-mail-egindakoak.
- › Informazioa bidaltzea museoan mailin zerbitzuaren bitartez.
- › Museoari buruzko informazioa txertatzea komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista, Internet kanalak, eta abar).
- › Museoko aldi baterako erakusketetan eta erakusketa iraunkorren izandako bisitariak.
- › Hezkuntza, kultura edo antzeko jardueren erabiltzaileak. Zerbitzuko langileek arreta ematea erabiltzaile eta bisitariari, eta museoari edo zerbitzuei buruzko informazioaren bat jaso duten pertsonen kopurua.
- › Taldeen bisita erreserben eskaerak, jaso zirenetik gehienez 3 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Museoko funtsetara sarbidea izateko ikertzaileen eskaerak, jaso zirenetik gehienez 5 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Dokumentu funtsetara sarbidea izateko ikertzaileen eskaerak, jaso zirenetik gehienez 3 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Ikus-entzunezko grabazioetarako museoan sartzeko eskaerak, jaso zirenetik gehienez 5 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Museoko eta dokumentazio zentrotako bildumako ondasunen irudi digitalen eskaerak, ikerkuntza helburuekin edo kanpo argitalpenetarako, jaso zirenetik gehienez 3 egun balioduneko epean erantzun direnak eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Bisitarien kexak eta iradokizunak, museoan jaso zirenetik gehienez 15 egun balioduneko epean erantzundakoak eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik museoan jasotako aholkularitza eskaerak, baita Nafarroako kultura ondarea osatzen duten ondasunen titularren partetik ere, jasotzen direnetik gehienez 5 egun baliodunetan erantzunen dira, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Erantzun diren kontsultak, beste administrazio unitate batzuetara bideratutakoak, eta kanala (telefono deia, posta elektronikoa, etab.).

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

Lankidetzeta eta parte hartzea

Karlismoaren Museoko erabiltzaileek zerbitzuen hobekuntzan parte hartzen ahalko dute, honako hauen bidez:

- › Zerbitzu karta honetan aurreikusitako sistemaren arabera kexak eta iradokizunak egin. Zorion mezuak izanez gero ere, aintzat hartuko dira.
- › Aldian-aldean egiten diren gogobetetasun inkestak betez.
- › Museoko zuzendaritzara bideratutako idatziak.
- › Web orriaren bidez: www.museodelcarlismo.navarra.es

II ARGITALPEN BULEGOA

Iradokizunen eta erreklamazioen kudeaketa

Karlismoaren Museoko erabiltzaileek iradokizunak eta erreklamazioak aurkezten ahal dituzte, baita zorion mezuak ere, jarraian adierazi diren leku eta moduetan:

- › Aurrez aurre. Museoko harreran eskura dagoen inprimakian.
- › Posta elektronikoz. Helbide honetan: museo.carlismo@navarra.es
- › Egoitza elektronikoa. [Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa](#)ren bitartez, helbide honetan.
- › Posta arruntez. Museoko zuzendaritzara bidaliz: Museoen Atala, San Domingo kalea, z.g., 31001 Iruña.

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

Kexak, iradokizunak edo zorion mezuak aipatu bezala aurkeztu ondoren, erabiltzaileek testua adierazitako kanalaren bitartez aurkeztu dela ziurtatzeko jakinarazpena jasoko dute.

Unitate arduradunak 10 egun naturaleko epea dauka erantzuteko.

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

Helbidea eta ordutegia

Karlismoaren Museoa Rua kalea 27, 29 – Gobernadorearen Jauregia 31200 Lizarra

Telefonoa: 948 55 21 11. Helbide elektronikoa: museo.carlismo@navarra.es

Jendea hartzeko ordutegia, bulegoak: Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Museoa irekitzeko ordutegia: Asteartetik larunbatera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

Dokumentazio zentroko aurrez aurreko kontsulten ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:30etik 14:30era alde aurretik hitzordua eskatuz gero 948552111 telefonoan edo museo.carlismo@navarra.es e-mailean

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

III. ERANSKINA. JULIO CARO BAROJA MUSEO ETNOLOGIKOA

Identifikazioa

Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa Nafarroako Gobernuaren kultura ekipamendu bat da, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Museoen Zerbitzura atxikitakoa, bat etorri urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez ezarri baitzen Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa. Zehazki esateko, arau horrekin bat etorri, Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa zuzenean Museoen Atalaren mende dago, aipatutako Museoen Zerbitzuan integratutakoa.

Gaur egun, museo etnologikoa Nafarroako Foru Administrazioaren titulartasunezkoak diren izaera etnografikoko dokumentu eta bibliografia funtsen eta bildumen kultura gordailua da. Ez dago bertako pieza museografikoen erakusketa iraunkorrik, baina liburutegi espezializatua eskuragarri dago, eta ikertzaileei funtsetako gaietara sarbidea izatea bermatzen die.

Museo etnologikoa ez dago Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan integratuta, ez duelako betetzen bisitariei irekita egoteko ezinbesteko betekizuna, bildumen erakusketa antolatu batekin; hala ere, museo ekipamendu aitortu baten funtzioen izaera bera du.

Zerbitzu karta honek Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa herritarrekin duen konpromisoa islatzen du, une oro jakin dezaten zein zerbitzu eta nola eskaintzen diren.

Misioa

Bildumak kontserbatu, dokumentatu eta hedatzea, baita Nafarroako ondare etnologikoa eta immateriala aztertu eta dokumentatzea ere, eta betebeharrak zientifikoa gizarteari jakinaraztea. Misio hori hainbat ikerkuntza eta dokumentazio proiektuen bidez garatzen da.

Ematen diren zerbitzuak

- › Bisitak. Museoa taldean bisitatzen ahal da, betiere bisita gidatuaren formatuarekin eta alde aurretik eskatutako hitzorduarekin, Museoen Nazioarteko Egunaren (maiatzak 18) eta Ondarearen Europako Jardunaldien (iraileko azken asteburuan) daten inguruan. Bisitan zehar museoaren historia eta zaharberritze espazioak eta biltegiak erakusten dira. Bisitak doakoak dira eta gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen dira.
- › Bildumak kontsultatzea. Museoak bildumak kontsultatu nahi dituzten pertsonak arreta eskaintzen die; kontsulta inbentarioaren bitartez edo museoan bertan kontsultatzen den aplikazio informatiko baten bitartez egiten ahal da, eta jatorrizko piezak ere aztertzen ahal dira. Sarbide baldintzak [webgunean](#) daude eskuragarri.
- › [Liburutegi espezializatua](#). Museoko liburutegi espezializatuaren katalogoa Nafarroako liburutegi publikoen sarean dago eskura. Alde aurreko kontsultak ostiraletan erantzuten dira (jaiegunetan salbu), 08:30etik 14:30era. Liburutegien arteko mailegua eskatzen ahal da.
- › [Argitalpenak](#). Museoak edukiekin lotutako zenbait argitalpen eta ikus-entzunezko lan dauzka, argitaratuta eta on line.
- › [Webgunea](#). Erakundeari eta bildumari buruzko informazioa museoaren webgunean dago.
- › Aholkularitza. Erakunde publiko edo pribatuei zein Nafarroako kultura ondare etnologikoa eta immateriala osatzen duten ondasunen titular diren pertsona eta komunitateei, bere eskumeneko gaietan.
- › Kultura ondare immateriala dokumentatzen eta hedatzen lan egiten duten entitateei zuzendutako dirulaguntzen [deialdiak](#) eta hitzarmenak kudeatzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Kalitate konpromisoak

- › Informazio orokorra Museoan informazio planoak bisitarien esku jartzea, gaztelaniaz zein euskaraz. Gauza bera ondare etnologiko eta immaterialari buruzko informazioan eta deialdietan.
- › Programazioa. Museoeko kultura eta hezkuntza arloetako jardueren programazioa aski denboraz jakinaraztea, informazio kartelen bidez eta posta elektronikoz, komunikazio kanaletatik (beharrezkoa bada) eta webgunean. Horrez gain, museoeko programazioari buruzko informazioa postaz bidaltzea, interesdunak hala eskatzen duenean. Modu berdinean jokatzea ondare etnologiko eta immaterialari buruzko informazio guztiarekin.
- › Nafarroako Kultura Ondare Immaterialaren Inbentarioaren aurrerapenei eta Sustraiak - Raíces deialdiko proiektuei buruz informatzea.
- › Bisita gidatuak. Urtero gutxienez 4 bisita gidatu egitea museoeko instalazioetan, gaztelaniaz eta euskaraz, publikoarentzat oro har eta doan.
- › Taldeentzako bisitak Taldeentzako bisiten erreserba eskaerei eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun naturaleko epean erantzutea, eta nahi den hizkuntzan (gaztelania, euskara).
- › Ondare etnologiko eta immaterialari dagokionez zerbitzuari egindako informazio eskaera guztiak erantzutea.
- › Kultura jarduerak, museoak berak prestatutakoak edo lankidetzan. Kultura jarduerak antolatzea, museoak berak eta/edo kultura tradizionalan lan egiten duten beste erakunde eta elkarte batzuekin eta KOIko komunitateekin lankidetzan.
- › Arreta ikertzaileei Ikertzaileen eskaerak erantzutea, museoeko funtsak, funts bibliografikoak kontsultatzeko, kopiak lortzeko edo irudiak lagatzeko, eta ikerkuntzarako bestelako aholkularitza zerbitzuak lortzeko, eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun naturaleko epean.
- › Aholkularitza Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aholkularitza eskaera guztiak erantzutea, baita Nafarroako kultura ondare immaterial eta etnologikoa osatzen duten ondasunen titularrak diren pertsona, entitate eta komunitateenak ere, eskaera jasotzen denetik 3 egun naturaleko epean.
- › Zerbitzua edo jarduera bertan behera uztea. Zerbitzuren bat edo jarduerak bertan behera utzi direla behar bezala jakinaraztea, museoaren barne funtzionamenduaren beharrianak edo bestelako arazoak tarteko, horren berri izaten denetik zentzuzko epe batean.
- › Iradokizunak eta erreklamazioak Jasotako erreklamazioak eta iradokizunak museoan edo posta helbideetan jasotzen direnetik gehienez 15 egun naturaleko epean erantzutea.

Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoko barne lanari dagokionez:

- › Harremanak erakundeekin. Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa erreferentziazko kultura entitate modura kokatzea bai Nafarroako Foru Komunitatean, bai gertuko inguruan, harremanak ezarriz inguruko kultura eragile eta erakundeekin.
- › Bilduma. Museoeko bildumaren parte diren kultura ondasunak erregistratu, katalogatu eta dokumentatzen mailaka aurrera egitea, bilduma iraunkorrekoak zein gordailukoak, behar diren segurtasun eta kontserbazio neurriak bermatuz. Museoeko bilduma handitzea bermatzea, obrak eskuratuz, dohaintzan hartuz, gordailuan jasoz eta obrak jasotzeko beste modu batzuen bidez. Halaber, administrazio unitate eskudunaren babespean, bildumako kultura ondasunei erasaten dieten zaharberritze edo kontserbazio ekintza guztiak egitea.
- › Posible den neurrian, museoeko bildumaren eta bibliografia funtsen irisgarritasuna bermatzea.
- › Ondare etnologiko eta immaterialaren inguruan ahal bezain informazio guztia eskaintzen dela zaintzea, ikus-entzunezko materialen bidez eta sarbidea emanez bildumaren katalogora eta Kultura Ondare Immaterialaren Inbentario eta Aurreinbentariora.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Kalitate adierazleak

Museoak zerbitzuen kalitatea ebaluatuko du urtero, kopuru edo ehuneko hauek kontuan hartuz:

- › Egindako kultura jarduerak
- › Programatutako bisita gidatuetan parte hartu duten pertsonen kopurua
- › Museoeko zerbitzuei, kultura jarduerari eta bildumei buruzko informazioa zenbat aldiz eguneratu den webgunean.
- › Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoari egindako kontsultak. Ikertzaileen partetik jasotako eta erantzundako kontsulta kopurua, aurrez aurre, telefonoz edo e-mailez egindakoak.
- › Informazioa bidaltzea museoeko mailin zerbitzuaren bitartez.
- › Museoari buruzko informazioa txertatzea komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista, Internet kanalak, eta abar).
- › Bildumaren inbentarioan alta emandako fitxa kopurua.
- › Kultura ondare immaterialari buruzko ikerkuntza eta hedapen proiektuetarako dirulaguntzak jaso dituzten entitateak.
- › Navarchivoren webgunera gehitutako erregistroak, UPNAko Kultura Ondare Immateralaren Katedrarekiko lankidetzaren hitzarmena dela bide.
- › Ondare etnologiko eta immaterial grabatuari buruzko dokumentalak.
- › Inbentarioan jasotako kultura ondare immaterialaren adierazpen fitxak.
- › Kultura Ondare Immateralaren Aurreinbentarioa haien komunitatean baliozkotzen duten toki entitateak.
- › KOIko inbentarioko fitxa baliozkotzen duten komunitateak.
- › Museoeko funtsetara sarbidea izateko ikertzaileen eskaerak, jaso zirenetik gehienez 5 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Dokumentu eta bibliografia funtsetara sarbidea izateko eskaerak, jaso zirenetik gehienez 3 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Ikus-entzunezko grabazioetarako museoan sartzeko eskaerak, jaso zirenetik gehienez 5 egun balioduneko epean erantzun direnak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Museoeko eta kultura ondare immaterialaren bildumako ondasunen irudi digitalen eskaerak, ikerkuntza helburuekin edo kanpo argitalpenetarako, jaso zirenetik gehienez 3 egun balioduneko epean erantzun direnak eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Kexak eta iradokizunak, museoan jaso zirenetik 15 egun balioduneko epean erantzundakoak, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik museoan jasotako aholkularitza eskaerak, baita Nafarroako kultura ondare immateriala edo etnologikoa osatzen duten ondasunen pertsona, entitate eta komunitate titularren partetik jasotakoak ere, jasotzen direnetik gehienez 5 egun baliodunetan erantzunen dira, eta guztizko kopuruarekiko ehunekoa.
- › Erantzun diren kontsultak, beste administrazio unitate batzuetara bideratutakoak, eta kanala (telefono deia, posta elektronikoa, etab.).

Lankidetzaren eta parte hartzea

Erabiltzaileek zerbitzuen hobekuntzan parte hartzen ahalko dute, honako hauen bidez:

- › Zerbitzu karta honetan aurreikusitakoaren arabera kexak eta iradokizunak eginez. Zorion mezuak izanez gero ere, aintzat hartuko dira.
- › Museoeko unitate arduradunera bideratutako idatziak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Iradokizunen eta erreklamazioen kudeaketa

Erabiltzaileek iradokizunak eta erreklamazioak aurkezten ahal dituzte, baita zorion mezuak ere, jarraian adierazi diren leku eta moduetan:

- › Aurrez aurre Museoko postontzian eskura dagoen inprimakian.
- › Posta elektronikoz. Helbide honetan: museo.etnologico.navarra@navarra.es
- › [Egoitza elektronikoa](#). Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoaren bitartez, helbide honeta.
- › Posta arruntez: Unitate arduradunera igorritz: Museoen Atala, San Domingo kalea z.g. 31001 Iruña, edo Museo Etnologikoaren egoitzara, Merkatondoa kalea 13, 4. nabea, 31200 Lizarra (Nafarroa).

Kexak, iradokizunak edo zorion mezuak aipatu bezala aurkeztu ondoren, erabiltzaileek testua adierazitako kanalaren bitartez aurkeztu dela ziurtatzeko jakinarazpena jasoko dute.

Unitate arduradunak 10 egun naturaleko epea dauka erantzuteko.

Helbidea eta ordutegia

Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa, Merkatondoa kalea, 13. zk., 4. nabea
31200 Lizarra (Nafarroa)

Telefono zenbakia: 948 553556

Helbide elektronikoa: museo.etnologico.navarra@navarra.es

Jendea hartzeko ordutegia (telefonoz eta e-mailez): Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Aurrez aurreko kontsulta ordutegia liburutegi espezializatuan: ostiralak (jaiegunak salbu), 08:30etik 14:30era hitzordua aldeztu aurretik eskatuz 948553556 telefono zenbakian edo museo.etnologico.navarra@navarra.es helbide elektronikoa.

[Kokalekua](#).



ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

VI. ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

-
1. Identifikazioa
 2. Misioa, eskumena eta balioak
 3. Eskaintzen dituen zerbitzuak
 4. Konpromisoak eta betetze adierazleak
 5. Zerbitzu kartaren kudeaketa
 6. Lege esparrua
 7. Erabiltzaileen eskubideak
 8. Iradokizunen eta erreklamazioen sistema
 9. Harremanetarako informazioa
-

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

1. Identifikazioa

Ondare Historikoaren Zerbitzua Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuetako bat da. Bere baitan bi atal ditu: Ondare Arkitektonikoaren Atala eta Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala. Azken horrek, gainera, indusketa arkeologikoetatik iritsitako materialen kontserbazio, tratamendu eta zaintzarako gordailua ere badu.

2. Misioa, eskumena eta balioak

2.1. Ondare Historikoaren Zerbitzuaren ardura da Nafarroako ondare historikoa kudeatzea. Ekintzak funtsezko lau ataletan egiten ditu:

- › Ondare historikoa osatzen duten elementuak identifikatzea
- › Ondare historikoaren legezko babesaren tutoretza egitea
- › Ondare historikoa kontserbatu eta aberastea
- › Esparru guztietan eta ahalik eta bide gehien erabiliz zabaltzea kultura ondarea, garpenerako tresna eta balio sozial den aldetik.

Zerbitzuak planteatuta duen funtsezko helburua da gizartea Nafarroako ondare historikoarekin lotzea eta haren kontserbazioan, erabileran eta kudeaketan inplikatzeko. Helburu horrekin lotuta dago herritarrek ondare historikoa ezagutzeko, eskura izateko eta erabiltzeko duten eskubidea aitortzea eta garatzea.

2.2. Ondare Historikoaren Zerbitzuari emandako eginkizunak hauek dira:

- a) Ondare historikoa babestu, kontserbatu, katalogatu eta hedatzea, bere agerpen artistiko, arkeologiko eta antzekoetan.
- b) Ondare historikoa kontserbatu eta babesteko irizpide teknikoak ezartzea.
- c) Obra publiko edo pribatu batek multzo edo ondasun higiezin historikoak edo ondasun arkeologiko edo higigarriak edo horien inguruak ukitzen baldin baditu, proiektu horiei buruz nahitaezko txostenak egitea eta, arlo horretan, Nafarroako Gobernuaren beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa erraztea, bakoitzaren eskudantzien esparruan.
- d) Ondare historikoa ikuskatzea indarreko legeek ezarri bezala.
- e) Nafarroako Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroa sortu eta kudeatzea.
- f) Kultura intereseko ondasunak, ondasun inbentariatuak eta tokiko garrantzia duten ondasunak aitortzeko espedienteak tramitatzea.
- g) Nafarroako kultura ondarearen kontserbazioa, babesa eta hedapena sustatzea, indarreko legedian aurreikusita dauden ekintzen bitartez.
- h) Ondare historikoa kontserbatzeko ezartzen diren laguntzak kudeatzea.
- i) Nafarroako Gobernuko ondare historikoaren inbentarioak eta katalogo dokumental eta teknikoak prestatu, mantendu eta kontsultarako antolatzea.
- j) Nafarroako ondare historikoaren gainean egiten diren esku hartzeen proiektuak prestatu edo gainbegiratzea eta lan horiek zuzentzea.
- k) Bere ardurapean dauden Nafarroako Gobernuaren monumentuen kudeaketa planifikatu, kontratatu eta gainbegiratzea.
- l) Nafarroako Gobernuaren arkeologia funtsak antolatu eta kudeatzea.
- m) Indusketa eta prospekzio arkeologikoetarako baimenak eman behar ote diren proposatzea eta horiek tramitatzea, eta, behar denean, baita lan horiek egitea ere.
- n) Kultura intereseko ondasunei buruz Departamentuak sustatzen dituen programa guztietan parte hartzea.
- ñ) Ekintzak eta programak koordinatzea ondare historikoa kontserbatu eta babesteko esku hartzeen zabalkunde eta hedapen didaktiko eta pedagogikoari mesede egiteko.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

2.3. Ikuspegi hori gauzatzeko euskarria eta bermea ematen duten premisak bi dira:

- › Aldez aurretik ezagutzea, inbentariatzea eta ikertzea ondare historikoa osatzen duten elementuak.
- › Ondare historikoa babestea, kontserbatzea eta zaharberritzea.

Funtsezko helburu hauek ditu oinarritzat:

- › Ondasunen kontrola bermatzea, Kultura Ondareko Ondasunen Erregistrotik abiatuz
- › Kontserbazioa bermatzea, ezaugarriak hobeki ezagutu eta legalki babestuz.
- › Ondasun higigarriak zein higiezinak zaharberritzea kudeatzea.
- › Ondarea hedatzea eta dinamizatzea sustatzea.

3. Eskaintzen dituen zerbitzuak

3.1. Kultura ondareko ondasunen identifikazioa

Ondare historikoa hobeki ezagutzea, hura osatzen duten elementuak identifikatuz, aztertuz eta beren testuinguruan kokatuz.

Nafarroako Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroa tresna juridiko bat da, eta bertan inskribatzen dira babes handiena behar duten eta Interes Kultureko Ondasun (IKO), Inbentariatutako Ondasun (IO) edo Tokiko Garrantzia duten Ondasun modura katalogatu-tako ondasun higiezin, higigarri edo immaterialak.

Erregistroa publikoa da eta edonork du sarbidea, ondasunak babeste aldera sarbidea murriztu behar den kasuetan salbu. Hartara, katalogatutako ondasunetara erraz sartzea ahalbidetuko duen tresna informatikoa definitzeko ari gara lanean. Gaur egungoa ordez-tuko du, alegia <https://patrimoniocultural.navarra.es>

Aldi berean, ondasunen ezagutzari euskarri emanen dioten barne erabilerarako oinarritzko hiru tresnak eguneratuko dira: Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioa; Nafarroako Inbentari-rio Arkeologikoa eta Ondasun Higigarrien Katalogoa.

3.1.1. Interes Kultureko Ondasun (IKO) eta Inbentariatutako Ondasun (IO) izendatzea

Edozein pertsona fisikok edo juridikok eskatzen ahal du ondasun bat Interes Kultureko Ondasun (IKO) eta Inbentariatutako Ondasun (IO) aitortzeko prozedura hastea. Horretarako, eskaera argudiatua aurkeztu beharko da.

Organo eskudunak eskaera jaso duenetik hiru hilabeteko epean onartu beharko du espediente hasteko egintza; bestela, ezetsi dela ulertuko da.

3.1.2. Tokiko Garrantzia duten Ondasun gisa izendatzea

Soilik ondasun higiezinarako existitzen da, eta toki erakundeek prestatutako hirigintza-ko [udal planeamenduen katalogoan](#) txertatuz izendatzen dira, kultura arloko departa-mentu eskudunaren aldeko txostenarekin.

3.2. Ondasun katalogatuen babesa

Botere publikoek Nafarroako kultura ondarea kontserbatu, babestu eta aberats dadin bermatuko dute. Babes erregimena bermatuta dago kultura ondareko ondasunetan egin beharreko esku hartze oro jakinarazi egin behar delako; horrez gain, esku hartzeak egiteko kultura arloko departamentu eskudunaren baimena beharko da.

3.2.1. Ondasun higiezinetan esku hartzeko baimena

Ondasun higiezinaren gainean edo haien ingurunean egin nahi den edozein esku hartze-arako beharrezkoa da aldez aurretik kultura arloan eskudun den departamentuak baimena ematea, txosten lotesleean bitartez. Eskaera obra lizentzia izapidetuko duen toki entitateak aurkeztuko du. Horretarako, toki entitateek eskaera [orokor bat](#) aurkeztuko dute eta horrekin batera esku hartze motarekin bat datorren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da.

Baimena emateko epea bi hilabete baino gutxiagokoa izanen da; bestela, ezetsi dela ulertzen ahalko da.

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.2.2. Ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena

Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroan jasotako ondasun higigarrien gainean edozein esku hartzerako beharrezkoa da aldez aurretik kultura arloan eskudun den departamentuak baimena ematea, txosten lotesleen bitartez. Eskaera esku hartuko den ondasunaren titularrak aurkeztuko du. Horretarako, eskaerekin batera esku hartze motarekin bat datorren dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko da.

Baimena emateko epea bi hilabete baino gutxiagokoa izanen da; bestela, ezetsi dela ulertzen ahalko da.

3.2.3. Indusketa eta prospekzio arkeologikoak egiteko lizentziak ematea

Ondare Historikoaren Zerbitzuak Nafarroako Inbentario Arkeologikoan jasotako ondasunei erasaten dien edozein esku hartze baimenduko du. Esparru horretan bi esku hartze mota daude:

- › Premiazko esku hartzeak: lurpean beste esku hartze batzuk egiteari lotuta edo horren ondoriozkoak direnean.
- › Esku hartze programatuak: eskabideak indusketa egin nahi den urtearen aurreko urteko azken hiruhilekoan aurkeztuko dira.

Indusketa programatuaren lizentzia eskatzeko, [dokumentazio hau](#) aurkeztu beharko da.

Baimena onartzeko epea esku hartze motaren araberkokoa izanen da. Esku hartze programuen kasuan, urteko indusketa plana onartzearen mende egonen da.

3.2.4. Obrak azpiegituretan egiteko baimena

Azpiegiturek instalatzeko obren kasuan (energia eolikoa, fotovoltaikoa, uren kanalizazioa, komunikazio bideak, besteak beste), kultura arloko departamentu eskudunak aurretiazko baimena eman beharko du, txosten lotesle baten bitartez. Eskaera azpiegituren instalazio proiektuan eskuduna den departamentuak izapidetu beharko du, eta behar den dokumentazio teknikoak atxiki beharko zaio.

Baimena emateko epea bi hilabete baino gutxiagokoa izanen da; bestela, ezetsi dela ulertzen ahalko da.

Kultura ondareko ondasunen babesa berariazko beste legedi batzuetan ere jaso da.

3.2.5. Jokabide ez-zilegiak ondare arkeologikoan

Debekatuta dago metal detektagailuak material arkeologikoak bilatu edo berreskuratze-ko erabiltzea dagokion baimena izan gabe; arau hauste larritzat jotzen da eta 150.000 euro bitarteko zehapena dago aurreikusita; horrez gain, erabilitako tresnak konfiskatuko dira. Bestalde, Zigor Kodeak sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezartzen du norbaitek kalteak eragiten baditu balio historiko, artistiko, zientifiko, kultural edo monumentala duten ondasunetan, edo aztarnategi arkeologikoetan (izan lurrekoak edo urpekoak); zigor bera dago azken horietan ebasketak eginez gero. Horren haritik, Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusitik zenbait [gomendio](#) prestatu dira.

3.3. Ondasunen eskualdaketen jakinarazpenak

Interes Kulturalako Ondasunen eta Inbentariatutako Ondasunen jabe eta titularrek, ondasun horiek erabili eta gozatzeko eskubideak edo jabaria kostu bidez eskualdatzea proposatuz gero, asmo horren berri eman beharko dute. Helburu horrekin [eskaera orokor bat](#) aurkeztu beharko dute, eta adierazi beharko dute eskuratzailerearen izena, prezioa, ordaintzeko modua eta eskualdaketa bestelako baldintzak, egonez gero.

Kultura arloko departamentu eskudunak bi hilabeteko epea izanen du lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko interesa agertzeko.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

3.3.1. Ondasun higigarriak lekualdatzeko baimena

Ondare Historikoaren Zerbitzuak Nafarroako kultura ondareko ondasunen kontserbazioa eta segurtasuna zainduko du. Horretarako, Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroan jasotako ondasunen gainean egindako edozein mugimendu baimendu beharko du. Helburu hauetarako lekualdaketak baimentzen ahalko dira:

- › Zaharberritze esku hartzeetarako.
- › Aldi baterako erakusteko.
- › Segurtasun eta kontserbazio baldintzak hobetzeko.

Interes Kulturalako Ondasun eta Inbentariatutako Ondasun higigarrien jabe eta titularrek argudiatutako eskaera aurkeztuko dute [nahitaezko baimena lortzeko](#).

Ondasun higigarriak aldi baterako erakusketetarako maileguan lagatzeak entitate eskatzailearekin hitzarmena sinatzea ekarriko du, eta dokumentu horretan zehaztuko dira kontserbazio baldintzak, aseguru polizak, lekualdaketa baldintzak, irteerakoak eta itzulerakoak, eta erakusketaren gehieneko epea.

IKO eta IO gisa aitortutako ondasun higigarriak esportatzeko estatuko administrazio nagusiak alde zuzenetik berriazko baimena eman behar du.

3.4. Kultura ondareko ondasunen kontserbazioa

3.4.1. Ondasun higigarrien kontserbaziorako laguntzak

Titulartasun pribatuko Interes Kulturalako Ondasun (IKO) edo Inbentariatutako Ondasun (IO) modura katalogatutako ondasun higigarrien kontserbazio eta zaharberritze proiektuak finantzatzera bideratutakoak.

Deialdia eta oinarri arautzaileak urtero argitaratzen dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3.4.2. Laguntzak toki entitateei, indusketa programetarako

Urtero toki entitateetarako dirulaguntzen deialdia izapidetzen da, udal titulartasuneko ondare arkeologikoan eta paleontologikoan esku hartzeko. Laguntza horien helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Indusketen Urteko Planean baimenduta dauden indusketa arkeologiko programatuak egitea. Laguntza horiek proiektu bakoitzeko onartutako inbertsioaren % 75 ematen dute gehienez.

Deialdia eta oinarri arautzaileak urtero argitaratzen dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3.4.3. Aholkularitza tekniko kultura ondareko ondasunen kontserbazioan

Nafarroako Kultura Ondareko Ondasunen Erregistroan inskribaturiko ondasunen jabeek nahiz titularrek gai hauen inguruko aholkularitza jasotzen ahal dute:

- › Ondasunen prebentziozko kontserbazio planak idaztea.
- › Kontserbaziorako eta zaharberritzeko tratamendua.
- › Ondasun higigarriak manipulatzeari buruzko orientazioa eta jarraipena.
- › Hondamendien aurrean jarduteko neurriak.

3.5. Sarbidea Kultura Ondarera

Pertsona orok du eskubidea Nafarroako kultura ondarea berdintasunez gozatzeko, ondasunen zainketa eta babes beharrianak errespetatuz. Eskubidea Nafarroako Eskubide Kulturalari buruzko urtarilaren 15eko 1/2029 Foru Legearen 10. artikuluan arautu zen.

3.5.1. Hiritarren sarbidea

Ondare Historikoaren Zerbitzuak Interes Kulturalako Ondasun eta Inbentariatutako Ondasun gisa katalogatutako ondasunen zerrenda argitaratuko du. Horrez gain, ondasunen kultura esanahiari buruzko informazioa in situ eskainiko du; izan ere, horren garrantziak ekarriko du ondasunak babes kategorian jakin batzuetan sartzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

IKO/IO gisa aitortutako ondasun higiezinaren kokapenen [mapa interaktiboa](#) eta sarbide baldintzak.

3.5.2. Ikerkuntzara sarbidea

Ondare Historikoaren Zerbitzuak Nafarroako kultura ondareko ondasunak hobeki eza-gutzeko ikerkuntza sustatuko du. Helburu horrekin, erraztu egingen du indusketa arkeologikoetatik iritsi eta aipatutako zerbitzuko Arkeologia Biltegian gordetako materialetara sarbidea izatea.

Sarbidea aldeztatik aurretiko hitzordu bidez egingen da, eta ikerkuntzaren helburua egiaztatuko da.

Materialak maileguan uztea ez da baimenduko, eskakizun teknologiko jakin batzuen ondoriozko salbuespen kasuetan salbu, betiere, Ondare Historikoaren Zerbitzuak behar bezala baimendu badu.

Ondasun higigarrien esku hartzeen azken memoriak kontsultatzeko aldeztatik aurretik hitzordua eskatu beharko da, eta kontsultatutako materialen kopiarik ez da lortzen ahalko.

3.6. Kultura zabalkundea

Zaharberritze eta kontserbazioko esku hartze jakin batzuen ondorioz kudeatutako jarduketak puntualak alde batera utzita, Ondare Historikoaren Zerbitzuak hedapen eta dibulgazio jarduerak hauek garatzen ditu:

Hileroko buletina

ENTERARTE izenarekin hileroko buletina argitaratzen da; egin berri diren edo martxan dauden kontserbazio eta zaharberritze lanen informazio laburra eskaintzen da. Albisteak modu elebidunean eskaintzen da (gaztelaniaz eta euskaraz), eta gehienetan lan horiek jasotzeko argazki erreportajea edo bideoa ere eskaintzen da. [Webgunetik](#) eta harpidedunen zerrendatik zabaltzen.

Europako Arkeologia Jardunaldiak

Ekaingo hirugarren asteburuan egiten dira, eta Europako Kontseiluko kide guztiek hartzen dute parte. Helburu hauek dituzte:

- › Europako kultura aniztasun eta aberastasunari dagokienez Europako hiritarrak kontzientziatzea;
- › Arkeologiari ikusgarritasuna ematea hainbat publiko eta komunikabideren aurrean;
- › Publiko oro har eta aginte politikoak kontzientziatzea, ondare arkeologikoa babesteko beharraz;
- › Publikoak Europako kulturen mosaikoa ulertzea ahalbidetzea;
- › Arkeologia egiten duten tokiak bisitatzen ez dituzten publiko berriak erakartzea;
- › Arkeologiaren kate operatibo osoaren balioa jendaurrean nabarmentzea, «indusketatik museora»;
II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

2.2 Zerbitzuaren baldintzak hobetzera bideratutako neurriak

a) Kultur Ekintza Zerbitzuko zerbitzuetara sarbidea izatea errazteko eta zerbitzuko baldintzak hobetzeko neurriak.

Neurri erraztaileen eta Kultur Ekintza Zerbitzuko zerbitzuetara sarbidea izatea errazteko neurrien artean honako hauek aipatzen ahal dira:

- › CulturaNavarra webgune irigarria (AA maila).
- › Lanpostuak eta zerbitzuak langileen beharrianetara eta desgaitasuna duten erabiltzaileei egokitzea.
- › Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonentzat erabateko irisgarritasuna, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko espazioen birmoldaketa plana dela bide, eta zerbitzu egokituak izatea.
- › Laguntzen baremoan irizpide bat gehitzea, bazterketa arriskuan dauden eta/edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzak jasotzeko irisgarritasuna izatea ahalbidetuko duen neurriak txertatzeko.

b) Publikoari zuzendutako arreta ona bermatzeko neurriak

Publikoari zuzendutako arreta ona bermatzeko jarduteko konpromiso etikoak eta arau zehatzek gidatuko dute Kultur Ekintza Zerbitzuko langileen jarduna:

- › Jarduteko konpromiso etikoa: eguneroko lanean, langileek zaindu egingen dute erabiltzaileak errespetuz tratatzea, bat etorri gehieneko laguntza, gutxieneko eragozpena, konfiantza, jardun eraginkorra eta tratu pertsonalizatuko printzipioekin.
- › Publikoari arreta emateko arauak: eguneroko lanean publikoarekin harreman zuzena daukaten langileek arau hauek bete beharko dituzte:
 - . Haien burua behar bezala identifikatzea.
 - . Publikoaren kontsulta edo iradokizun oro aktiboki entzutea.
 - . Sortutako arazoak edo zalantzak argitzen saiatzea, hizkuntza ulergarria erabiliz.
 - . Une oro publikoa adeitasunez tratatzea.

3. Akatsak zuzentzeko neurriak

Kultur Ekintza Zerbitzuak karta honetan onartutako konpromisoak bete ez dituela pentsatzen duten herritarrek idatzi bat igortzen ahal diote Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendariari, horren arduraduna den aldetik; zuzendariak idatziz erantzunen du.

Aipatutakoa bete ez bada, Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendariak barkamena eskatzeko gutuna igorriko dio kasuan kasuko herritarrari, eta ez-betetzearen arrazoiak azalduko dizkio, baita antzemandako gabeziari lotuta hartutako neurriak ere.

Ez-betetze horrek ez du eraginen Foru Administrazioaren ondare erantzukizunik.

3.1. Lankidetzan eta lurralde mailan lan egitea

Nafarroako kultura sektoreko enpresekin zein Nafarroan lan egiten duten kultura arloko profesionalekin etengabe harremanetan egotea Kultur Ekintza Zerbitzuaren ezaugarri bereizgarri bat da; horri esker, lanbidetik sortzen diren aurrerapenak eta hobekuntzak kultura programetan eta laguntza planetan etengabe txertatzen ahal dira. Gertutasuna Kultur Ekintza Zerbitzuak antolatutako zenbait jardueratan profesionalen kopuru altu batek parte hartzean ikusten da.

3.2. Posta helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa

Publikoak Kultur Ekintza Zerbitzuko zerbitzuetara sarbidea izatea errazteko, hona hemen zerbitzuko harremanetarako datuak:

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

a) Kultur Ekintza Zerbitzuko helbidea

Navarrería kalea, 39

Telefono zenbakia: 848424673

31001 Iruña

b) Jendea hartzeko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera 08:00etik 15:00etara.

c) Telefono zenbakiak

848424674

848424689

d) Sarbide elektronikoa

KEZen posta elektronikoa: accioncultural@navarra.es

Webgunea: <http://www.culturana Navarra.es/>

KEZek ematen dituen funtzio, zerbitzu eta egiturari buruzko informazioa bildu da webgunean.

Webguneak, horrez gain, KEZen prestakuntza atal bakoitzari buruzko datuak ere baditu, baita zerbitzu horren esku dauden norgehiagoka laguntzen deialdien informazio eguneratua ere.

Halaber, webguneak KEZen eskumenen esparruko beste webgune garrantzitsu batzuetara iristeko estekak ere baditu, arte programa batzuetara, esaterako: Erriberriko Antzerki Jaialdia, Landarte, DNA eta SMADE.

3.3. Zerbitzu kartaren ardura duen unitatearen identifikazioa eta helbidea

Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria

Navarrería kalea, 39


31001 Iruña

Telefonoa: 848424673

Posta elektronikoa:
accioncultural@navarra.es

3.4. Sarbide baliabideak eta planoak

Gertuen dauden aparkalekuak Zezen Plaza, z.g., eta Gazteluko Plaza, z.g.



ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

4. ERANSKINAK

4.1.

1. ERANSKINA NORGEHIAGOKA ARAUBIDEAREN BIDEZ ARAUTUTAKO DEIALDIAK

Toki erakundeen kultura ekintzari laguntzeko plana

ARTEA ETA KULTURA	
IZENA	ARTEA ETA KULTURA PROGRAMAREN BARNEKO ARTE ETA KULTUR JARDUERAK EGITEKO NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.
DESKRIBAPENA	Nafarroako udalerrietan arte eta kultura jarduerak sustatzeko laguntzak arautzea. Deialdi honen ondorioetarako, arte eta kultura jarduerak Kultur Ekintza Zerbitzuak egin ohi dituen jarduerekin lotutako ikuskizun eta erakusketak dira, sektore hauetakoak: musika, lirika, literatura, antzerkia, dantza, arte plastikoak, zinema eta ikus-entzunezkoak, eta jarduerak gauzatzeko eta hedatzeko gastuak.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako herrietako programazio kulturala handitzea eta hobetzea. › Nafarroako talde artistikoen programazioari laguntzea. › Nafarroako kultura ekoizpena areagotzea eta hobetzea. › Kultura jarduerak sustatzea udalerrri guztietan.
HARTZAILEAK	40.000 biztanle arteko populazioa duten toki entitateak.
UDAL PLATEA LOCAL. PROGRAMA ESZENIKOETARAKO LAGUNTZAK, UDAL ESPAZIOETAN	
IZENA	NAFARROAKO UDALERRIEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, FORU KOMUNITATEKO UDAL AGERTOKIETAN ARTE ESZENIKO ETA MUSIKAL PROFESIOALEN PROGRAMAZIOA BULTZATZEKOA. UDAL PLATEA LOCAL
DESKRIBAPENA	Laguntza ematea udalerriek arte eszenikoen eta musikalen arloan egiten duten programaziorako, publikoekin bitartekaritza egiteko jardueretarako, egoitzetarako eta artista elkartuen beste ekintza batzuetarako, arte eszenikoen eta musikaren arloko profesionalak kontratatuta, Foru Komunitateko udalen titulartasunekoak diren barruko agertokietarako. Nafarroako toki entitateek kultura eta arte jarduerak egitea sustatzeko laguntzak (musika, lirika, antzerkia, dantza zinema eta ikus-entzunezkoekin lotutako ikuskizunak, erakusketak eta ekintzak).
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako herrietako programazio kulturala handitzea eta hobetzea. › Nafarroako talde artistikoen programazioari laguntzea. › Nafarroako kultura ekoizpena areagotzea eta hobetzea. › Publikoarekiko bitartekaritza jarduerak sustatzea. › Egoitza proiektu gehiago egitea.
HARTZAILEAK	Nafarroako Antzokien Sarea elkarteko agertoki baten titularrak diren Nafarroako udalerriak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

TOKI ENTITATEEI KULTURAREN ARLOAN MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO JARDUERAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.

IZENA	TOKI ENTITATEEI KULTURAREN ARLOAN MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO JARDUERAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.
DESKRIBAPENA	Kultura arloan lankidetzako toki entitateen elkarten eta toki entitateen jarduerak bultzatzea, lagungarriak badira Nafarroako Foru Komunitatearen eta Akitania Berria Frantziako eskualdearen arteko mugaz gaindiko harremanak garatu eta indartzeko.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Mugaren bi aldeetako udaletako kultura zerbitzuen lankidetzaren sustatzea, harremanak ezartzeko, mugikortasuna bultzatzeko, jardunbide egoiak transmititzeko, kudeaketa laneko metodoak partekatze, proiektu komunetan eta antzeko ekintzetan lan egiteko taldeak osatzeko eta Nafarroako udalerrietako kultura programazioa hobetzeko. › Kultura eragile publiko eta pribatuen sormena bultzatzea, zirkuituak, programazioak, guneak, egoitzak eta abar koordinatuta. › Kulturaren esparruan publikoak sortzen, prestatzen eta fidelizatzen laguntzea. › Hainbat dimentsio hartuko dituzten gaitasun berriak eskuratzea.
HARTZAILEAK	Nafarroako toki entitateak eta toki entitateen elkarteak.

Nafarroako ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko programa

GENERAZINEMA GARAPENA

IZENA	GENERAZINEMA GARAPENA LAGUNTZEN DEIALDIA
DESKRIBAPENA	<p>Ikus-entzunezko film luzeen proiektuak garatzeko laguntzak (film zinetografikoak eta bestelako ikus-entzunezko lanak).</p> <p>Film luzearen proiektua garatzeko fasearen berezko operazioak izanen dira produkzio fasea baino lehenago egiten direnak, eta, batik bat, honako hauek: lanaren egile eskubideak eskuratzea, gidoia garatzea, aktoreen hautaketa prestatzea, produkzio plana prestatzeko lanak, dokumentazio lanak eta filmatzeko tokiak bilatzekoak, aurrekontua eta finantzaketa plana prestatzea, marketin eta banaketa plana prestatzea, sustapen materiala prestatzea (inprimatzeko materiala, teaserra, trailerra, programa pilotua, webgunea, eta abar), proiektuaren alderdi teknologikoei lotutako lanak eta film luzea garatzeko fasean funtsezkotzat jotzen diren beste kontzeptu batzuk.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Ikus-entzunezkoentzako estatuaren laguntzen osagarria izatea › Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sendotzea › Nafarroako Foru Komunitatearen oparotasun kulturalen eta ekonomikoan eragitea, S3aren sektore estrategikoa baita hau, bizitasun eta zabalkuntza handikoa › Nafarroak bere zerga arautegiaren bidez ezarrita dituen zeharkako laguntzen osagarri bat eskaintzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

HARTZAILEAK

Laguntza hauek jasotzen ahalko dituzte bai pertsona fisiko independenteek, bai pertsona juridiko pribatu independenteek.

Pertsona pribatu independentetzat hartzen da, pertsona fisiko edo juridiko izanik, nagusitasunezko eraginik jasotzen ez duena, ez ikus-entzunezko komunikazio/zabalkunde zerbitzuen emaile baten partetik, ez telebista kate pribatu bateko titular baten partetik, eta, bere aldetik, inongo kasutan nagusitasunezko eraginik ez duena, izan jabetza arrazoiengatik, izan partaidetza finantzarioagatik, edo izan baldintzatzeko ahalmena izateagatik, nolabait, kasuko administrazio edo kudeaketa organoen erabakien gainean.

GENERAZINEMA PRODUKZIOA

IZENA

GENERAZINEMA PRODUKZIOA LAGUNTZEN DEIALDIA

DESKRIBAPENA

Zinema eta ikus-entzunezko produkzioari laguntzak ematea.

A) modalitatea, film luzeen ekoizpenerako laguntzak.

A.1. Film luzeen ekoizpenerako laguntza orokorrak

A.2. Aurrekontu txikiko film luzeen ekoizpenerako laguntzak

B) modalitatea, film laburren ekoizpenerako laguntzak.

B.1. Fikziozkoak, dokumentalak edo esperimentalak diren film laburren produkzio-rako laguntzak.

B.2. Animazioko film laburrak ekoizteko laguntzak

HELBURUAK

- > Ikus-entzunezkoentzako estatuaren laguntzen osagarria izatea
- > Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sendotzea
- > Nafarroako Foru Komunitatearen oparotasun kulturalen eta ekonomikoan eragitea, S3aren sektore estrategikoa baita hau, bizitasun eta zabalkuntza handikoa
- > Nafarroak bere zerga arautegiaren bidez ezarrita dituen zeharkako laguntzen osagarri bat eskaintzea.

HARTZAILEAK

A modalitatea: pertsona juridiko pribatu independenteek nahiz ekonomia intereseko taldeek.

B modalitatea: pertsona fisiko independenteek nahiz pertsona juridiko pribatu independenteek.

GENERAZINEMA JAIALDIAK

IZENA

GENERAZINEMA JAIALDIAK LAGUNTZEN DEIALDIA

DESKRIBAPENA

Enpresa eta profesionalentzako laguntzak Nafarroan 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urriaren 31 arte (biak barne) aurrez aurre edo online Nafarroan egiten diren zinemagintzako jaialdi eta lehiaketak antolatzeke.

HELBURUAK

- > Zinema ekoizpena eta ikus-entzunezkoak Nafarroan sustatu eta hedatzeko asmoa duten jaialdiak eta sariketak egitea bultzatzea.
- > Zinemagintzako jaialdi eta lehiaketek izaera kultural edo artistikoa izan beharko dute, eta gutxienez edizio bat egina.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

HARTZAILEAK	<p>Pertsona fisikoak, Nafarroako Foru Komunitatekoak direnak edo gutxienez 2020ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Foru Komunitatean erroldaturik daudenak.</p> <p>Merkataritzako sozietateak, sozietate zibilak, ondasun erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereiziko unitate, nortasun juridikorik gabea.</p>
GENERAZINEMA EXPORTA	
IZENA	GENERAZINEMA EXPORTA LAGUNTZEN DEIALDIA
DESKRIBAPENA	Banakako ebaluazioaren araubidean, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektore profesionalaren film bukatuen nahiz ekoizpen fase aurreratuan daudenen sustapen eta zabalkunderako ekintzak egiteko laguntzak arautzea. Aurreikusiko da enpresek eta profesionalak zinematografia eta ikus-entzunezkoen arloko jaialdi, merkatu, azoka eta ekitaldi profesionaletan parte hartzea, bai aurrez aurre bai online egiten diren haietan.
HELBURUAK	Nafarroako ikus-entzunezkoen sektore profesionaleko filmak ikusgai egotea eta horretarako ekintza komertzialak bultzatzea.
HARTZAILEAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako Foru Komunitatekoak diren edo bertan erroldaturik dauden pertsona fisikoak. › Merkataritzako sozietateak, sozietate zibilak, ondasun erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereiziko unitate, nortasun juridikorik gabea.
GENERAZINEMA EMANALDIA	
IZENA	GENERAZINEMA EMANALDIA LAGUNTZEN DEIALDIA
DESKRIBAPENA	Nafarroan kokatutako zinema aretoei zuzendutako laguntzak arautzea, norgehiagoka ebaluazioaren araubidean, zinema ikusgai jartzeko jarduerak programatzeko. Bi modalitatetan egituratu dira: -A modalitatea: zinema programatzeko laguntza orokorrak (zinema ikusgai jartzeko programazio erregularra); B modalitatea: kultura interes bereziko zinema programatzeko laguntza selektiboak (kultura interes bereziko zinema programazioa, ikusleak eta programazioa dibertsifikatzea errazteko diseinatutakoa, eta ekarpen esanguratsua egiten bada Nafarroako Foru Komunitateko zinema eskaintzan, espezializazioa eta originaltasuna dela medio.).
HELBURUAK	Nafarroako zinema aretoetako zinema programazioa eta lanak ikusgai jartzea bultzatzea.
HARTZAILEAK	<p>Nafarroako Foru Komunitatekoak diren edo bertan erroldaturik dauden pertsona fisikoak.</p> <p>Merkataritzako sozietateak, sozietate zibilak, ondasun erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereiziko unitate, nortasun juridikorik gabea.</p>

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Nafarroako arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko plana
Enpresak eta profesionalak

ARTEM PRO. ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKALEN EKOIZPENETARAKO LAGUNTZAK, ENPRESA ETA PROFESIONALENTZAT	
IZENA	ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKALEN EKOIZPENETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, ENPRESA ETA PROFESIONALENTZAT (ARTEM PRO)
DESKRIBAPENA	Deialdi honen xedea da arte eszenikoetako eta musikako ikuskizunak (zuzenekoak, aretokoak edo kalekoak) ekoizteko proiektu berrietarako laguntzak arautzea, kalitatezko arte eskaintza bat, askotarikoa, berritzailea eta herritar guztientzako interesgarria, sustatzeko asmoz. Laguntzapeko proiektuak Nafarroan ekoiztiak eta/edo estreinatuak izan beharko dira, eta Nafarroako Foru Komunitateko enpresek eta profesionalak eginak.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako arte eszeniko, artistiko eta musikalen ekoizpena bultzatzea. › Kalitatezko eskaintza bat, askotarikoa, berritzailea eta herritar guztientzako interesgarria lortzea.
HARTZAILEAK	Nafarroako arte eszeniko eta musikalen enpresa eta profesionalak.
ARTEM JAIALDIA. ARTE ESZENIKOEN ETA MUSIKALEN EKOIZPENETARAKO LAGUNTZAK, ENPRESA ETA PROFESIONALENTZAT	
IZENA	ENPRESA ETA PROFESIONALEK ANTOLATUTAKO ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALETAKO JAIALDI ETA LEHIAKETETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA (ARTEM JAIALDIA).
DESKRIBAPENA	Deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean enpresa eta profesionalak antolatutako arte eszenikoaren eta musikaren arloko jaialdiak eta lehiaketak egiteko laguntzak arautzea, Kultur Ekintza Zerbitzuaren eskumenen barnean, horrela arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko eta ikusleentzat interesa duen eta kalitatezkoa, anitza eta berritzailea den arte eskaintzari laguntzeko.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Enpresa eta profesionalak antolatutako arte eszenikoaren eta musikaren arloko jaialdiak eta/edo lehiaketak egiteko laguntzak arautzea, betiere Nafarroako Foru Komunitatean egiten badira eta Kultur Ekintza Zerbitzuari dagozkion eskumenen barruan badaude. › Arte eszenikoak eta musikalak sustatzea. › Kalitatezko arte eskaintza bat, askotarikoa, berritzailea eta herritar guztientzako interesgarria sustatzea.
HARTZAILEAK	Nafarroako arte eszeniko eta musikalen enpresa eta profesionalak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

ARTEM EXPORTA. ENPRESA ETA PROFESIONALENTZAKO LAGUNTZAK, ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN ARLOKO PROFESIONALEK BIRAK EGIN DITZATEN NAFARROATIK KANPO, ETA PARTE HAR DEZATEN ARTE ESZENIKO, MUSIKAL ETA PLASTIKOEN ARLOKO ARTISTA ETA PROFESIONALEN AZOKA, JAIALDI ETA EKITALDI PROFESIONALETAN.

IZENA	ENPRESA ETA PROFESIONALENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN ARLOKO PROFESIONALEK BIRAK EGIN DITZATEN NAFARROATIK KANPO, ETA PARTE HAR DEZATEN ARTE ESZENIKO, MUSIKAL, PLASTIKO ETA ZINEMATOGRAFIKOEN ARLOKO ARTISTA ETA PROFESIONALEN AZOKA, JAIALDI ETA EKITALDI PROFESIONALETAN.
--------------	---

DESKRIBAPENA	Deialdiaren xedea da arte eszeniko eta musikalen proiektuak Nafarroatik kanpo hedatzea eta azoka, merkatu, jaialdi eta beste ekitaldi profesional batzuetan parte hartzea sustatzeko laguntzak kudeatzea. Deialdia zuzentzen zaie arte eszenikoetako eta musikaletako produkzioen mugikortasun proiektuei, baldin Nafarroako konpainiek eta/edo artistek sortuak badira edo Nafarroako enpresek banatuak (hau da, Foru Komunitatetik kanpoko emanaldien kontratazioa).
---------------------	---

HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako arte eszeniko eta musikalen banaketa bultzatzea. › Arte eszeniko, musikal, plastiko eta zinematografikoko profesionalak promozio ekitaldietan parte hartzea bultzatzea.
------------------	---

HARTZAILEAK	Nafarroako arte eszeniko eta plastikoen arloko enpresa eta profesionalak.
--------------------	---

Nafarroako kultura sektorea prestatzeko eta profesionalizatzeko programa

SORKUNTZA LANTEGIEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN DEIALDIA, PROFESIONALENTZAT

IZENA	Profesionalentzako sorkuntza lantegietarako laguntzak
--------------	---

DESKRIBAPENA	Deialdiaren xedea da laguntza ekonomikoa ematea espazio kultural independenteak kudeatzen dituzten pertsona fisikoei eta juridikoei, sormenezko praktikak susta ditzaten edo horiek titulartasun publikoko ekipamenduetan txertatzeko proiektu metodologikoak kudea ditzaten. Laguntza hauek kultura eta sormen sektorerantz zuzenduak daude (Nafarroako kultura eta sormen industriak). Deialdiaren helburua da erraztasunak ematea sorkuntza artistikoa bultzatzera bideratutako ekimenak garatzeko eta sektore artistikoko enpresen hazkundera areagotzeko. Eta horrekin batera, pentsamendu garaikidea, adierazpen askatasuna eta dibertsitatea sustatzea, hedapena eta herritarrengana iristea, eta proiektu lokala, nazionala eta nazioartekoa lortzea.
---------------------	---

HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Arte sorkuntza sustatzera eta artistak profesionalki haztera bideratutako titulartasun pribatuko ekipamenduetan babestea. › Tresna metodologikoak babestea, sektore artistikoaren profesionalizazioarekin zerikusia duten sektore publikoko entitateen ekimenetan aplikatzeko.
------------------	---

HARTZAILEAK	Kulturaren sektoreko profesionalak, langile autonomoak eta enpresa entitateak.
--------------------	--

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

Hirugarren sektorea

Nafarroako arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko plana

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN GARRANTZITSUAK IZAN ETA ESTATUAN EMANALDIAK IZATEN DITUZTEN ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN HIRUGARREN SEKTORERAKO ENTITATEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

<p>IZENA</p>	<p>NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN GARRANTZITSUAK IZAN ETA ESTATUAN EMANALDIAK IZATEN DITUZTEN ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN HIRUGARREN SEKTORERAKO ENTITATEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA</p>
<p>DESKRIBAPENA</p>	<p>Deialdi honen xedea da laguntza ekonomikoak eta babes neurriak arautzea sostengua emateko arte eszeniko eta musikalen arloan Nafarroako hirugarren sektore kulturean aritzen diren entitate garrantzitsuen kultur egiturei, bai eta entitate horiek etenik gabe egiten duten jarduera eta proiektu kulturealen programa osoari ere.</p> <p>Deialdi honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko hirugarren sektore kultureko entitate garrantzitsua da ezaugarri hauek dituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> › Irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak izatea, helburu dutenak programazio kultural bat egitea urte osoan etenik gabe arte eszenikoen eta musikalen arloan. › Hirurogeita hamar mila (70.000) eurotik gorako aurrekontu onartua aurkeztea. › Nafarroako Foru Komunitateaz haragoko jarduketa eremua izatea. Hori behar bezala jasota egonen da estatutuetan edo eraketa eskrituran. › Urteko programazio kultural bat aurkeztea, biltzen dituen batik bat modu iraunkorrean entitateari lotutako pertsonen egin dituzten jarduerak publikoak. › Gutxienez 4 jarduketa programatzea Nafarroako Foru Komunitatean 40.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan. › Elkarteen kasuan, frogatzea bazkideen kopurua 100 edo hortik gorakoa dela. Federazioen kasuan, entitate federatuen bazkide kopurua kontuan hartuko da.
<p>HELBURUAK</p>	<p>Nafarroako kulturaren hirugarren sektoreko egitura garrantzitsuei eta aisialdi jardunari eustea laguntzea, horiek gabe ezinezkoa izanen litzatekeelako ohiko kultura jardunera itzultzea.</p>
<p>HARTZAILEAK</p>	<p>Irabazi asmorik gabeko elkarte edo fundazioak, estatutuetan ezarri bada bere xede eta helburuen artean dagoela arte eszeniko eta musikalekin lotutako jarduerak egitea eta deialdi honetan jasotako betekizunak betetzen badira.</p>

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

NAFARROAKO ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN HIRUGARREN SEKTOREKO ENTITATEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, JAIALDIAK, KONZERTUAK, IKUSKIZUNAK ETA BESTE EKITALDI BATZUK FINANTZATZEKO.

IZENA

NAFARROAKO ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN HIRUGARREN SEKTOREKO ENTITATEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, JAIALDIAK, KONZERTUAK, IKUSKIZUNAK ETA BESTE EKITALDI BATZUK FINANTZATZEKO.

DESKRIBAPENA

Deialdiaren xedea da araubide bat ezartzea arte eszenikoen eta musikalen hirugarren sektore kulturaleko entitateei dirulaguntzak emateko, jaialdiak, kontzertuak, ikuskizunak eta beste ekitaldi batzuk antolatzeagatik, horien bidez helburu hauek lortzen laguntzen badute: Nafarroako kultur ondareari eta gizarte ehunari eustea, kalitatezko arte eskaintza askotariko eta inklusibo bat egitea, gizarte eta lurralde irizpideak kontuan hartzen dituen, eta, batez ere, herritar guztiek aukera berdintasunez eskuratu ahal izatea kultura. Bi modalitatetan egituratu dira:

A modalitatea: Aurrekontu handiko jaialdiak, kontzertuak, ikuskizunak eta beste ekitaldi batzuk antolatzeko laguntzak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- › 50.000 € edo gehiagoko aurrekontua.
- › Nafarroako Foru Komunitatean egin behar dira, eta edukiak kulturala izan behar du nagusiki; programazio artistikoa intentsiboa eta etena izanen da, iraupen mugatukoa eta berariazko marka bati esker ezaguna.
- › Autofinantzaketaren gutxieneko maila ekarpenaren % 20koa.
- › Jarduera publikoak denbora tarte zehatz batean egin behar dira, eta tarte hori ez da izanen hiru egunetik beherakoa edo bi hilabetetik gorakoa (elkarren segidakoak ez direnak).
- › Gutxienez 10 proposamen artistiko programatu beharko dira.

B modalitatea: Aurrekontu txikiko jaialdiak, kontzertuak, ikuskizunak eta beste ekitaldi batzuk antolatzeko laguntzak:

- › 50.000 eurotik beherako aurrekontua.

HELBURUAK

Arte eszeniko eta musikalak sustatzea eta kalitatezko arte eskaintza egitea, askotarikoa, berritzailea eta herritar guztientzat interesgarria, funtsean Nafarroako kulturaren hirugarren sektorearen sormenari eusteko, bestela ezinezkoa bailitzateke kulturaren jardun arruntera itzultzea.

HARTZAILEAK

Irabazi asmorik gabeko elkarte edo fundazioak, estatutuetan ezarria daukana bere xede eta helburuen artean dagoela arte eszeniko eta musikalekin lotutako jarduerak egitea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

IDEIA, KULTURA ZABALTZEKO LAGUNTZAK

IZENA KULTUR ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, KULTURA HEDAPENERAKO PROIEKTUAK EGITEKO - IDEIA

DESKRIBAPENA Deialdiaren xedea da kultur proiektuak egiteko kultur entitate eta elkar-teei emanen zaizkien laguntzak arautzea; entitate eta elkarte horiek modu iraunkorrean gauzatu beharko dituzte hedapeneko jarduerak (hitzaldiak, mintzaldiak, erakusketak, lehiaketak, biltzarrak, zinema zikloak eta antze-koak) Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Gobernuko Vianako Print-zea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenen esparruaren barnean.

HELBURUAK Kultura elkarte eta entitateek egindako kultura proiektuak osatzea lagunt-zea, elkarteen esparrutik egindakoak eta Nafarroa osora zabalduetakoak, irismen sozial edo inklusiboarekin eta ehun soziala sustatuz.

HARTZAILEAK Irabazi asmorik gabeko elkarte edo fundazioak, estatutuetan ezarria dauka-na bere xede eta helburuen artean dagoela arte eszeniko eta musikalekin lotutako jarduerak egitea.

Nafarroako kultura sektorea prestatzeko eta profesionalizatzeko programa

ARTE ESZENIKOEN ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN ELKARTE PROFESIONALEI ZUZENDU-TAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

IZENA Arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen elkarte profesionalentzako diru-laguntzak

DESKRIBAPENA Nafarroako arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen elkarte profesionalen funtzionamendu, egitura eta jarduera gastuei sostengua ematea.

HELBURUAK

- › Ikus-entzunezkoen sektoreko eta arte eszenikoetako profesionalen enti-tateen jarduna laguntzea. Elkartegintza sustatzea.
- › Nafarroako ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektore profesiona-larekin aliantzak ezartzea, 2030 GJHren printzipioetan oinarrituz.
- › Nafarroako arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sektore profesiona-l jasangarria gure lurraldean sustatzea.
- › Nafarroako gizarteak kulturarekiko duen jarrera positiboa eta sozializa-zioa areagotzea.

HARTZAILEAK Nafarroako arte eszeniko eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen elkarteak.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Herritarrak

Nafarroako kultura sektorea prestatzeko eta profesionalizatzeko programa

AGORART. PRESTAKUNTZA ARTISTIKORAKO LAGUNTZAK	
IZENA	ARTE IKASKETETAN SAKONTZEKO BEKEN DEIALDIA
DESKRIBAPENA	Nafarroako ikasleek arte ikasketetan sakontzeko laguntzak (30 urtera arte). 8 beka: Arte plastikoetako bat, ikus-entzunezko arteetako bat, arte eszenikoetako hiru, musikako hiru eta kasuan kasuko luzapenak.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> > Nafarroako artistei kanpo proiektzioa ematea. > Nafarroaren irudi kulturala eta artistikoa hobetzea. > Nafarroako artisten bikaintasuna lortzea.
HARTZAILEAK	<p>Nafarra izatea edo Nafarroan erroldatuta egotea bekak irauten duen bitartean.</p> <p>30 urte edo gutxiago izatea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.</p> <p>Baldintza hauetako bat betetzea:</p> <p>a) Beka eskaerari dagokion ikasketen arloko titulu akademiko ofiziala izatea.</p> <p>b) Salbuespenez, beste instituzio batzuek emandako tituluak onartuko dira, Hezkuntza Ministerioak homologatuta ez badaude ere. Salbuespen hori arte eszenikoen kasuan aplikatuko da.</p>

4.2.

2. ERANSKINA. PROGRAMA PROPIOAK

Nafarroako ikus-entzunezko sektoreari laguntzeko programa

PUNTO de VISTA	
IZENA	PUNTO DE VISTA ZINEMA DOKUMENTALAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA.
DESKRIBAPENA	<p>Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia urteroko topaketa bat da, zinema dokumentaleko joera berriekin egiten dena; es-treinakoz, 2005ean. Nafarroako Gobernuak eta NICDO sozietate publikoak antolatzen dute, eta otsailean egiten da Iruñean.</p> <p>NICDO sozietatearekin egindako programa kontratu baten bidez kudeatzen da, NICDO-ZINEMA izenekoa.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> > Topaketak zenbait mailatan sortzea, borondate berritzailez eta gainditzailez. > Arreta berezia eskaintzea beren lanarekin proposamen arriskatua eta bilaketa eskatzen duena egin duten ikus-entzunezkoen sortzaileei. > Balioestea errealizatzaileek filmetako subjektuekin eta publikoarekin duten konpromiso etikoa. > Sustatzea errealitatea ezagut dadila eta modu independentean adieraz dadila.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

BIDEOJOKO ETA SORKUNTZA DIGITALAREN JARDUNALDIAK

IZENA NAFARROAKO FILMOTeka

DESKRIBAPENA Programaren helburua da Foru Komunitatean sektoreak bizi duen egoera aztertzea eta sortzaileen eta profesionalen arteko topaketa sustatzea. Sekto- reko profesionalei, ikasleei eta artistei zuzenduta dago, sorkuntza digitalaren eta bideojoko narratiboen esparruan interesa badute.

HELBURUAK

- › Nafarroako bideojokoen esparruan azterketak eta garatzaileak sortzea eta finkatzea laguntzea.
- › Kultura digitalaren eta bideojokoen industriaren egoera ezagutzea.
- › Hainbat esparru digitaletan gero eta indartsuagoa den sektorearen to- pagune izatea, ez soilik bideojokoaren azken industrian, baita hezkunt- zan, osasunean, kulturean, ikerkuntzan eta abar.

Nafarroako arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko plana

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

IZENA ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

DESKRIBAPENA Uztailleko bigarren hamabostaldian egiten den jaialdia. Nafarroan estrei- natzen diren antzerki klasikoko ekoizpen garaikide onenen hedapena. Nafarroako antzerki profesionala, laborategia, kale antzerkia eta bestelakoak lantzeko beste atal batzuk.

HELBURUAK

- › Estatu mailako antzerki klasikoko jaialdien artean erreferentzia izatea.
- › Nafarroako ikusleei zein bisitariei antzerki klasikoko ekoizpenik onenak eskaintzea.
- › Nafarroako sektore profesionala sustatzea.

SMADe: ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEA. LIZARRA.

IZENA ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEA. LIZARRA.

DESKRIBAPENA Antzinako musika eta musika barrokoa lantzen duen musika hedapenerako programa; Lizarran ospatzen da iraileko lehen hamabostaldian.

HELBURUAK

- › Erdi Aro, Errenazimendu eta Barrokoko antzinako musika europar one- naren lagin anitza eskaintzea, bai bertsio historizisten eta beste musika/ garai historiko batzuekin fusionatzeko kontzertuen bidez, bai musika horiek ezagutu eta gozatzea osatzeko jardueren bidez, besteak beste, hitzaldiak, eskola magistralak, tailerrak, dantzak, musika kalean, zinema eta abar antolatuz.
- › Antzinako musika eta musika barrokoa hedatzea.
- › Lizarrako Udalarekin, kultura entitateekin eta saltokiekin kolaboratzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I
BALIABIDEEN
ETA GARAPEN ES-
TRATEGIKOAREN
ATALA

II
ARGITALPEN
BULEGOA

III
ARTXIBOEN ETA
DOKUMENTU
ONDAREAREN
ZERBITZUA

IV
NAFARROAKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOEN
SISTEMA

V
MUSEOEN
ZERBITZUA

VI
ONDARE
HISTORIKOAREN
ZERBITZUA

VII
KULTUR
EKINTZA
ZERBITZUA

ORGANORAKO MUSIKA ZIKLOA NAFARROAN

IZENA ORGANORAKO MUSIKA ZIKLOA NAFARROAN

DESKRIBAPENA

Organoek sortu eta interpretatutako musika ezagutzera emateko eta horren balioa nabarmentzeko programa, kontzertuen bidez eta musika tresna bitxi hau ezagutzen sakonduz. Jarduerekin osatzen da, besteak beste, mahai inguruak, bisita gidatuak, hitzaldiak eta bestelako hedapen jarduerak. Tokiko organistak zein estatuko eta nazioarteko erreferenteak biltzen ditu. Nafarroako agertoki eta organo garrantzitsu eta historikoak aukeratzen dira. Udalekin eta entitateekin lankidetzan.

HELBURUAK

- › Organoaren musika entzuleei oro har ezagutzera ematea.
- › Nafarroako organo ondarea ezagutzera ematea eta mantentzean.
- › Publikoari organoaren munduaren gaurkotasuna eskaintzea.
- › Organoaren esparruari ikuspegi zabal eta heterogeneoetatik heltzea.

DNA - NAFARROAKO DANTZA GARAIKIDEAREN PROGRAMA

IZENA DNA. NAFARROAKO DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA.

DESKRIBAPENA

Lurralde mailako dantza garaikideko jaialdia, arreta berezia jarriz proposamen berritzaileenei, sorkuntza lanari, tokiko sorkuntzari, hausnarketari eta aniztasunari bereziki erreparatzen dion prestakuntza.

HELBURUAK

- › Gaur egun dantzatzen den dantza gisa ulertzen den dantza bultzatzea, eta gorputz lanaren eta adierazpenaren hainbat moduren integratzaile gisa.
- › Dantzaren inguruan publiko berriak sortzea.
- › Nafarroako gizarteari dantza programazio interesgarri eta integratzailea eskaintzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

Toki erakundeen kultura ekintzari laguntzeko plana

LANDARTE	
IZENA	LANDARTE KULTURA GARAIKIDEA ETA LANDATARTASUNA
DESKRIBAPENA	<p>Landarte programa kultura proiektu batean oinarritzen da, Nafarroako landa ingurunean herrietako jendearekin batera egiten da eta bestelako jarduera artistiko zeharkakoekin edo osagarriekin fusionatzen da, tokian bizi diren artistek lagundurik. Hala, sormen, parte hartze, berrikuntza eta arterako prozesu bat aktibatzen da; prozesu hori lantegietan egiten da eta eszenaratzeekin bururatzen da.</p> <p>Herritarrek hasiera-hasieratik parte hartzen dute; horixe da proiektu horien euskarria. Epe ertainerako helburua proiektu horien bilakaera eta proiektu horietako partaideen inplikazioa dira. Zenbaitetan, egitear dauden proiektuak berrituz; beste batzuetan, berriz, partaideen inplikazioa eta/edo tokiko garapen ekonomikorako proiektuetara bideratutako bilakaera bultzatuz. Nolanahi ere, kasu oroz auzolana bultzatuz, herriaren ondareari balioa emanez eta tokiko nortasuna indartzen lagunduz.</p> <p>Idea berritzaileak eta talde lana batzen direnean balio kultural handiko obra bereziak sortzen dira eta herritarrak haiekin identifikatuta gertatzen dira. Lan horiek herriko ondare kulturean txertatzen dira, eta herriari diru-sarre- ra ekonomikoak ekartzen dizkioten bisitariak bereganatzen dituzte.</p> <p>Sentsibilitatea, emozioa, nortasuna eta erkidego sentimendua dira programa horrek Nafarroako erkidego txikietan muinetaratu nahi dituen balioak.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako landa ingurunean kultura ekintzako proiektu berritzaileak sortzea. › Herritarren parte hartze aktiboa ezinbesteko helburua da, uste baita ezen, dinamika kulturalak sortzeko, azken emaitzan bezainbeste edo gehiago eragin behar dela prozesuan. › Arte garaikideko diziplinak herrietara hurbildu eta eskura jartzea, toki-koen ekarpenekin aberasteko. › Epe ertainean, proiektu horien bilakaera protagonistei irekiz eta horien inplikazioaren bidez; zenbaitetan, egitear dauden proiektuak berritzera bideratuz; beste batzuetan, berriz, partaideen inplikazioa eta/edo tokiko garapen ekonomikorako proiektuetara bideratutako bilakaera bultzatuz.
KULTUR	
IZENA	KULTUR
DESKRIBAPENA	<p>Turismoaren eta kultura ekintzaren arteko sinbiosi programa. Kultura zabalkundea, Nafarroako gizarteak eta bisitariak udan zehar kultura jardueren eskaintza enblematikoarekin gozatzeko sortutakoa, Nafarroako 38 mugarri kultural eta naturaletan, helmuga turistiko modura. Programazioak musika, dantza eta arte plastikoak hartzen ditu oinarritzat.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> › Nafarroako sektore artistikoaren hedapena sustatzea kanporantz, Nafarroako bisitarien bitartez. › Nafarroako kultura eta natura ondarea bultzatzea. › Nafarroako bisitariaren esperientzia aberastea, kalitatezko turismo helmuga jasangarriaren irudia proiektatuz. Toki entitateekin batera lan egitea artea eta kultura hedatzeko. › Sektore artistikoa ezagutzea bultzatzea eta sustatzea, Nafarroako zein beste erkidego batzuetako sortzaileena.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

I BALIABIDEEN ETA GARAPEN ES- TRATEGIKOAREN ATALA

II ARGITALPEN BULEGOA

III ARTXIBOEN ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUA

IV NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMA

V MUSEOEN ZERBITZUA

VI ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA

VII KULTUR EKINTZA ZERBITZUA

BIRA NAFARROAN BARNA

IZENA

BIRA NAFARROAN BARNA

DESKRIBAPENA

Nafarroako musikaren sektoreari laguntzeko programa estrategiko berria; lurralde osoko udalerriek kulturara sarbidea izatea bermatzeko eta lurralde ikuspegiarekin koherentziaz sortu da. Nafarroako gaur egungo musika herrikoia egiten duten bakarlari zein musika taldeen kontzertuen programazio zabalarekin konfiguratu da, Nafarroako lurralde osoan.

HELBURUAK

- › Estilo guztietako gaur egungo musika herrikoian Nafarroan agertzen ari diren sortzaileak babestea.
- › Nafarroako kultura etxeetan kontzertuen zirkuitua sortzea sustatzea.
- › Nafarroako musikaren sektoreko eragile profesionalekin lankidetzan aritzea.
- › Navarra Live Music! marka indartzea.

NAFARROAKO FILMOTEKA

IZENA

NAFARROAKO FILMOTEKA

DESKRIBAPENA

Nafarroako Filmotekaren presentzia Nafarroa lurralde osoan hedatzeko programa berria. Proiektu honek Nafarroako Filmoteka Foru Komunitatearen lurraldean hedatzen du, eta toki entitateak gonbidatzen ditu filmotekak eta entitateek proposatutako programazio sarearen parte izatera. Proposamenek zine forum formatua hartzen dute, eta obren egileak ere bertaraten ahal dira. Programazioak lotura estua du Nafarroako zinemarekin, eta hala tokiko sorkuntza ere hedatu eta babesten da.

HELBURUAK

- › Nafarroako Filmotekaren lana eta programazioa Nafarroako toki entitatei ezagutaraztea.
- › Nafarroako Filmotekaren eta toki entitateen kultura ekipamenduen arteko lankidetzaren sustatzea, kalitate handiagoko zinema eskaintza lortzeko eta publiko berriak sortzeko.

CON LOS PIES EN LAS NUBES - OINAK HODEIETAN

IZENA

OINAK HODEIETAN

DESKRIBAPENA

Baluart Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak sustatutako programa berria, Nafarroako arte eszenikoen elkarrean eta jarduerak hartuko dituzten toki entitateen lankidetzarekin.

HELBURUAK

- › Nafarroako arte eszenikoetako sektore profesionala babestea.
- › Kultura programazioa lurraldean dibertsifikatzea.
- › Espazio berriak aurkitzea antzerki, zirku, magia edo dantzarako.
- › Publikoak esperientzia kultural eta artistikoaz gozatzeko modu berri bat proposatzea.

ZERBITZU KARTA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA
